



Azoka berria posible dela frogatzera, bihar

Azoka Eguna da Arrasaten, moda desfile eta guzti | 12



JOKIN BEREZIARTUA

Debagoieneko zazpi borrokalari Espainiako txapelketara, bihar | 28



Apirilaren 20an izango da Berdegara eguna | 20



Zinema laburraren leihoa berriro zabalduko da Arkupen: Huhezinema 2013 | 31

Sarasua, Pagola eta Ibarretxe, Oñatiko Santa Ana aretoan.



LEIRE KORTABARRIA

KRISIA: GIZATIARRAGOAK IZATEKO AUKERA

Jon Sarasuak, Jose Antonio Pagolak eta Juan Jose Ibarretxeren hitzaldiak bete egin zuen Oñatiko Santa Ana | 2

Atez atekoaren kontrako manifestazioa gaur egingo dute Bergarako kaleetan

Gaur 19:15ean izango da *Atez atekoari ez! 5. edukiontzari bai! Birziklatzeari bai! Eman hitza herriari!* leloarekin Bergara Garbia herri plataformak deitutako manifestazioa. Ekimenarekin debagoiendar ugarik bat egingo dutela uste dutenez, autobus zerbitzua indartu egingo dute. | 4

SINADURAK

	Profesionaltasuna + bokazioa 6 JOXAN LARRAÑAGA
	6 Pozik bizi izatea AITZIBER ARANBURUZABALA
	Zorioneko eromena 25 ANTONIO DEOGRACIAS
	40 Alderik txarrena MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRITARRAK 10 |
HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 |
ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36
| ESKELAK 36 | EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

Miloi bat egin du gora Eskoriatzako aurtengo aurrekontuak

Antzokikoaz gain, inbertsio berriak abiaraziko ditu Udalak | 24

"Krisi ekonomikotik irtengo gara krisi ekologikotik irteten bagara"

Juan Lopez de Uralde
Equo alderdiaren sortzailea | 8



JULEN IRIONDO

Edukiontzi hori eta urdinak mantenduko dira, Bergaran | 19

Errekurritu egin dute presoan argazkien gaineko sententzia

Absolbitu egin zituzten Korrikan argazkiok erakutsi zituztenak | 5

Gizatiarragoak izateko aukerak gisa aurkeztu zuten krisia

- ▶ Krisiaren gaineko mahai-inguruak jende asko erakarri zuen Oñatiko Santa Ana antzokira
- ▶ Gizatiarrago izateko dei egin zuten hiru hizlariek

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Mahai-inguru luze, mamitsu eta, momentu batzuetan, probokatazaila izan zen joan den martitzenean Oñatin Juan Jose Ibarretxe, Jose Antonio Pagolak, Jon Sarasua eta entzuleek egin zutena. Entzuleak izan ziren mahaiko laugarren partaidea, izan ere, erlojuari kasurik egin gabe –bederatzi eta erdiak jota ziren hizlari bakoitzak bere berbaldia bukatu zuenerako–, galderekin eta iritziekin gogoz parte hartu zutelako. Kasu baten baino gehiagotan, gainera, ondo jantzita daudela erakutsi zuten, eurak ere ia-ia mahai horretara jesartzeko adina.

Mahai-ingurua Debagoieneko elizbarrutiak antolatuta zuten. Publiko heldua izan zen Santa Ana bete zuena; gehienak 45 urtetik gorakoak ziren. Oñati kanpotik ere etorri zen jendea. Jesarleku tolesgarriak ipini behar izan zituzten antolatzaileek Santa Anako txoko libreetan, eta hala ere jende askok zutik edo eskaileretan jesarrita jarraitu zuten mahai-ingurua.

Krisia zen mahai-inguruko gaia; jende gehienak zeozer esateko duen gai bat, duda barik. Krisia zergatik, errua zeinek duen, norberak zer egin dezakeen, irtenbiderik ba ote dagoen eta nondik datorren... erantzuten ahalegindu ziren hizlariak, bakoitzak ikuspuntu batetik –ekonomiatik, Ibarretxe; kristautasunetik, Pagolak; eta balioetatik, Sarasua– eta bakoitza bere estiloarekin.

Hiru ikuspuntu, hiru estilo, hiru tesi –batzuetan, ertz harri-garriekin–, baina, funtsean, ondorioa hauxe izan zen: denok gizatiarragoak, humanoagoak izan behar dugu, eta horrekin datorren gutzia onartu eta praktikara eroan, nahiz eta zaila izan, batez ere

krisia etorri arte horiek denak barneratuta ez zituenarendako: adibidez, gutxiagorekin bizitzen ikasi; nahikoa dugunean kontsumitzeari eta lehiatzeari uzten jakin; lagun hurkoari elkartasuna adierazi, baina benetakoa, bihotzetik datorrena; eta gizakia ipini beste edozeren aurretik, eta batez ere merkatuen, lehia basatiaren eta zentzu gabeko kontsumismoaren aurretik.

Ibarretxe: BPGtik haratago

Ibarretxe hartu zuen hitza lehenengo. Joan den azaroan Mondragon Unibertsitatean kooperatibistei azaldu zizkien iritziak orain oñatiarren aurrean xehetu zituen lehendakari ohi eta ekonomialariak. Krisiaren irtenbidearen formula, Euskal Herriarendako, "kulturarren K-rekin" idazten dela azaldu zuen: "Ikerkuntza, garapena, berrikuntza... eta kultura".

Ondorio horretara ailegatze-ko, hainbat doktrinaren ikasgaiak aipatu zituen, feminismoa tartean; eta hainbat pentsalari ezagunen hitzak bere egin zituen, Bush-en kritikiko zorrotz Paul Krugman eta Jose Saramago komunista, tartean.

Ibarretxeren iritziz, gaur egun "munduko herrialde batek ere ez du Konstituziorik, eta guk ere ez"; izan ere, azaldu zuenez, 1789ko Gizakiaren eta Herritarraren Eskubide-Adierazpenaren arabera, norbanakoaren eskubideak eta botereen arteko banaketa ez badaude ziurtatuta, ezin daiteke esan herri batek konstituzio bat duenik. "Eta botereen banaketa, nolabait, egin dugu, baina norbanakoaren eskubideak ez daude bermatuta", esan zuen Ibarretxe. *Suminduen* mugimenduaren aita-ponteko Stephane Hesselen *¡Indignaos!* lana aintzat hartu zuen ondoren, gizarte zibilak "lokatuta" dirudiela esateko. Eta gaur egun "demokrazia eza" dagoela salatu zuen, "gizartearen erdia baino gehiago", emakumeak, desberdintasunean bizi delako.

Gogor kritikatu zituen gaurko kulturaren zenbait ezaugarri: "Merkatuak erakarri egiten gaitu: dena momentuan nahi dugu, lana egin barik satisfakzioa eta etekinak atera nahi ditugu; esfortzu barik, emaitzak; ezagutza, baina ezagupen-prozesua egin barik... Hortaz, ez gaitu harritu behar korrupzioa egotea. Balio



Juan Jose Ibarretxe, Jose Antonio Pagola, Jon Sarasua eta moderatzailea, Patxi Aizpitarte

horiekin, normala da korrupzioak izatea gure gizartean".

Hiru eztabaida, bere ustez faltsuak direnak, desmitifikatzen saiatu zen Ibarretxe: batetik, unibertsaltasuna eta lekuan lekuko kultura elkarren aurka jartzaren dituen, eta nazio-identitatearen defentsa egin zuen, esanez "herrien identitatearen defentsaren atzean ekonomia eta giza-garapena ere" badaudela. Bestetik, norbanakoaren eskubideak eta giza-taldeen eskubideak ere elkarren aurka ez daudela esan zuen; eta azkenik, hazkunde ekonomikoa, kontsumoa eta zoriontasuna elkarrekin doazela ere gezurtatu egin zuen.

Gaineratu zuenez, "neurtzen dugun horren gainean hartzen ditugu erabakiak", eta barne produktu gordina eta adierazle makroekonomikoak neurtzen dira gaur egun, batez ere. Beraz, Ibarretxeren iritziz, "Barne Produktu Gordina haratago begiratu eta zoriontasuna neurtzen duten beste inkesta batzuekin osatu" behar dira gaur egungo neurgailuak.

Pagola: Jesusen oihuak

Txaloen ondoren, Jose Antonio Pagola teologoak hartu zuen hitza, eta kristautasunaren gaineko bere ikuspuntu partikular eta deigarritik aztertu zuen krisia. "Jesusek ba ote du zerikusirik gaur egungo krisiarekin?", hasi zen, eta Jesus humanista gisa deskribatu zuen segidan, "sines-tunon eta sinestun ez direnon" konplizitatea bilatuz.

Bere esanetan, jendaurrean agertu zen momentutik "bizi duinagoa" aldarrikatu zuen Nazareteko Jesus. Haren lau nazdarri gogora ekarri zituen; lehenengoa, "ezin zarete Jaunaren eta diruaren morroi izan", eta gaur egungo krisia diruarekiko morrontzak ekarri duela azaldu zuen: "Diruarekiko gose ase ezinak heriotza dakar". Pagolak esan zuenez, "Jesusen sinisten duen edozei-



Joxan Larrañaga. | LK

11.400 euro Oñatiko familiendako

Krisiaren aurrean, Debagoieneko Elizbarrutiak "zerbait esan" behar zuela sentitu zuen, eta bi ekitaldi egin zituen joan den asteen; mahai-ingurua izan zen horietako bat. Aurkezpenean Joxan Larrañagak, Oñatiko parrokoak esan zuen moduan, Caritasek gero eta behar gehiago atenditzen ditu, eta Oñatiko gero eta familia gehiagok behar izan dute laguntza. Hala, 2005ean, Oñatiko familien artean 3.200 euroko laguntzak banatu zituen Caritasek, eta 2011n, 11.400 euro ziren dagoeneko. Gehien hazi den beste arloa etorkinendako laguntza izan da: 2005ean, 1.200 euro, eta 2011n, 10.700. Horrekin kontrastatuta, pasadizoko jendearendako laguntza asko txikitu da: 2005ean, 1.544 euro banatu zituen haien artean Oñatiko Caritasek, eta 2011n, bakarrik 160 euro.



abadea, Ibarretxeren hitzaldiaren une baten. | LK

nendako, dirua idolatratzea Jainkoaren proiektu humanistaren aurkakoa da, gizakia desagertu egiten delako, botere irrazionalen mende geratzen delako".

Jendeari "parte hartzeraz" dei egin zion, agintarien eta botereen aurrean "biktimei aurpegia" ipiniz eta "familien dramak" salatuz.

Pagolak ohartarazi zuen "gizartea apurtzen" dabilela eta honakoa eskatu behar duela jendeak: "Osasun arreta unibertsala eta doakoa defenditu behar dugu, eta beti jendartearena dena defenditu; bestela, oso gertuan topatuko dugu laster osasun babesik gabe geratu den norbait".

Jesusen beste oihu edo aldarri bat erreskatatu zuen Pagolak segidan: "Izan zaitezte errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala". Eta errukia "printzipio politiko" gisa aldarrikatu zuen, gaur egun duen "zentzu sentimental eta moral kutsukoaz" liberatuta.

Pagolak honako ondorioarekin bukatu zuen bere hitzaldia: "Jainkoarengan sinisten duenak baztertuenak askatzeko erabili nahi ditu ekonomia, politika, kultura eta erlijioa. Horrek honakoa exijitzen du gugandik: krisiaren ondorio larrienak jasaten dabilenengan arreta ipinita bizi izatea".

ESANAK

"Gaur egun ditugun balioekin, normala da ustelkeria kasuak egotea"

"Hazkundeak zorionera daroala ukatzea izan behar da XXI. mendearen ekarpena"

JUAN JOSE IBARRETXE
EKONOMIALARIA

"Jesusen mezua hau da: bizitza duinagoa izan dezakezuela sinetsi"

"Ekonomia, politika eta kultura baztertuenen alde ipini behar ditugu"

JOSE ANTONIO PAGOLA
TEOLOGOA

"Ze balio ditugu krisi honen aurrean? Humanizazioaz hitz egingo nuke nik"

"Esperientzia humanizatzaile interesgarriak egiteko lekua izan daiteke Euskal Herria"

JON SARASUA
IRAKASLEA

Entzule hunkituarendako ere, txaloak

Mahai-ingurua eta geroko berriketaldian, Maite izeneko entzule batek eroan zuen txalo-zaparrada beroena. Hizlari bakoitzarendako zuen mezu bat. Hala, Ibarretxeri aitortu zion "gaituta" zegoela hark esandako guztiarengatik; Pagolari esan zion "ukitu" egin zuela Jesusen oihuen gainean azaldu zituenak, eta honakoa esan zuen: "Gaur zenbaterik, isilean, egingo ditu oihuak eta negarrak!". Eta Jon Sarasuari aitortu zion idatzi egin zituela berak esandako ikasgai batzuk: "Ikasi gutxiarekin bizitzen, beharrez bizi direnekin gogoratuaz, elkartuaz eta lagunduaz".

Bukaeran, entzule zintzo hark hizlarien txaloak ere jaso zituen.

Publikoak galdetutakoei

KUTXABANK ZER? "Oso garrantzitsua da aurrezki lokala proiektu lokaletara bideratzea" (Ibarretxe).

NOLA SAKONDU HUMANIZAZIOAN?

"Bakoitzak barruko bizitza hobeto zaindu" (Pagola). "Konfiantza handiago behar dugu guregan" (Ibarretxe). "Gizartea aldatzera bideratutako taldeetan, ahaleginak norbere onenetik ez badira irteten, militantzia ustelean geratuko da" (Sarasua).

BOTERE FAKTIKOAREN "TXOTXONGILO" IZATEKO ARRISKUAK

"Errebisatu egin behar dugu diruarekin daukagun harremana, eta kontsumo arduratsu baten norabidean pausoak eman" (Pagola).

Sarasua: Amets berriak

Jon Sarasua aretxabaletarra kritikarik abiatu zen: "Aitortu egin behar dugu sistema honen eta krisi honen dimentsio soziala, jendartekoa, pertsonala eta intimoa; ez bakarrik biktima bezala, baizik eta agente bezala. Sistema hemen dago, hemen barruan dago, eta gela honetan, Oñatin, Debagoienan". Bere esanetan, kapitalismoaren logika "oso barnertuta" dugu denok eta, bestalde, "gaur egun, merkaturik gabeko alternatiba serio eta sinesgarri ez dago".

Honela jarraitu zuen: "Galdera hau da: hemen, Debagoienan, ze balio edo indar ditugu krisi honen aurrean? Humanizatzeaz hitz egingo nuke nik".

Horretarako, balioetatik abiatu behar gara adierazi zuen; baina, balioen eremuan, kritika –eta autokritika– egiten jarraitu zuen: "Euskal Herrian, balio-nahasketa bat daukagu, nahaspila bat. Batetik, sustrai kristautik etorritako balioak; bestetik, progresismoaren inguruko balioak"; eta, horiei erantsita, "balio individualistak, oso inportanteak guretako". Sarasuaren

iritziz, "brujula etikoa nahiko gorabeheratsu dabil. Berriz ireki behar dugu ideologietara; eta erlijioetara, hor dagoen jakinduriara, bizitzari zentzu oso bat emateko". Era berean, "binomio batzuk desorekatuta ditugu: esku-bide-kultura bat sortu dugu", baina esku-bideak "ez dira eusten" arduraren kulturarik gabe.

Horri kontrajarrita, "Euskal Herrian, humanizazio proiektu baterako leku interesgarri baten gaude. Hizkuntzen korapiloan gaude; bestetik, badugu gizarte zibil nahiko bizia; badugu ere autoeraketarako sena". Horrekin, "horizonte batzuk marrazteko gai izan behar gara. Horizonte bat autoeraketa da: boterea protagonisten esku egotea. Bestetik, gizarte zibila indartzea; berdin enpresa kooperatibo baten, ikastetxe baten, gaztetxe baten..." Beste horizonte gisa hauek proposatu zituen: elkartasuna, enpatia, iraunkortasuna eta nortasuna.

Bideoa ikusteko:
eskaneatu QR kode hau
poltsikokoarekin.



Orain Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

PSE: 37/04

Esan baietz
betiko

Rosa Sarabia doktorea

PronoKal[®] metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBSIDATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko

'Uraren Ibilbidea' ekimenaren estreinaldia

JON BEREZIBAR | ARANTZAZU

Aizkorri-Aratz parke naturala ibilbide gidatuen egitaraua prest dauka parketxeak. Lehena etzi, domeka, izango da. *Uraren Ibilbidea* delako txangoan, gidari batekin, Aitzuloko kobazuloa, Orkatzategi gailurra, Santa Kruzeko ermita eta Araotz eza-gutuko dituzte 10 kilometroko ibilbidean. Guneon aberastasun kultural eta naturala agertzea da kanpainaren asmo nagusia. 09:00etan elkartuko dira eta ibilbidea bost orduan egingo dutela zehartu dute.

Urrira arte, hilerio

Ibilbide honekin hasi besterik ez dira egingo, urrira bitartean, hilean behin, ibilbide berezi bat egiteko aukera egongo baita parke naturala.

Donostiako biharko manifestaziora joateko dei egin dute

Espainiako Auzitegi Gorenak Donostiko zortzi gazteri sei urteko kartzela zigorra ezarri die Segiko kide izatea leporatuta. Bada, hori salatzeke manifestazioa egingo dute bihar, zapatua, Donostian, 17:00etan Bulebarretik aterata. Eta Debagoieneko herrietan autobusak antolatu dituzte eta deialdia egin bertara joateko.

Mondragon Unibertsitatearen diploma banaketa, gaur

MUko Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritza Teknikoko eta Ingeniaritzako Gradu ikasketak egin dituzten ikasleei diplomak emango dizkiete gaur, egubakoitza, 18:00etan Arrasateko Amaia Antzokian. Besteak beste, bertan izango dira Mondragon Unibertsitateko errektore Josu Zabala eta Goi Eskola Politeknikoko zuzendari Vicente Atxa.

Gazteak Prest Lanerako programarako izen-ematea, luzatuta

Apirilaren 19ra arte (barikua) luzatu dute Debagoieneko Mankomunitateak gazteei begira antolatutako ikastaroetan izena emateko epea. Bizikleta elektrikoaren teknika ikastaroa, programa informatikoak eraikuntza arloan eta energia berriztagarrien eraginkortasuna landuko dituzte, besteak beste.



Joan den astean prentsaurrekoa egin zuten gaurko manifestazioaren berri emateko. | GOIATZ ARANA

Gaur aterako dira kalera atez atekoaren kontra, Bergaran

Manifestazioarekin debagoiendar ugarik bat egingo dutela aurreikusita, autobus zerbitzua indartu dute

UBANE MADERA | BERGARA

Gaur, egubakoitza, 19:15ean aterako da *Atez atekoari ez! 5. edukiontzia bai! Birziklatzeari bai! Eman hitza herriari!* leloarekin Bergara Garbiak deitutako manifestazioa. Ordubete inguru iraungo du; ibilbidea, berriz, honako hauxe izango da: San Martin plaza-Barrenkalea-Lasa zaharretik Ibargaraiko palmondora-Miguel Altunaraino iritsi, handik gora Irala kalera egin, eta San Martin plazan bukatu.

Atxikimenduak

Bergarako herri plataformak antolatutako protesta ekimen horrek dagoeneko eskuratu ditu hainbat atxikimendu. Debagoie-

nean, Arrasate Garbik, adibidez, bertan izango dela iragartzeaz gainera, arrasatearrei deialdia egin die manifestazioan parte har dezaten.

Eta gure ibarretik kanpora ere eskuratu du babes aitez atekoaren kontra Debagoiengan egingo den lehen manifestazio horrek: "Lezoko elkarteak lezotarrei egin die deialdia, eta jakin badakigu, besteak beste, Legazpitik ere etorriko dela ordezkaritza. Izan ere, gai hori orain Bergarako problema da, baina, adibidez, Arrasatekoa ere izango da urtebete barru, eta beste leku batzuetakoa ere bai", adierazi du Josu Leturiak, Bergara Garbiako ordezkariek.

Autobus zerbitzua, indartuta

Eta hori aurreikusita, iragarri dute gure ibarrean autobus zerbitzua indartu egingo dutela manifestazioa hasi baino ordubete lehenago eta manifestazioa bukatu ostean (20:00 inguruan). "Eskoriatzatik eta Oñatitik Bergarara dagoen autobus zerbitzua beharrianetara egokituko da. Bai joateko eta baita bueltatzeko ere", jakinarazi du Luis Garatek, Arrasate Garbiko ordezkariek. Hark emandako xehetasunen arabera, helburua da manifestazioan parte hartu gura dutenei bidea erraztea eta autoa eraman beharrik ez izatea. "Pesarekin berba egin dugu horretarako eta esan digute gertu izango dituz-

tela autobus gehiago jendeari erantzuna eman ahal izateko".

"Parte hartzeko eroso"

Manifestazioan erabiliko duten leloak adierazten duen moduan, hiru dira egin gura dituzten aldarrikapenak: bosgarren edukiontzia ezarpena, atez atekoa beharrez; birziklapena bera; eta herriari hitza ematea: "Leloak aukeratzeko orduan kontu handia izaten ahalegindu gara, nahi dugulako hondakinen atez ateko bilketaren kontra dagoen edozein gure ekimenetan parte hartzeko eroso egon dadila. Azken batean, gu bakarrik bilketa sistemaren kontra gaude. Hau da, politika albo batera laga eta gai honekin normalizazioa da nahi duguna, norberak esan ahal izatea nahi duena. Uste dut denok nahi dugula elkarbizitza normalizatzea", adierazi du Bergara Garbiako ordezkariek.

"Iritzia kontuan hartu gabe"

Herriari hitza emateko eskaerari dagokionez, berriz, Bergara Garbiak zera adierazi du: "Tamaletz, Bergarako eta inguruko gipuzkoar asko sartuta gauden auzi hau Bilduko gobernu taldeak sortu zuen, oposizioa eta herriaren iritzia kontuan hartu gabe, Bergaran atez ateko sistema inposatu zuenean". Eta horri gehitu dio bergarar gehienek jarrera "argia" dela: "Bergara Garbia herri plataformak 5. edukiontzia-aren alde eta atez atekoaren zein alkatetzaren era diktatorialaren kontra 4.691 herritarren sinadurak bildu zituen". Hala ere, "alkatetzak, herritar gehienek atez atekoaren eta metodo inposatzaile honen aurrean duten desadostasuna ikusita ere, kasurik ez die egin, ezta plataformak gai honen inguruan hitz egiteko eta akordiora heltzeko egindako deiei ere".

Eta Bergarako gaurko manifestazioari atxikimendua adierazteko bidalitako prentsa oharrean, irakurketa bera egiten du Arrasate Garbi plataformak, bere kasuan, gogora ekarriz, Arrasaten 6.686 sinadura batu dituztela.

Canas Esteban enpresakoak greban, apiril hasieratik

Arrasateko Canas Esteban eraikuntza enpresako langileak greban daude apirilaren 2az geroztik. Elkarretaratzekak egiten ari dira, egoera salatu eta enpresako jabeek negoziatzeko atek itxi dizkietela salatzeke. Urte osoan 1.000 euro kobratu dituzte, eta, euren esanetan, atzerapenak jasan dituzte soldatetan bi urtez.



Iñaki Manuel | Epaiketan inputatua

"Oso sententzia ona izan da gurea, eta fiskaltzari ez zaio batere gustatu"

Errekurritu egin dute Korrikan euskal presoan argazkiak eramatearren emandako sententzia

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Orain bi urteko Korrikan euskal presoan argazkiak eramatearren epaitu eta absolbitu egin zituzten Bergara eta Arrasateko lau gazte. Orain, baina, fiskalak errekurtsioa aurkeztu du. Iñaki Manuel, inputatuetako batekin izan gara:

Espero zenuten halakorik?

Sententzia irten zenean abokatuak esan zigun epaiari errekurtsioa jarri ahal ziola fiskalak. Baina guk prozesua amaitu zela sinetsi nahi izan genuen. Hilabete luzeetako ezinegonaren ondoren, absoluzioak asko lasaitu gintuen eta horri eutsi nahi izan diogu. Baina, ez du gehiegi iraun. Izan ere, berriro, Estatuak elkartasuna kriminalizatu eta gu kondenatuak izateko mekanismo guztiak martxan ditu.

Zein da errekurtsioaren arrazoia?

Audientzia Nazionalan euskal presoan argazkien aferagatik egondako beste epaiketa eta sententziekin alderatuta, oso sententzia ona izan da gurea. Izan ere, argazkiak erakustea edo amnis-



Iñaki Manuel bergararra. | I.M.

tiaren aldarrikapena bera, terrorismoari gorazarre egitea zela esan dute orain arte, eta gure kasuan, adierazpen askatasuna onartzen du oinarritzko eskubide bezala. Zentzu horretan, fiskaltzari ez zaio sententzia batere gustatu, berak epaiketan defendatu zuen bezala, bere ustez gure helburua terrorismoa goratzea zelako. Eta horretaz gain, Audientzia Nazionalaren sententzia honek, hurrengo kasu antzerakoetarako

aurrekari bezala balio dezake, eta hori ez gertatzeko uste dugu jarri duela errekurtsioa fiskalak.

Epaiketa bere horretan errepikatu egingo da?

Auzitegi Gorenak, Audientzia Nazionalaren sententzia aztertu eta bere erabakia emango du. Honek ez du, guk epaiketara joan behar dugunik esan nahi, kasu hauetan normalena, Auzitegi Gorenako Sala batek aztertzea delako, edo epaiketa egin behar izan ezker, abokatu bakarrik joan behar litzateke epaitegira, Madrilera.

Zigor eskaera orain artekoa da?

Bai: 15 hilabetetako espetxe zigorra eta zortzi urteko inhabilitazioa.

Ezarri dizuete datarik?

Auzitegi Gorenako errekurtsioak aztertzea luze joaten da, eta abokatuak adierazi digunez, urtebetera ere, luza daiteke.

Besterik nahi baduzue gaineratu...

Elkartasuna berriro kriminalizatzeko saiakera honetan, euskal preso eta iheslarietako elkartasun aldarrira ozen adierazten jarraitu behar dugu. Isilpeko lana beharrezkoa bada ere, kalera irteteko garaia da. Euskal Herriaren eta euskal herritarren aurkako erasoak gelditu behar ditugu. Denon konpromisoa eskatzen du, isilik jarraitzen duten horien ere, eta denok batera lortuko dugu Euskal Herrian benetako normalizaziora iristea, sekula gehiago ez dadin inor epaiketa politiko baten antzerkiaren parte izan, eta ez ditzan inork hauen ondorioak jasan.

Autoenplegu saioak eta tailerrak antolatu dituzte

Debagoieneko Mankomunitateak antolatu ditu bi ekimenok, enplegua bultzatzen laguntzeko

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Eskualdeko Enplegu Planaren barruan, Mankomunitateko Garapen Agentziak bi deialdi egin ditu: batetik, autoenplegurako sentsibilizazio saioak, eta bestetik, ekintzaile berriendako eta enpresa txikiendako tailerrak. Bietarako izenemate epea zabalik dago.

Ekintzetako bat, autoenplegurako sentsibilizazio saioak, publiko orokorrari zuzenduta dago, berdin da negozio-idea bat duten edo ez. Helburua da autoenpleguaren potentzialtasuna adieraztea eta aurrez egin beharreko azterketaren garrantzia azpimarratzea. Honako gaiak eta beste batzuk landuko dituzte: *Krisi garaian... autoenplegua moda bat, irtenbide bat, soluzio bat al da?; Autoenplegua (erantzukizunaz), plazer hutsa; Faktore kritikoak ekimen berriaren arrakasta ziurtatzeko edo porrota ekiditeko; eta Bizitako autoenplegu esperientziei buruzko elkarrizketak.*

Leku kopuru mugatua dagoenez, komeni da lehenbailehen izena ematea. Apirilaren 26a da horretarako azken eguna.

Saioak herriz herri

Saioak Antzuolan hasi eta Oñatin bukatuko dira; eta Eskoriatza, Arrasate eta Bergaran ere izango dira tartean. Apirilaren 22an hasi eta maiatzaren 28an bukatuko dira, astero saio bat eginez, batzuk euskaraz eta beste batzuk espainolez.

Udako lantegiak

Ekintzaile berri eta enpresa txikiendako lantegiak honakoak dira: *Datu babesaren ezarpena enpresa txikietan*, ekainak 11 eta 12; *Sare sozialak eta mikroenpresa*, ekainak 19; *Kudeaketaren kontrola mikroenpresan*, uztailak 1; *Langile autonomoentzako tributazioa*, uztailak 8 eta 10. Izena emateko azkeneko eguna maiatzaren 31 da.

Carrefour
GORBEIA



Oparia

% 10

Deskontua erregaletan

Trukagarria AVIA zerbitzugune hauetan:

- Arrasate
- Gasteiz: Foronda, Urartea kalea - 23 (Alibarra izkina) eta Zurbano.

2. alea 2.000 produktu baino gehiago %70eko deskontuarekin 2. alean

60 € baino gehiagoko erosketengatik Club Carrefour zure txartela aurkeztuz



Apirilaren 15era arte

Doan
Autobideko bidesaria

Joan-Etorria

Autobideak:

Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1 (Eibar -Etxabarri Ibiña) eta AP-68 (Laudio-Altube)

- Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren bidesariko frogagiria.

Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.



ZABALIK

JOXAN LARRAÑAGA
http://goiena.net/iritzia/



Profesionaltasuna + bokazioa

Hara, konbinazio ezin hobea pertsonekin, pertsonen artean lan egiten dutenentzat. Ez baita gauza bera, eta bata ez du zertan bestea ekarri. Profesional ona izateko, berdin da zein arlotan, egin behar duen lana ondo menderatzea eta ikasia edukitzea eskatzen zaio pertsonari.

Neuk izandako esperientzia kontatuko dizuet osasun arloan ezagutu ditudan sendagile ezberdinekin. Orain urtebete lagun batekin tokatu zitzaidan ebakuntza baten ondorengo egunetan ospitale batean egotea. Ebakuntza egin aurretik etorri zitzaizgun sendagileen taldeko nagusia ebakuntza nolakoa izango zen argibideak ematera. Oso ondo egon zen eta argi eta garbi esan zigun. Ebakuntza egin eta ondorengo egunetan etortzen zitzaizkigun sendagileen talde horretako beste sendagile batzuk, eta zenbat eta gazteago izan, orduan eta antipatikoago. Nola zihonan galdetu egin behar eta *sakakortxorekin* egiten den modura informazioa atera behar. Mesede bat eskatuko bazenu bezala. Normala al da?

Beste esperientzia zeharo desberdina izan dut amaren azkeneko egunetan izan duen atentzioa, arreta eta tratuarekin. Bere familiako sendagilea egunero, 15 egunez gutxienez, deitu goizean, etorri eguerdian eta berriro deitu ilunabarrean. Haren goxotasuna eta arreta; haren argibideak ama zaintzen genuentzat; haren ardura zaintzaileen osasunagatik... Zerikusirik ez zeukan aurreko esperientziarekin.

Hona profesionala izatearen eta bokazioa izatearen arteko desberdintasuna. Nahiz eta idazki hau ez bata eta ez besteak ez duten irakurriko, salatu nahiko nuke lehenengoaren jarrera eta txalotu eta, batez ere, eskertu bigarrenarena.

Nik uste dut denok, pertsonekin eta pertsonen artean lan egiten dugunok, berriro egin beharko genukeela noizean behin gure bokazioaren egoera eta maila eta adikortasuna eta begikortasuna berreskuratu.

"Zenbat eta gazteago izan, orduan era antipatikoago"

USTEAK USTE

AITZIBER ARANBURUZABALA | aaranburuzabala@goiena.com

Pozik bizi izatea

Opporaldiaren ostean, bete dugu lehen lan-astea. Tripako minarekin jarri genuen askok asteleheneko iratzargailua. Etxeko txikiak, berriz, hurrengo goizean laguntxoak ikusi eta soinekoa jantziko zuen ilusioarekin egin zion perezari aurre. Neguko prakak alboratu eta udaberriko soinekoa jantzea nahikoa arrazoi da harentzako pozik egoteko. Orain gutxi elkarrizketatu nuen Urko Arozena ere iritzi berekoa da. Hainbat meditazio eskolatan ikasitako ariketak praktikatu, lortu zuen bizimoduari buelta emanez pozik bizitzea. Aurkitu zuen *soinekoa*. Arrazoi duzue! Nik ere jantziko dut soinekoa negu ilunaren ostean, kolorea jartzeko. Armairuan badituz soineko polit asko!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Hodirik gabe

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Ospitaleren bateko korridoreetan lagun batekin suertatzea ez da topo-egite hutsa izaten: lagunarekin eta laguna hara eraman duen zirkunstantziarekin egiten duzu topo.

Batez ere, zirkunstantziarekin, bisitaren motiboarekin. Horregatik, laguna ospitalera eraman duen arrazoiaz galdetzen duzu, lagunagatik bainoago.

Orain egun batzuk *Berria*-ko bi Kontseilukiderek egin nuen topo ospitaleko atarian.

Jota zeuden, ez nien zirkunstantziagatik galdetu beharrik izan: Josean Lizarribar hil zorian zegoela, egoerak ez ote zuen atzera bueltarik.

Baina aditzera eman bazidaten ere bizitzara lotzen zuten hodiez nekez itzuliko zutela bizitzara, Joseanen ohiko bizitasuna, *Berria*-n jarritako ilusioa eta kemena, haren jarrera adeitsu baikorra, haren jarrera adeitsu baikorra, haren jarrera adeitsu baikorra etorri zitzaizkidan niri gogora. Albisteari bizkarra eman eta esperantza hauspotzeko modu bat zen nire erreakzio hura.

Joan da.

Ez, ordea, euskalgintzari hodirik gabe iraunarazteko bere ahalegina.

Gaztañagismoaren mamua

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Patricia Gaztañaga aurkezlearen lehorreratze berri bat iragarri genuen joan den astean.

Eta, bai, bueltatu da *talk show*-en ikurra atzera euskal erdiko telebista publikora; etxera, gurasoen altzora, kanpoan hotz egiten duenero egin ohi den bezala.

Gaztelaniazko katera, bistan da, euskaraz ez baitaki; nahiz, euskarazko hitzak gaztelaniazko jardunari gehitzeko ohitura txatxu gero eta hedatuagoari jarraikiz, saioari jarri *Ongi etorri*. Jartzen ahal zion *Bienvenidos*, eta Miguel Riosen doinua.

Luze gabe laburtuko dugu: saioan Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat etxe erakusten dituzte, hainbat etxe xarmant. *Xarma* hitza erabiltzen dute, eufemismo bat, esan nahi baitute liluragarri,

luxuzko, eskuraezin.

Gure etxea ez luketela sekula erakutsiko, alegia. [...]

Bizitzaren paradoxak, Gaztañagaren lehorreratzearen biharamunean ETBk, kasu honetan euskarazko kateak, saio berezi bat eman zuen, *Hemendik out*, non agertzen zitzaizkigun Euskal Autonomia Erkidegotik lan bila estranjeria aldera joan behar izan duten hainbat euskaldun. [...]

Eta jada ez da bakarrik formatu errepikatuak, gainontzeko kateetan behin eta berriro ikusi izan ditugunak –biak ala biak, etxeena, munduan zehar herrikideena–, geurera ekartzea bakarrik.

Batez ere, da komunitate bateko telebista publiko gisa igortzen ari zaren mezua; hau da, ados, gazteak, herrian ezin, eta kanpora lanera joan beharrean dauden honetan, hara, herrian bertan badira, ez soilik ondo bizi direnak, baizik eta luxuarekin; eta luxu hori muturren aurretik pasatzeko inolako lotsarik ez dute erakusten, gainera.

Gero, esango dute langile klaserik ez dela, ez dela klase borrokarik.

Baina mamu bat ibiliko da orain ETBn zehar: gaztañagismoaren mamua.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifiano, Zierza Martin,
Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Utalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eskerrik asko, Aretxabaleta!

Josu Retolaza

(Aretxabaletako Korrika batzordearen izenean)
Aretxabaleta

Goizeko 05:45. Jendearen aurpegietan igartzen da ez dela beste egunak bezalakoa. Haur, gazte zein heldu kale kantoietan pilatuta daude. Bi urtetik behin pasatzen den Korrikaren zain daude denak. Urduritasuna eta emozioa ikusi daitezke kalean batutako jendearen aurpegietan. Eta han dator Korrika 18, argi koloretsuz eta musika alaiz. Atzetik, jende pila izugarria, denak euskararen alde beren aletxoak jartzeko prest.

Egun zoragarri hau ez litzateke posible izango herritarren babes eta laguntza gabe. Gutun honekin, modu ezberdinetan Korrika lagundu duzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu. Modu asko daude Korrika laguntzeko eta aretxabaletarrak denetan eredugarriak izan zarete.

Eskerrak, beraz, Korrika Txikia edo Korrika jaiaren antolaketan parte hartutako, zuen ekarpen ekonomikoa egin duzuen denda, lantegi eta norbanakooi eta, nola ez, ordu txikitan zapatilak jantzi eta korrika egitera atera zareten jende pila guztiari.

Eskerrik asko eta zorionak, Aretxabaleta!

Ez da azkena izango

Aitor Aranzabal

(Erramu Zapatuko bazkariko lagun taldea)
Bergara

"Ez da azkena izango" esanez hasi zen aurtengo herri bazkariaren iragarpena. "Ez da azkena izango", herri honek horrelako egun berezi bat merezi duelako. "Ez da azkena izango", egun honetan sortzen den euskal jai giroagatik. "Ez da azkena izango".

Badira 6 urte, Erramu Zapatua indartu behar zela ikusita lagun talde bat batu ginela. Bi arrazoi nagusi aurkitu genituen horretarako: alde batetik, euskal nortasuna eta ohiturak bultzatzea; eta bestetik, goizeko egitarau bat egun guztikoa bihurtu zedin lortzea.

Aurtengoan, hasierako aurreikuspen guztiak gainditu dira, txartelak salgai jarri eta 4-5 egunetan denak salduta zeuden, ikaragarria. Balorazio oso positiboa egiten dugu. Herri bazkarian jende asko eta giro ezin hobea egon zen, eta txarangarekin kale animazio ikaragarria.

Hala ere, hau guztia ez litzateke posible izango herriko hainbat merkatariri esker izan ez balitz. Horregatik, eskerrak

GUTUNAK

Gutunek, gehienez, 1.900 karaktere izan behar dituzte (hutsuneak barne); luzeagoa bidaliz gero, GOIENAK eskubidea du laburtzeko; hala ere, saiatuko da egilearekin egoten hark labur dezan. Gutun bakoitzeko erantzun bakarra onartuko da; ez da onartuko erantzunaren erantzunik.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

eman nahi dizkiegu Mizpildi eta Konde okindegiei; Bixain harategiari; Mujika, Raizabal eta Larrañaga gozotegiei; Miner ardoei; Mertxe urdaitegiari; Depor, Kortazar, Euxebio, Bule eta Ariznoa tabernei; Berroia inprentari eta Bergarako Udalari.

Honez gain, eskerrak baita aurten bazkaria zerbitzatzen eta mahaiak jasotzen lagundu digun Zero Zabor taldeari (sekulako lana) eta azken urte hauetan bazkaria eta herriko kaleak alaitu dituen txarangari ere, eskerrik asko benetan. Esker berezi bat baita sei urte hauetan gurekin lan egin duten sukaldariei ere.

Baina jakin badakigu horrelako bazkari bat antolatzeko lan handia dagoela atzetik; horregatik, datorren urtera begira, eta bazkari herriko hau gal ez dadin, laguntza eskatzen dizuegu. Honela, pertsona gehiagoren artean gauzak hobe eta errazago egingo baitira. Beraz, animatu!

Besterik gabe, eskerrik asko eta hurren arte.

la denok ados gaude

Jexus Urmeneta

Bergara

Zaborra biltzeaz eta birziklatzeaz Gipuzkoa herrialdeko bizilagun gehienok antzerako gauzak –ahal den gehien birziklatu, alegia– adierazten ari garela kontuan hartuta, uste dut ordua badugula geu guztion aldetik ahalegintxo bat egin eta herritarrei proposatzen dieguna zehazki ondo aurkezteko.

Bergarako talde batek Udalean berea aurkeztu duela eta, aurrerantzean herrian erreferendum bat izateko eskakizunak aukera zabala eduki badu, alderdi guztiak horretan batera eginez gero. Eta hau horrela gertatzen bada, era berri hauetako lehenbiziko bozketa izanik, benetako egun hura garrantzitsu bihurtu dadin, *aproposa* den galdera bat bilatu beharra daukagu orain.

Bati baino gehiagori errazegia irudituko zaio galdera bat asmatzea edo aurkeztea, baina hori ez da horrela. Gogoratu, bestela, 8 urtetan zehar Euskal Komunitateko (hiru probintzietakoa, zehazki

esanez) lehendakaria zen Ibarretxe jaunak zenbat lan izan zuen ditxosozko galdera asmatzen, eta, azkenean, ozta-ozta bi gaiez osatutako galdera bat bururatu zitzaion. Bere garaiko jardun interesgarri hartaz gogoratuta, oraingo honetan horrelako zerbait egitea proposatuko nieke nik hemengo taldeei zein alderdiei, eta batez ere atez atekoaren eta bosgarren edukiontziaeren aukerakoei. Hemen ere galderak ezingo dira arruntak izan, baizik eta nahiko baldintzatuak; hau da, %80 birziklatzen ez duten aukera guztiek derrigorrez erantzun beharko lukete ea prest dauden soberan gelditzen den zaborra hemen herrian bertan erretzeko.

Guk erabaki dezakegu herriari berari dagokion gaiaz bakarrik, eta hemen birziklatzen ez duguna Zubietara edo beste herri batera bidaltzea ezin izango dugu erabaki tokiko erreferendum batean... edo prest al gaude gu beste herrietan soberan uzten dutena geurean jaso eta erretzeko? Gai honetaz ia denok ados gaude; beraz, joka dezagun garbiago!

Aramaioko trikitilariet azalpena

Nerea Asurmendi, Eider Ballina, Miren Heriz eta Maitane Uribe

Aramaio

Abendu aldera, Aramaioko Trikitixa Eskolako irakasleak proposatu zigun herriko ikasleei trikitixa klaseak ematea, eta epe batean bera ordezkatzea. Ilusio handiz hartu genuen enkargua! Guretzat erronka handia zen, eta laurok gogoz hasi ginen gure ikasleei astean behineko klaseak ematen. Aurretik ikasitako abestiak errepasatu eta beste berri batzuk erakusten hasi ginen.

Bi zita genituen aurretik: Korrika jaialdia eta apirilaren 20an ospatuko den Trikitixa Jaia. Entseguekin hasi ginen, ba, eta kanta berri bat proposatu genuen; ikasleek pozik hartu zuten erabakia eta ikasten hasi ginen. Baina laster hartu genuen arduradunaren abisua: kanta hori ez zen aproposa, hobeto aurretik ikasitako beste bat. Ez

zitzagun erabakia gustatu, uste baikenuen guk genuela hori erabakitzeke ahalmena; baina, hala ere, onartu egin genuen. Pentsatu genuen Trikitixa Egunerako abesti hori apur bat aldatzea, tonu desberdinetan jotzea, abeslari batek laguntzea... betiko abestiari modernitate puntua ematea! Baina hori ere ez dugu lortu! Ez dugu gaian luzatu edo tirabirak sortu nahi! Egia da ez garela gai izan akordio batera heltzeko eta azkenean klaseak uztea erabaki dugula. Horixe da gertatutakoaren ondorioa, zoritxarrez! Zoritxarrez denontzat, gure ustez!

Gure asmoa beti izan da hau: trikitixa kantak erakutsi ikasleei; beraiekin jo eta konpartitu klaseak; ikasleari trikitixarekin aurrera egiten lagundu, bere balioaz jabetu eta animatu.

Honen bitartez, batik bat zera adierazi nahi dugu: gure asmoa beti izan dela ona, gure ustez ez dugula ezer txarrik egin, ez asmo txarrez, behintzat, inoiz ez!

Gure ikasleak izan direnen aldetik oso jarrera ona jaso dugu, uste dugu pozik izan direla gurekin ikasten eta horrelaxe transmititu digute, gainera. Eskerrik asko, guztioi! Bene-benetan eta bihotzez!

Jainkoaz eta deabruaz

Jon Otero Uribarren

Arrasate

Beste era batzuetan ere dei diezaiokegu Jaungoikoari.

Ni neu panteista naiz eta Jainkoa enetzat, guretzat, unibertso bukaezina da soilik. Dena, bertan dagoen dena. Ongia eta gaizkia, gorrotoa eta maitasuna, espiritua eta materia. Baina zergatik, orain, alderdi politiko batzuk aitortu beharrean daude feministak direla? Feminismoaren alde egotea gauza bat da, baina feminista alderdia bera?

Erran beharrik ez dago berezkoa dugula gizonok eta emakumeak aginte orekatu bera, izan feminista edo matxista. Aurretik esan bezala, zoratzeko bada-edo, zoragarria bada-edo, Jainkoan sinesten dugunok sinesten dugu mirarrietan ere. Eta nola ez, betiereko bizia emango digula ziur gaude. Nolakoa? Ez dakigu, baina unibertsoa

bukaezina den bezala, bizia bukaezina da ere; hots, berpiztuko garela ziur. Goxo-goxo, ume? Bueno, teoria bat da. Ez dakigu nola.

Baina gutariko bakoitza berpiztu behar bada, pentsa zenbat Jaungoiko eta Jainkosa dauden.

Baina noski, unibertsoa bakarra da, eta gu anitzak, unibertsoa ere anitza delako; hots, izaki asko daude bertan.

Onartzen badugu Jainkoa dena dela, ongia eta gaizkia, onartu behar dugu deabrua Jainkoaren parte bat dela. Eta nola ez, Jainkoaren parte bat bada, Jainkoak bezala egin egin ditzake mirari gaiztoak deabruak, eta Jainkoak egin ditzake, bere alde onak, mirari maitagarriak.

Deabrua, beraz, izan daiteke Jainkoaren alde txarra, eta, noski, izan daiteke materia eta espiritua. Hori bai, Jainkoaren alde txarra ere (hots, deabrua), Jainkoaren borondate eta agindua denez, bada, Jainkoaren nahia ere bada; beraz, irentsi behar da, beti ama bezala.

Ni ez naiz feminista, ezta matxista ere, baina Ernain sinesten dut. Eta Sortu-kide naiz. Sorginak deabruak ziren, eta omen, ei, *hegaz* egiten zuten isatsaren gainean; miraria, beraz.

Bestalde, ni psikiatriko batean nago, zoritxarrez.

Zein da psikiatrikoen jabea? Bada, Elizako kleroa. Dela Aita Menni, edo dela San Juan de Dios eta beste *santu* batzuk, haiek asmatu zituzten psikiatrikoak, lehen erietxe zirenak. Eta psikiatrikoak zirenuak dira, baina baita ere kaleko psikiatria. Zergatik infernua? Pilulak, tantakak eta injekzioak beldurgarriak direlako.

Espetxe-psikiatriko batean egon nintzen lehen, eta hara! Miatuz liburutegian, aurkitu nuen liburu bat, non azaltzen den orduko gotzain Setieni elkarrizketa oso luze bat. Zioen Setienek (ez dut ñabarduraz osoki gogoratzen, baina...): "Si... los tarados, y si... los tarados, pues eliminamos a los tarados". Zer esan nahi du "eliminamos" egintza horrekin Setienek? Psikiatrikoetara bidaltzea *tarados* edo deabru horiek? Edo... Hara! Katolikoak, Kleroa, hitzez hitz hartzen dut Biblia. Jarraipen osoarekin, ñabardurarik galdu gabe. Orduan zer? Non da arazoa? Kontatzen dute Jesus ei zenak mirariak egiten zituela. Eta, besteak beste, pertsona deabrututako aurkitzen zuenean, erraz sendatzen zuen, hura Jainkoa ei zelako. Pertsona deabrututakoetan sinesten zuten eta dute. Jainkoan nik sinesten dut, eta deabruan, Jainkoaren zati bat delako. Baina kleroa oraindik orain nahi ditu zigortu eta *osatu* pertsona deabrutuak. Eta gure barneko deabrua osatzen doanean bakarrik irtengo gara kalera.

Juan Lopez de Uralde | Equo alderdiaren sortzaile eta bozeramailea

"Krisi ekonomikotik aterako gara krisi ekologikotik ateratzen bagara"

- ▶ Equo alderdiaren sortzaile donostiarra Bergaran elkartu da Gipuzkoako alderdikideekin
- ▶ "Argi daukagu errauskailua ez dela, inondik inora ere, aukera", dio hondakinen inguruan

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Greenpeaceen jardun du urte askoan, Espainiako zuzendari izateraino, eta duela urte bi Equo sortu zuen; gaur egun bozeramaile da. 50 urte egingo ditu aurten eta Madrilen bizi da, gaztetan hara ikastera joan zenetik. Euskara ere han ikasi zuen, Euskal Etxean hasita. Zapatuan Bergaran izan zen Gipuzkoako Equo-koekin.

Gipuzkoa mailako batzarra egin zenuten joan den zapatuan Bergaran. Zer moduz?

Gipuzkoako Equoren ohiko batzarra izan zen. Alderdiaren gaineko kontuak eta ingurumenarekin lotutakoak aztertu genituen.

Equo alderdi bat da?

Bai; fundazio bat ere badaukagu, baina alderdia da. Duela urte bi sortu genuen hainbat pertsona independentek eta 35 alderdi berde eta ekologistak; horien artean dago, esaterako, Euskadiko Berdeak. 2011ko azaroan egin genuen estreinaldia Espainiako hauteskundeetan eta 215.000 boto lortu genituen. Eusko Legebiltzarrerara ere aurkeztu ginen eta Araban eserlekua lortzetik gertu izan ginen: %3ko ordezkariak lortu genituen. Sortu berria den eta gora doan alderdia da.

Fundazioa ere baduzuela diozue.

Zein da haren egitekoa?

Hainbat ekimen antolatzen ditu, berbaldiak-eta. Fundazioak oinarri teorikoa ematen dio gure oinarri ideologiari, ekologia politikoari. Bestetik, alderdiak badiu 16.000 zale eta horietatik 2.000 dira kideak, kuota ordaintzen dutenak. Alderdia eta ekimenak finantzatzeko ez diegu eskatuko dirurik banketxeei.

Sorrerako helburuak betetzen diharduzue?

Prozue geldo eta konplexua da, baina Espainiako hauteskundeetan 215.000 boto lortzea arrakasta handia da. Hauteskunde Lege injustu eta desproporzionatu honek kalte egiten digu, baina gure helburua da erakundeetan sartzea. Poliki goaz, urrun heldu nahi dugulako.

Espainiako hauteskundeetan ez zenituzten emaitza hobekak espero?

Bai; Madrilen, esaterako, ordezkariak lortzea espero genuen, baina ez genuen lortu gutxiatik eta etsipen modukoa izan guretako. Orain Europako hauteskundeetara begira jarrita gaude. Guretako egokiak dira, Europako Berdeen alderdikoak gara-eta.



Juan Lopez de Uralde, joan den zapatuan, Bergaran. | IMANOL SORIANO

Hauteskunde emaitzak alde batera utzita, gustura zaudete orain arte egindakoarekin?

Alderdiekiko urruntze bat sumatzen dugu jendartearen aldetik. Alderdiak nukleo itxiak bezala ikusten dituzte hiritarrek eta guk politika hiritarrendako erreku-peratu nahi dugu, parte hartzea bultzatuz. Gauzak beste modu batera egin daitezkeela erakusten ari gara: zerranda irekiekin, hauteskunde primarioekin, sarea erabiliz erabakiak hartzeko... Gauzak beste era batera egitea eskatzen dute hiritarrek eta sako-neko edo edukizko kontuez gain, formari ere garrantzia ematen diote hiritarrek. Horregatik uste dugu asko daukagula irabazteko.

Ze antolaketa modu daukazue?

Gure egitura ez da hierarkikoa, nahiko horizontala da; ez daukagu idazkari nagusi edo presidenterik eta paritarioa da. Esatera-

"Alderdia finantzatzeko ez diegu eskatuko dirurik banketxeei"

"Alderdiak nukleo itxiak bezala ikusten dituzte hiritarrek, haiengandik urrun"

ko, Batzorde Federalean bi bozeramaile gaude: Reyes Montiel eta ni neu.

Hego Euskal Herrian, eta oro har, lurralde guztietan egituratuta zaudete?

Bai, bai. Lau lurraldeetan. Oraindik, ezagutera emateko garaian gaude, halere.

Zer dauka eskaintzeko Equok dagoeneko gaur egungo alderdiek eskaintzen ez dutena?

Ezberdinak gara. Politika egiten dugu eta erakundeetan egoteari ez diegu uko egiten. Horretan ezberdintzen gara beste talde ekologistetatik. Eta ohiko alderdiekin alderatuta, antolaketa ezberdina daukagu eta Europako Alderdi Berdeari batuta gaude. Bestalde, Konstituzioaren aldaketa edota birsortze demokratikoa bultzatu nahi ditugu.

Ezkerreko alderdia da?

Ezkerra eta eskuma kontzeptuak geroago eta zalantzaragoak dira. Eredu ekonomiko eta sozialari dagokionean bai esan genezake ezkerrekoak garela.

Eta zertan ezberdintzen da, batik bat, ezkerreko edo berdeak diren beste alderdi batzuetatik?

Equo sortu dugu ulertzen dugulako politika egiteko beste modu batzuk badirela eta ekologia politikoa lehen lerroan jarri nahi dugulako. Hemen, orain arte, ez da gorpuztu alderdi berderik. Eta uste dugu beharrezkoa dela, ze, esaterako, higiezinaren aparra ez litzateke izango izan dena, alderdi berde indartsu bat egon izan balitz. Guretako lehentasunezkoa

da ekologia politikoa; beste alderdi batzuek ez.

Zein da Equoren lehentasuna?

Eredu politikoaren aldaketa: benetako demokraziaren hasiera. Horregatik eskatzen dugu Konstituzioaren aldaketa. Txiki geratu da, jendarteak azken 30 urteotan izan duen bilakaera kontuan izanda. Arrazoi ezberdinak tarteke, hiritarren zati handi bat ez dago gustura Konstituzio honen barruan.

Zergatik erabaki zenuen Greanpeace-tik Equora jauzi egitea?

10 urte neramatzen Greenpeace-ren zuzendaritzan eta uste nuen bazela garaia beste batzuei bide emateko. Bestetik, ni bezalako beste batzuek ere uste zuten ekologiak ez zeukala behar zuen tokia politikan. Hala hasi ginen Equon.

Europako herrialde aurreratuenetan badute indarra eta eragina alderdi berdeek. Hemen gutxiago. Zergatik?

"Gure egitura ez da hierarkikoa, nahiko horizontala da, eta paritarioa da"

"Zabor poltsak bata bestearen kontra erabiltzea ez da bidea"

Hainbat arrazoi daude. Batetik, hemen, ekologismoa oso mugatua edo sektoriala izan da eta ez da ulertu European bezala, alternatiba oso moduan: alde sozialetik, ekonomikotik, herri antolakuntzatik edo industrietatik begiratu. Ez gara gauza izan ikuspegi hori gizarteratzeko eta animalia edo naturaren babesle moduan ikusiak izan gara soilik. Atomizazioak ere ez du asko lagundu. Horrek guztiak ez du lagundu epe luzeko proiektua gauzatzen.

Jendartean, ohiko alderdien agendetan, ingurumenarekiko eta ekologiarekiko geroago eta kontzientzia handiagoa ikusten duzu?

Uste dut atzera goazela. Alderdiek hauteskunde sasoiak bakarrik hartzen dute kontuan ingurumena. Eta hauteskunde programetan apaingarri gisa jartzen dute. Baina ez da lehentasunezkoa inoiz: ekonomia ondo doanean ez da tokatzen eta gauza bera txarto doanean, txarto doalako. Atzera goaz mendi edo baso publikoen pribatizazioarekin, Itsasertzen Legearekin... Horregatik da gaur inoiz baino beharrezkoagoa aukera berdea.

Eta jendartean sumatzen duzu ingurumenarekiko sentiberatasunik?

Paradoxikoa da, ze, oro har, jendartean zabaldu da krisian gaudenez, ingurumen kontuak bigarren maila batean utzi behar direla. Eta justu alderantziz da: krisi ekonomikotik aterako gara krisi ekologikotik ateratzen bagara.

Besteak beste, hondakinen kudeaketaz aritu zarete zapatuan Bergaran egindako batzarrean. Zein da Equoren postura?

Errauste plantaren aurkako postura izan da gurea hasieratik. Eta hori oso kontuan izan behar da, ze erraustegia da hemen arazo guztiaren sorburua. Bestetik, gure aukera batez ere doa ontzi edo bilgarrien legea bultzatetik. Arazoaren sorburua joan nahi dugu. Jendearen parte hartzea bultzatu nahi dugu, herritarrekin, aterabide egokiena lortzeko. Edozelan ere, argi daukagu errauskailua ez dela inondik inora ere aukera.

Herri galdeketaen aldeko zarete Garbia plataformek eskatzen duten moduan?

Uste dut ona dela herritarren parte hartzea eta herritarrek iritzia ematea, hiritarren artean kontsentsua egotea inportantea delako. Baina zabor poltsak bata bestearen kontra erabiltzea ez da bidea.

Gaztetxoenen gustuko txokoa...

berria

Niko bilduma

1.989€



Ikusi Niko bilduma zure tabletan edo smartphonean

Niko gazte logela. Ohe bikoitza, ikasleku aparta eta armairuarekin. Argazkiko altzarien neurria guztira 435 cm x 240 cm, eta prezioa 1.989 €. Bez-a barne. Neurri eta koloreetan aukera zabala.

Niko gazte logelak

www.kibuc.com jarrai gaitzazu  

KIBUC Gure Ametsa

gureametsa@kibuc.com
Landeta hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC

Azkenean gure etxean

DUELA 10 URTE

2003-03-28

Peñalver pilotaria erretiratu egin zen

Maiz goitizenez ezaguna zen David Peñalver pilotariak iragarri zuen pilota utzi egin behar zuela. *Elgetako Goñi* ere esaten zioten, haserrea agertzen zuelako. Elgetako Ozkarbi taldean jokatu zuen beti. Hamar urtez eutsi zion bere zaletasun horri. Aitor Elkoro zen haren idoloa: "Lortu duena mirestekoa da, ispilua izan da besteondako", esan zuen. Maisu, berriz, Juan Luis Ubera izan zuen: "Gu aurrera ateratzen ahalegindu zen".



David Peñalver, pilotalekuan. | OXEL EROSTARBE

2003-04-11

Patxi Basauri berriz alkategai

27 urtez Elgetako alkate izan ostean, atzera ere alkategai aurkeztu zen Patxi Basauri jeltzalea. Gehiengo absolutuz irabazteko nahia eta esperantza erakutsi zituen Basaurik. Azkenean, baina, Aralar alderdiaren-gandik gertu-gertuan ibili zen Elgetako EAJ. Hain justu, EAJk botoen %39,1 eskuratu zituen eta Aralarrek, %38,4. Udalbatzarrean, lau (alkatea barne) eta hiru ordezkari eskuratu zituzten, hurrenez hurren.

DUELA 5 URTE

2008-04-04

Plaza berria onetsi zuten

Elgetako Salvador kaleko lehenengo ataritik Ozkarbiko arku parerainoko eremuari plaza itxura ematea erabaki zuen Udalak. Eremu horri lurreko galtzada-harrien diseinu berriak eman zion plaza itxura. Horrekin batera, besteak beste, Ozkarbi osteko aparkalekua eta Lasao kalea asfaltatu egin zituzten.

ELGETA

Gorka Arizmendiarieta Espaloia Kafe Antzokiaren bultzatzaileetako bat da Arizmendiarieta. Bultzatzailea, sorrera lanetan jardundakoa eta antzokian bertan urte mordoxka egindakoa | UBANE MADERA

"Niretzatko Espaloia gauza handia izan da, beste askorendako bezala"

Gorka Arizmendiarietak (Elgeta, 1979) Gasteizen egiten du lan, Makron, ostalaritzako profesionali zuzendutako supermerkatuan. Upategian hasi zen, bertako sommelieria ordezkatzeko, eta orain komertzial lanetara bideratu dute. Batean zein bestean pozik dabil, izaera ere horrelakoa duelako: oso positibo eta oso optimista. "Elgetatik Gasteizera joan behar eguneroko, baina... oso pozik nago", dio hark.

Elgetatik Gasteizera joaten zarela diozu; aldiz, guretzatko zuzenagoo da esatea Espaloia Kafe Antzokitik Gasteizera joaten zarela esatea. Izan ere, Espaloia sortzaileetako bat zaitugu, ezta?

Proiektua aurkeztu genuenetik bertan jardun dut zortzi urtez. Orain ere badihardut laguntzen, ez dut-eta guztiz laga nahi. Baina orain ekintza puntuale-tara joaten naiz, deitu egiten didate eta ni joan egiten naiz. Gaur bertan joan beharra daukat, eta hiru ordu egingo ditu bertan.

Espaloia apur bat zurea bezala ikusten duzula pentsatzen dut...

Bai, eta pena apur batekin laga dut. Baina erabakia hartu nuen horrela ikusten nuelako. Bizitzan hartu beharreko erabaki horietako bat. Hala ere, zortzi urte eginda, badakizu zenbat istorio izan ditudan? Soinu-teknikari lanak egiten nituen, sukaldean ibiltzen nintzen, jangelan, kon-

tzertuetan taula gainean, garbiketean... Pena handia eman dit, bai, baina niretzat Espaloia gauza handia izan da, beste askorendako bezala... eta herri txiki batean gehiago.

Gorka, eta zerbitzari izan zarenetik, barra atzetik beste modu batean ikusten da herria, ezta?

Bai, horrela da. Niri ostalaritzak lagundu dit jendea benetan ezagutzen. Psikologo lana ere egiten da, eta herri txiki batean are gehiago. Normala da.

Zein zen zure espezialitatea zerbitzari moduan?

Negozio batek ondo funtzionatzeko oso inportantea da, nire ustez, kafe ona izatea, ardo kopa ederra izatea eta gaueko gintonika edo *kubata* ondo prestatzea. Eta niretzat, horiek prestatzea luxu hutsa zen. Gozatu egiten nuen. Uste dut jendeak ere gustura hartzen zituela.

Zelan dituzu gogoan Espaloia Kafe Antzokiaren hasierakoak?

Enpresa batean nenbilen, eszedentzia eskatu nuen eta Espaloian hasi nintzen. Hasi eta segituan sanjuanak ziren, eta gero Elgetako jaiak. Geneukan jangela guztia hartuta... erabateko kaosa izan zen hura! [Barre] Izan ere, proiektu berri batean parte hartzen duzun momentutik, helburu bakarra da dena ondo joatea, eta behar duzu jendea pozik egotea... horrek guztiak urduritasun puntu handia ematen dizu, baina... pentsa,

HERRITARRAK



Gorka Arizmendiarieta, soinu-mahaiarekin, Espaloia antzokian. | LARRAITZ ZEBERIO

"Niri ostalaritzak lagundu dit jendea benetan ezagutzen"

"Pertsona famatuak, askotan, umilenak izaten dira"

urteak pasa ziren eta ez nintzen bueltatu lehenagoko lantokira, beraz...

Ikuskizun asko tokatu zaizkizu; baduzu bat edo bat gogoan?

Asko egon dira oso onak; eta asko oso txarrak. Ze onak ikusteko, txar asko ikusi behar baitituzu. Dena den, beti izan dira oso onak harreman aldetik eta tekniko mailan Yllana taldekoak; Fernando Sanders ere gogoan daukat, oso kontzertu polita izan zen, oso musikari profesionalekin etorri zen, Berri Txarrak taldearen kontzertuarekin betekada inportantea egon zen... Eta aipatzekoa da zenbat profesional etorri diren, ez dakit nondik, teknikoki eurek gauza mordo erabili arren, gure baliabideekin konformatu direnak. Hori oso garrantzitsua izan da niretzat.

Famatu artean ere ibili behar izan duzu...

Bai, eta Espaloikoen helburua beti izan da ekitaldi bat amaitzean artistekin harremana izatea. Adibidez, Anthony Blake ia urterotortzen da Elgetara, eta saioa amaitu eta harekin afaltzen dugu, txikiteoan ibili gara... Oso modu naturalean, gainera. Azkenean, pertsona famatuak, askotan, umilenak izaten dira.

Gaztetxeroa ere izan zara...

Bai, sasoi hura ere izan nuen. Oso ona izan zen. Gitarra jotzen hasi nintzen, musikariekin harremanetan, teknikariekin... Orain ere, hortxe doa gaztetxea aurrera. Ez dabil jende askorik inguruan bueltaka, baina badabil.

Norbait aurkituko bazenu Elgetari buruz gaizki esaka...

Niri demostratu egin beharko lidake. Eta esango nioke etortzeko niregana eta goitik behera esplikatu nioke non dauden kaleak, tabernak eta non dauden inguruko paraje ederrak.

NIRE HERRIAN

ELGETA BERA ETA INGURUA

Plaza barrena oso polita da, Salvador ermita inguru ere bai, Intxorta aldea... nik uste dut orokorrean badugula inguru oso polita, eta askotan ez dugula baloratzen. Ez da, adibidez, Eibarren bizi izatea bezala, ezin da konparatu! [Barre] Niretzatko Elgeta oso polita da eta, gainera, lasaitasun handia dugu.

PARTE-HARTZE TXIKIA

Jendearen parte-hartze txikia. Orokorrean. Oso pasiboak gara. Oso herri dinamikoak dugu, baina, askotan, bultzada behar izaten dugu. Ez da Elgeta bertako kontua, eta esan beharra dago jende gaztea badagoela lanerako gogoz, baina bultzadaxoa falta zaiola esango nuke. Laburtuta: ekarpenak igartzen ditut faltan.

HERRIAK

ARRASATE

Feminismoa "errekonozitu eta zabaltzeko" jardunaldiak

Arrasateko Emakume Txokoak antolatu ditu, hilaren 19rako eta 20rako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hamar urte igaro dira Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak Emakume Txokoa martxan jarri zuenetik. 2003a ezkerko emakumeendako espazio propioa da, organismo instituzionalatik at, bere izaera propioa lortu duena: "Ez da erakunde instituzional bat, baizik eta emakumeendako zerbitzu herrikoi bat. Urrats hori ematea oso garrantzitsua izan zen guretako", dio Maider Morras Berdintasun zinegotziak.

Emakume Txokoa erreferente bihurtu da, milaka emakume pasatu dira bertatik azken hamar urteotan: "Urtero, gutxi gorabehera, 250 emakume etortzen dira tailer, ikastaro eta bestelako zerbitzuak jasotzera. Horrek indarra ematen digu bide beretik jarraitzeko", dio Morrarak. Zoritxarrez, hasierako helburu guztiak ez dira bete, eta erronkak hamaika dira oraindik. Horiek jorratzen jarraitu eta urteurren berezia ospatzeko zer hobeto Jardunaldi Feminista batzuk antolatzea baino. Emakume Txokoko kideez gain, lantalde berezi bat aritu da jardunaldiok lotzen. Emakume Txokoaren irudia ere berriro dute, besteak beste.

"Errekonozitu eta zabaldu"

Jardunaldien helburua argi eta garbi azaldu digu Amets Beltran de Gebara Emakume Txokoko dinamizatzaileak: "Batetik, feminismoak mugimendu moduan landu dituen teoria eta praktikak jaso, errekonozitu eta herrian zabaltzea gura dugu. Bestetik, herria bera astindu nahi dugu ikuspuntu feministatik, ez ohikoa den formatu bat proposatuz".



Jardunaldiak antolatzen aritu den lantaldeko kide batzuk Arrasaten, Emakume Txokoaren atarian. | JOKIN BEREZIARTUA

ESANAK

"Herria astindu nahi dugu, ezohiko formatuarekin"

AMETS BELTRAN DE GEBARA
EMAKUME TXOKOA

Horretarako egitarau zabala eta berezia antolatu dute; emakumeek eginga, emakumeendako. Jardunaldiak hilaren 19an hasiko dira dokumental baten proiektioarekin. Dokumental horretan martxa diren prozesu ezberdinak ezagu-

tuko dituzte eta ondoren solasaldia txiki bat egingo dute. Hala ere, hilaren 20a izango da egun handia. Harrera egin ostean, bideo batekin emango zaio hasiera egitarauari: "Emakume Txokoan azken hamar urteotan egosi den hori azaltzeko zertzelada batzuk ikusi ahalko dira", dio Beltran de Gebarak. Gero lehen ponentzia egingo dute. Arantza Santestebani eta Larraitz Ugarteri honako galdera luzatuko diote antolatzaileek: Emakumeak botere organoetan egoteak, emakumeen eskubideen eta feminismoaren zabalkundearen aurrerapausoak ematea dakar? Bi ordu iraungo du saioak. Gero bisita gidatua egingo dute emakumearen borro-

karekin zerikusia duen herriko zenbait txoko bisitatuz edo horiek aipatuz. Bisita Maisu Arano kalean amaituko dute, kaleari izena aldatu eta Felix Arano eta Teresa Gartzia maisu-maistrak izena jartzeko. Gaztetxean bazkalduko dute eta arratsaldean beste ponentzia bat eta lau tailer ezberdin izango dira aukeran. Azkenik, emakumeendako jai feminista batekin amaituko dute eguna.

Aurrez izena ematea komeni da
Izena emateko webgune berri bat sortu dute -www.jardunaldifeministak2013.com- Bestela, ohi moduan Emakume txokoan edo 943 79 41 39 zenbakira deituta ere eman ahalko da izena.

JARDUNALDI FEMINISTAK

HILAK 19, ZAPATUA

18:30 Dokumental baten proiektioa Kulturateko areto nagusian. Gero, solasaldia.

HILAK 20, DOMEKA

10:00 Harrera, Kulturateko areto nagusian.

10:30 Jardunaldien hasiera, bideo batekin.

10:45 Ponentzia. Gaia: *Emakumeak eta boterea*. Hizlariak: Arantza Santesteban eta Larraitz Ugarte.

13:00 Bisita gidatua herriko kaleetan zehar, feminismoaren ikuspegitik.

14:00-15:30 Bazkaria Arrasateko gaztetxean.

15:30 Ponentzia. Izenburua: *Pankertatik politika publikoetara!* Hizlariak: Aurora Iturriotz, Joxepa Bornaetxea eta Marixe Noya.

17:30 Tailerak.

► *Nola kudeatu espazioak eta gizarte mugimendu ezberdinak feministotik?*

► *Natura elementu eta parte-hartzearekin eraikitako sinbologia feminista.*

► *Irakurketak lantzeko erak.*

► *Komunikabideei begirada feminista bat.*

22:00 Emakumeendako jai feminista gaztetxean, Belen Nevadoz, DJ batez eta musikariz lagunduta.

JAKITEKOAK


► Bat-bateko itzulpen zerbitzua egongo da, euskaratik gaztelerara.

► Prezioa: jardunaldiak bost euro eta bazkarira ere joanez gero, hamar euro.

► Tailerretako adituak: Pili Alvarez, Amaia Gabilondo, Josune Muñoz eta Arantza Santesteban.

IBAOLA
HARRIAK
Hilerri atea zure errautsentzat

j.ibaola@gmail.com • 656 71 16 73
Eskuernaga - ARABA
cementerioateo.blogspot.com.es



Azoka berria egin daitekeela frogatzera

Azoka Eguna bihar GÜreztatu ekimenak antolatuta: egun osoko egitaraua eta herri osoa gonbidatuta

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

GÜreztatu edo Arrasateko azoka biziberritzeko ekimenak egun handia biziko du bihar, apirilak 13. Ekimena gidatzen diharduen Bagara taldeak Azoka Eguna antolatu du. Hori bai, prozesu osoan zehar egin duen moduan herriko norbanako eta eragile ezberdinen laguntza izango dute biharko ospakizunerako.

Hiru helburu ditu Azoka Eguna: azokaren espazioa erabilgarria dela frogatzea, azoka berriak funtzio ezberdinak bete ahal dituela irudikatzea eta prozesuaren atzean zenbat jende dagoen erakustea: "Frogatu gura dugu azoka erabilgarria dela ekintza ezberdinak antolatzeko", diote Bagarakoek.

Bisitatzea merezi duen azoka

Era berean, Azoka Eguna GÜreztatu ekimenaren barruan orain arte egin den lanaren isla izatea

gura dute antolatzailaiek. Bestalde, ekintza ezberdinak antolatu bai, baina oinarrian zer dagoen ez dute ahaztu nahi. Izan ere, ezin da ahaztu lehen sektoreak orokorrean eta Arrasateko azokak modu berezian bizi duen gainbeherak eragin zuela biziberritzeko ekimen hau martxan jartzea.

Baserritarrak prozesu osoan oinarritzko zutabe direnez, biharko azokan ere protagonismo berezia izango dute. Arrasateko zein bailara osoko 17 bat baserritar etorriko dira; sasoiko eta bertako produktuak erosteko aukera egongo da –produktu eraldatuak barne; besteak beste,



Azoka berezia 10:00etan irekiko dute; denetarik salgai eta ikusgai. | GOIENA

Jakioneakoak eta Gomiztegiakoak eta horrez gain, ohikoak ez diren beste hamaika postu ere egongo dira. Harreman Gobernu Kanpoko erakundeok bidezko merkataritzaren postua jarriko dute eta bigarren eskuko produktuak erosteko aukera ere egongo da. Era berean, Eskuarlean kolektiboko artisauek postua jarriko dute, beste artisauek batzuekin batera. Guztira 17 bat lagun eskulanak egongo dira salgai eta ikusgai.

Horrez gain, trukerako gunea ere egongo da: Bagarakoek bilketa puntu ezberdinak jarri dituzte azken asteetan eta bihar, gune horietan zerbait utzi dutenek orduan jasotako txartela beste produktu batengatik aldatzeko aukera izango dute. Txartelik ez dutenendako truke zuzenerako aukera ere egongo da.

Gainera, haurrendako tailerak eta gaztetxeko serigrafia tailerra –nork bere kamiseta eramatea gomendatu dute– ere egongo dira, besteak beste.

Bazkalurretik kultura ekintzak

Azoka goiz osoan zehar egongo da zabalik, baina ez da hori izango goizeko eskaintza bakarra. Kultura ekintzarik ez da faltako: "Interesgarria izango da azoka moduko espazio baten kultura ekintzak antolatzeko", dio Bagarako Arkaitz Biainek. 12:00etan Arrasateko Ain_1 taldeak ordu erdiko kontzertua eskainiko du eta gero, 12:30ean, Azabatxe taldea igoko da azokako plazan jarriko



Amaia eta Maite Albes, desfilerako entseguan, mo



RK^UZ
MUEBLES
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAN
ARRASATE



RK^UZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA **FAGOR**
banatzaile ofiziala

RK^UZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA **expert**
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

GRUPO RK^UZ
ARETXABALETA 1950-2013 ARRASATE

60 urte baino gehiago



odeloetako batzuk atzean dituztela. | JOKIN BEREZIARTUA

BIHARKO EGITARAUA

AZOKA BEREZIA

10:00 Bertako jakiak, artisauak, bidezko merkataritza, bigarren eskuko produktuen azoka, trukerako gunea, haurrendako tailerrak, serigrafia tailerra...

KULTURA EKINTZAK

12:00 Ain_1.

12:30 Azabatxe.

13:00 Tobera saio motza.

17:00 Haurrendako ipuin kontaketa.

MODA DESFILE HERRIKOIA

18:00 Desfilerako arropa: Ibai-Arte, Eskuar-tean, Emaus eta Amaia Albes.

duen agertokira igoko dena. Ebert Sanchez musikagile eta artisauaren proiektu berria da Azabatxe. Goizeko egitarauarekin amaitzeko lehen bi toberetan parte hartu zuten antzezleeta batzuek saio motz bat egingo dute. Azoka eta kontsumo ohiturak gai hartuta, umorearendako tartea egongo da. Bazkalorduan etenaldia egingo dute eta 17:00ak aldera haurrendako ipuin kontaketa saioa egongo da Vanesa Sanchez kontalariaren eskutik.

Amaitzeko, moda desfilea

Azoka Eguneko egitarauarekin amaitzeko, moda desfile herrikoia antolatu dute Bagarakoek. Azoka biziberritzeko ekimenaren lehen fasean irten zen desfilea egitearen ideia –orain bigarren fasean dago proiektua–. Nola? Amaia Albes diseinatzaile arrasatearra hasieratik inplikatu zen prozesuan eta haren bildumak erakusteko aukera ederra izateaz aparte, herri osoari zabaltzeko moduko ekintza zela konturatu ziren.

Duela pare bat hilabete hasi ziren desfilea antolatzen; ez zuten halako harrerarik espero: "Ia bat -batean antolatutakoa izanda, herriko 60 bat modelo lortzea ederra da, ez genuen horrenbeste jende espero. Oso pozik gaude", adierazi digu Onintze Guridi Bagarako kideak. Bazkalurreko kontzertu eta tobera saioarendako erabiliko den agertokia aprobetxatuz, pasarela ikusgarria muntatu dute azokako plazatxoan. Lau pase egongo dira, lau talde

Halako ekintzak nola ikusten dituzu?

ANTONIO JAVIER ANDRES



"Oso ondo, gehiago egon beharko liriteke. Herritarren parte-hartzea bultzatzeaz gain, bizitza ematen diote herriari. Azokari ondo etorriko zaio aurpegi aldaketa".

GUADALUPE FRUTOS



"Halakoak asko gustatzen zaizkit eta jendea erakarriko duenez, herriari mesede egingo diola uste dut. Herriak zein azokak bultzada berezi bat behar dute".

ALBERTO MENA



"Gehiago antolatu behar dira. Desfile herrikoiak, adibidez, eguneroko arazoez ahazteko aukera emango du. Azokako erabiltzailea naiz duela bi urtetik; aldaketa behar du".

MARI JOSE MURILLO



"Moda desfile herrikoia baten parte hartzea oso polita izango da. Urduri egongo naiz, baina egingo dugu... Azokara ez naiz joaten, baina oso positiboa da halako ekintzak antolatzea".

ezberdinen arropa eta osagarriak erakusteko. Lehen pasean Eskuar-tean artisauen kolektibokoek egindako osagarriak ikusi ahalko dira, gero Emauseko Sin Desperdicio gamako produktuak irtengo dira, hirugarren pasean Ibai-Arte merkataria elkarteko denda ezberdinetako arropa eta osagarriak irtengo dira eta amaitzeko, Amaia Albes diseinatzaile arra-

satearraren azken bildumaz –*Madame's Tail* izenekoa– gozatzeko aukera egongo da: "Diseinu apurtzaileak izango dira, ea jendeak nola erantzuten duen", aurreratu digu Albesek. Emakumeen sentusialitate eta dotoretasuna nabarmentzeko bilduma da, gerruntzeak –kortseak– gorai patzen dituenak. Zozketak ere ez dira faltako; gonbidapena eginda dago.

DATUA

60

MODELO DESFILERAKO

Herriko 60 bat modelok hartuko dute parte; haur, gazte zein heldu.

Oskarbi

oinetakoak

ADI!
Denda berria zabaldu
dugu Arrasaten!

Oskarbi Oinetakoak | Olarte 9 / 943 71 18 04



... eta lehen genuena ere mantentzen dugu. Topa itzazu
beste denboraldi batzuetako oinetakoak, prezio ezin hobean.

Oskarbi Outlet | Erdiko kalea 11 / 943 71 18 04

KUPOI HAU MOZTU ETA GURE ARRASATEKO DENDETAN ERAKUSTEN BADUZU,
6 EUROKO DESKONTUA EGINGO DIZUGU.

6

EUROKO
DESKONTUA*



www.oskarbi.com • www.oskarbioutlet.com

* Promozio baliagarria apirilaren 30era arte, 50 euro baino gehiagoko erosketara eginez gero. Ez da promozio bateragarria.

Bedoñako Otxia txakolina dastatzeko aukera etzi Kajoin

U.M./J.B. | ARRASATE

Ohiturari eutsiz, domekan Bedoña auzoko Otxia txakolina aurkeztuko dute Kajoi tabernan. 12:30ean hasiko dira urre koloreko edaria banatzen. "Kaxa batzuk eramango ditut, eta bukatu arte", Felix Etxagibel txakolinaren ekoizleak esan duenez. Gonbidapena ere egin du: "Jendea ezagutzera eman nahi diot guk lantzen dugun mahatsaren emaitza". Aurten go txakolin berriaren gainean ere galdetu diogu: "Usaintua, arina eta freskoa" da, ekoizle arrasatearraren arabera. Getariako Txakolinaren jatorri izenaren barruan sartuta dago Otxia txakolina.



Etxagibel, iazko dastatzean. | ARTXIBOA

Gaztetxe Eguna bihar, AGAKOren 22. urteurrenaren barruan

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Gazte Alternatiboan Kofradia Organizatua -AGAKO- ospakizunetan murgilduta dabil. Gaztetxeak 22 urte bete ditu apirillean eta hil osoan zehar denetariako ekitaldiak antolatu dituzte. Hil hasieran mendi irteerak egin zituzten eta eguaztenean Jasone Mitxelorenak auzolanaren gaineko liburu bat aurkeztu zuen. Bihar, berriz, Gaztetxe Eguna ospatuko dute. Goizean zehar Azoka Egunaren barruan egongo dira serigrafia tailerren eta denetariako materiala ere jarriko dute salgai. 13:00etan hasiko dira poteoan.

Bazkarirako txartelak salgai

14:30ean bazkaria egongo dute Seber altube plazan -eguraldi txarra eginez gero gaztetxean egingo da-. Txartelak salgai daude Iluntz, Irati eta Osorik tabernetan, bost euroren truke. Beste ekintzen artean aipatzekoa da apirilaren 21ean *La tristeza de las tiendas pelucas* eta *Insu-misión en Navarra* liburuen aurkezpena egingo dela, gaztetxean bertan (18:30). Pamielak argitaratu ditu bi liburuak eta Patxi Irurtzun eta Oscar Beorlegi idazleek egingo dute aurkezpena. Ajoarrieroa eta ardoa dastatzeko aukera egongo da.

Zerrajerako erloju zaharra martxan da berriro ere

Mikel Lazpiur mekanikari bergararrak konpondu du

J.I./J.B. | ARRASATE

Arrasatearrak, zerrajeroak edo sarragileak moduan ere ezagunak. Zerrajerak Arrasateren historian duen txokoa ukazina da. Eta lantokiaren parte garrantzitsua da, era berean, Zerrajerako erloju zaharra. Izan ere, lantegia eraiki zenekoa da erloju bera, 1939koa. Ordutik 1993ra arte martxan egon zen etengabe, hainbat eta hainbat arrasatearren denbora markatzen zuen erloju bihurtzeraino. Izan ere, erloju horren arabera funtzionatzen zuen Zerrajerako sirenak, lanegunaren hasiera zein amaiera adierazten zuenak.

1993a ezkerro egon da geld

1993a ezkerro geldu egon ostean, haren balio historikoa ikusita eta zenbait herritarren eskaerei erantzunez, Udalak erabaki zuen erloju berriro ere martxan jartzea. Horretarako Mikel Lazpiur mekanikari bergararrarengana jo zuten 1993an geratu zen erloju martxan jartzea posible zen jakiteko. Erraz konpondu zuen erloju Lazpiurrek; 1992ko konponketan gaizki muntatu zen pieza bat -espeka izenekoa- ondo jarri eta listo. Gustura egin du lana, gainera: "Banuen gogoa halako erloju baten mekanismoa ezagutu eta eskua sartzeko". Pozik eta musu truk egin du eta beraz, Udalak bereziki eskertu dio Lazpiurri egindako lana.

"Oso mekanismo zaharra du"

"Eraikina bera monumentu bat da. Denok dakigu Zerrajera zer izan den Arrasaten; langile asko pasatu ziren hemendik, familia asko. Erloju martxan ikusi dute nean oso pozik jarri dira. Orain mantenu lan on bat egin behar da, ea ez den gelditzen", dio Inazio Azkarragaurizar alkateak. Lazpiurrek, nola ez, erlojuaren gainean egin digu berba: "Oso mekanismo zaharra du, motor elektrikoak hainbat urte ditu. Ez dut albo batera uzten berriro gelditzea; hori gertatu ezkerro, konponketa erraza izango litzaiteke. Zerbait apurtzen bada ere, pieza berri bat egin daiteke. Gel-

ditzen bada, ziur jarriko dugula martxan...", esan digu irribarretsu. "Balio handia dauka. Halako erlojuak kendu egiten dituzte leku askotan. Orain jartzen dituztenak irrati kontrol bidezkoak izaten dira". Erloju zahar horiek galtzearen arrazoiak bat aipatu digu adituak: "Apaiz askok tratua egiten dute erlojugileekin. Erlojugileak zaharra eraman, eta erloju berria musu truk jarri. Hori, nire ustez, astakeria bat da". Zazpi urte zituenetik egiten du lan erlojuarekin mekanikari bergararrak: "Nire aitona zaiten nagusia zen, oraindik haren erremintak erabiltzen ditut. Txikitatik gustatu izan zait".



Mikel Lazpiur mekanikari bergararra, Zerrajerako erlojuaren ondoan. | JULIEN IRIONDO

Sortuk autobusa antolatu du Donostian egingo den manifestaziorako, bihar

Epaitegi Gorenak Donostiako zortzi gazteri sei urtetako zigorra ezarri izana "ozen" salatzeko bihar egingo den manifestaziorako autobusa antolatu du Arrasateko Sortuk. Garibaitik irtengo da, 15:30ean. Irati tabernan eman behar da izena: "Herritar oro gonbidatu gura dugu erasoan parean jarri eta kalera ateratzera".

Arrasate Garbik dei egin du Bergarako manifestaziorako, gaur

Hiri hondakinak atez ate biltzearen aurka eta bosgarren edukiontzia alde dagoen Arrasate Garbi plataformak arrasatearrak deitu ditu gaur atez ateko sistemaren aurka Bergaran egingo den manifestazioan parte hartzera. 19:15ean irtengo da, San Martin plazatik.

Hildako alderdikideak gogoratuko ditu EAJK domekan

Domekan, apirilak 14, San Juan bataiatzailea parrokiaren izango den meza nagusian, Arrasateko EAJK hil diren alderdikideak gogoratuko ditu, urteroko ohiturari eutsiz. Mezaren ostean, gerturatu nahi duten guztiendako luntxa egongo da batzokian, Iturriotz kalean.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

psinko

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Erakusketaren ataletako bat. | J.B.

Gorakada taldearen txotxongiloen mundu magikoa Kulturaten

Gorakada antzerki taldearen 25 urteko ibilbidea jasotzen da erakusketan txotxongilo eta jantziekin

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Liburuaren Egunaren harira, hilabete osoa hartu ohi dute Arrasateko bibliotekan ospakizunetarako. Hala, erakusketa zabaldu zuten Kulturateko klaustroan martitzenean. Abadiñoako Gorakada antzerki taldeak 25. urteurrena ospatzeko prestatu duen erakusketa berezia da. 1987an lehen obra egin zutenetik, 1.900 emanaldi baino gehiago egin ditu taldeak. Ibilbide horretan 900.000 ikusletik gora izan dituzte emanaldietan. Erreferentea da txotxongilo ikuskizunetan Gorakada, hortaz. Txotxongilo, jantzi eta eszenografiak jasotzen dira Kulturateko erakusketan, antzezlanik esanguratsuenetakoak: *Tirikontu*, *Gondola misteriosua*, *Robin eta Hood* eta *Irudimendeko hiria* dira obra ezagunenetako batzuk. Erakusketak bilatzen du taldearen mundu liluragarriaren erakusgarri izatea, eta hil amaierara arte egongo da zabalik (egunero, 17:30etik 20:30era).

Egitarruaren ekintzetako bat besterik ez da hori, baina. Hurrengo bi asteetan, literatura solasaldiak, ipuin kontaketa eta ikuskizunak egongo dira. Gaur, Valia Percik (Argentina), Arnau Vilardebo (Katalunia) eta Maite Arrese ipuin kontalariek saioa egingo dute, 19:00etan, Kulturaten.

APIRILEKO EGITARUA

APIRILAK 12

19:00 Munduko kontalariak. Kulturaten.

APIRILAK 17

18:00 *Cine y literatura* solasaldia. Kulturaten.

APIRILAK 19

18:00 *Bularretik mintzora* (3-5 urte). *Santa Marinako liburutegian.

APIRILAK 23

18:00 eta 18:20 *Shakti contorsión* ikuskizuna. Kulturateko sarreran.

18:30 *Bitan esan beharra*, Rikardo Arregirekin. *Jokin Zaitegin.

APIRILAK 25

19:00 *Munduko ipuinik txarrenak, okerrago kontatuak*. *Santa Marinaran.

APIRILAK 26

19:00 Komiki gidaren aurkezpena eta *El arte de volar* emanaldia. Kulturaten.

AEDko ekintza taldearen aurkezpena martitzenean

J.B. | ARRASATE

Ekintza taldea azken bi urteetan lanean ibili da Siadeco enpresak egin zuen *Arrasaten euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreen azterketa* txostenaren gainean. Landutako hausnarketa plazaratu eta gaia eztabaidatu gura dute martitzenean Kulturateko Lora-mendi aretoan, 16:30ean, bazkide, euskaltzale eta euskalgintza eta kultura arloetako talde eta eragileekin.

Taldeak eta elkarteak uste dute euskararen alde urrats garrantzitsua egiteko garaia dela, eta, aurkezpenaren ostean, hausnarketarekin batera, epe luzerako lanerako taldeak eta bideak ezarri gura dituzte lanean jarraitzeko. AED elkarteko Itxaro Artolak zuzenean euskal hiztunei egiten die deialdia hasteko. Ikerketan landutakoei eutsita, Artolak dio "lehenik eta behin euskal hiztunak izan eta euskarari uko egiten dioten horiengana heltzeko urratsak" ezarri nahi dituztela, "hortik hasi, zabaldu eta euskaldun berriak motibatu eta ikastera bultzatzeko".

Historiaren kontakizuna bera, hitzaldi sortan aztergai

J.B. | ARRASATE

Zuztarrak Errotuz taldeak, Nabarralde eta Arrasateko Udalak elkarlanean antolatuta dute Udaberriko Hitzaldi Zikloaren hirugarren edizioa. Zikloaren helburu nagusia da Euskal Herriko, Leintz Bailarako eta Arrasateko historiari sakontzen joatea: "Gure taldearen izenak dioen moduan, gure herriko zuztarrak errotzen joatea da gure asmoa", adierazi du Zuztarrak Errotuz taldeko Xabier Zubizarretak. Aurtengo zikloa zuzendu dute historia bera kontatzearen garrantzia azpimarratzeari: "Herri guztiek, handiek zein txikiek, egiten dute historia. Baina batzuk kontatu egin dute eta beste batzuek ez; horren garrantziaz jardungo dugu".

Apirilaren 17an, eguaztenean, izango da lehen saioa, 19:00etan udaletxeko pleno aretoan. Arlabango bataila (Gerardo Elortzak), museismoa (Saioa Alzuak) eta Historia ondo kontatzeari buruz (Anjel Rekaldek) egingo dute berba eta ostean mahai-ingurua egongo da.

ZALDIBAR

A MULTZOAREN SAILKAPENA		
TALDEA	P	J
1 Sonografos	7	0
2 Aldatz	5	0
3 Abokajarro	4	0
4 Lasagabaster	3	0
5 At. Betraye	2	0
6 Aston Birra	1	0

B MULTZOAREN SAILKAPENA		
TALDEA	P	J
1 Iriztu	7	0
2 Dribling	5	0
3 Ostantz	4	0
4 Iluntz	3	0
5 Haizea's Weah	2	0
6 Fidel & Discipulos	1	0

PARTIDUAK

APIRILAK 13, ZAPATUA

10:30 Ostantz-Iluntz / Sonografos

11:30 Sonografos-Aston Birra / Ostantz

12:30 Dribling-Haizea's W. / Aston Birra

APIRILAK 14, DOMEGA

10:30 Aldatz-At. Betraye / Fidel & Disc.

11:30 Iriztu-Fidel & Disc. / At. Betraye

12:30 Abokajarro-Lasagabaster / Iriztu

Bigarren fasearen hasiera

Asteburuko partiduekin hasiko da txapelketako bigarren fasea. 2012-2013 edizioko txapeladuna Aldatz taldea izan da. Datorren jardunaldirako ordu aldaketa eskatzeko epea domekan amaitzen da.



T. CHAPIME

San Andrés Auzoa 5 • ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22 • Fax: 943 77 10 47



Hau ZORAMENA!

Ikus itzazu CHAPIMEn ditugun eskaintzak!



BIGARREN GURPILA




Etor zaitetz eta informa zaitetz!

- Edozein markatako autoen mantentze-lanak, olio eta filtroa barne: 59 eurotik aurrera (olio motaren arabera).
- Aurretiko IAT (ITV) DOAN
- Distribuzio kita %15eko DESKONTUAREKIN
- Bateriak %30eko DESKONTUAREKIN

Eskaintza baliagarriak 2013ko maiatzaren 31ra arte

PUB HAIZEA





Erosketak egindako poltsekin, Kale Zaharrea, beste herritar batzuk erakusleioari begira dauden bitartean. | O.E.

Merkataritza nola indartu jasoko dute txosten baten

Herriko denda, ostalaritza eta zerbitzuen egungo diagnostia eta datozen urteetan egin beharreko ekintzak jasoko ditu PERCO dokumentuak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Herriko merkataritzaren alde egiteko lanean, merkataritza bizi-berritzeko plana jarri dute martxan Udalak eta Txandak elkar-lanean. Egungo egoera zein den eta datozen urteetan zer egin daitekeen jasoko du hilabete honetan bertan martxan jarriko den plan horrek.

Merkatariei galdetuz

Hiru enpresa aurkeztu dira plan hori egiteko, eta konkurtso fasean dago orain proiektua. Hala ere, asmoa da lana adjudikatu eta berehala hastea martxan, ahal dela hilabete honetan bertan.

"Biziberritzeko plana egingo duen enpresak egungo egoeraren diagnostia egingo du lehenengo. Horrez gain, baita datozen urteetan egin daitezkeen ekintzen plan bat ere. Eta hori guztia herriko eragileekin elkarlanean egingo du. Hau da, batetik, Udalarekin jarriko da harremanetan Udalaren lana zein den jakiteko, eta bestetik, merkatariekin eurekin ere egongo dira", azaldu du Jesus Mari Ugartek, Enplegu teknika-riak.

Herri merkataritza biziberritzeko plan horretan, gainera,

herriko komertzioak ez ezik, ostalaritza eta zerbitzuak eskaintzen dituztenak ere sartzen dira.

Azkena, duela 7 urte

Egingo duten biziberritze plan hori PERCO izenez ezagutzen da.

Liburuetan gastatzeko

Liburuetan gastatzeko diru sariak ari da banatzen Txanda erosleen artean. Apirilean zehar, Txandako dendetan erosketak egingen dituztenen artean 20 euroko 40 txartel zozketatuko dituzte hilaren 20ra bitartean.

Txartel horiek liburu edo ipuinengatik trukatu beharko dira Txandako denda hauetan: Hirukar, Altuna, Haritza eta Urzai. Liburuaren Hilabetearen barruan, komertzioetako erakusleioak liburuak gaitzat hartuta apaindu dituzte.

Duela zazpi urte, 2005ean, egin zuten azkena, eta egoera asko aldatu delako erabaki dute beste bat egitea. "Diagnosiarekin batera datozen urteetan egingo diren ekintzak ere jasoko ditu txosten horrek eta herriko eragile ezberdinek egin beharreko ekintzak izango dira. Horien artean lehen-tasuna zeintzuek duten eta epe ertainera edo luzera zeintzuek egin daitezkeen enpresak berak zehaztuko du", dio Ugartek.

Merkataritzaren biziberritze plana lau hilabeteko epean egin beharko dute eta 30.000 euroko diru partida gorde du Udalak horretarako.

Txanda, pozik

Herriko dendariak batzen dituen Txanda elkarteak uste du momentu ona dela PERCO txostena egiteko. "Duela zazpi urteko egoera eta egungoa ez dira berdinak, eta plan honek egungo egoera kontuan hartuta merkataritzaren alde zer eta nola egin daitekeen jasoko du, eta ona da hori. Plan honekin Jaurlaritzak emango duen dirulaguntza horretarako izango da gero", argitu du Txandako zuzendaritzako kide Argilorain Perostenak.

Tratamendu irristagaitza ematen aritu dira Olakuan

O.E. | OÑATI

Olakua auzoko 16, 17 eta 18 zenbakietako atarien arteko zoladuran tratamendu irristagaitza ematen jardun dute, asteon, horretan profesionala den enpresa bateko langileek.

Formula kimiko berezia

Astigarragako Murua enpresa aritu da lan hori egiten. Obraren arduradun Javier Erasunen esanetan, bi mailatako lana izan da: "Lehenengo, gaineko zikinkeria kendu dugu presioa erabilita, eta gero, formula kimiko berezia duen produktu bat zabaldu dugu eremu guztian, lurra labainkorra ez izateko".

Atariak eta komertzioak dauden aterpeetako lurrerako beste formula kimiko bat erabili dute. "Eremu handiengan, 2.000 metro karratutan, baldosa dago, baina arkupeetan dagoena beste harri mota bat da, eta, beraz, beste produktu bat eskatzen zuen horrek". Tratamenduak zazpi bat urteko bermea duela jakinarazi du Erasunek, baina urtean behin egin daitekeen garbitasun orokorrak bermea luza dezakeela.

Olakua auzoko gune horretako zoladura oso labainkorra zen, eta bizilagunek eskatuta egin du lan hori Udalak.



Espaloiak lehen zuten eta orain duen itxuraren aldea. | O.E.



OÑATI KO EAJ

Pintadak salatu ditu EAJK

Lotu zuen txakurrak! EAJ traidorea irakur zitekeen pintada agertu zen atzo, eguna, goizean Batzokiko fatxadan. EAJ alderdiak gogor salatu du ekintza hori, galdetuz hori al den errespetuaren eta demokraziaren bidea. Salaketa jarri dutela adierazi dute.

50 zuhaitz-landare landatuko dituzte Aloñan domeka goizean

Aloñako Lagunek deituta, zuhaitz landaketa egingo dute Aloñan domekan. Martxoan ziren landaketa egitekoak, baina elurragatik atzeratu egin zuten data. 09:30ean elkartuko dira Durun eta 50 landare (lizarrak eta pagoak) landatuko dituzte Aloñako magalean, behealdeko pista bazterrean. Basozainen eta Natur Eskolakoen laguntzarekin egingo dute.

Donostian egingo den manifestaziorako autobusa jarri dute

Espainiako Auzitegi Gorenak Donostiako zortzi gazteri sei urteko kartzela zigorra ezarri die Segiko kide izatea leporatuta, eta hori salatzeko manifestazioa egingo dute bihar Donostian. Hara joateko autobusa aterako da Oñatitik. Arranon eman behar da izena. Manifestazioa 17:00etan hasiko da, Bulebarretik.

Txirri, Mirri eta Txirribiton datoz bihar Santa Ana antzokira

Txirri, Mirri eta Txirribitonak Terapia ikuskizuna egingo dute bihar birritan, 16:00etan eta 18:00etan, Santa Anan. Antxintxiketan Kirol Elkarteak antolatu du ikuskizuna eta sarrerekin batutako dirua Corpus bezperako lasterketa antolatzeko izango da. Sarrerak salgai daude Kiku goxoki-dendan, sei eurotan.

Keinu hizkuntza eta capoeira ikasteko aukera gaztelekuan

Keinu hizkuntza ikastaroa antolatu dute gaztelekuan Kuboko eta Topalekuko gaztetxoendako. Lau zapatutan emango dute, apirilaren 20an hasita, eta apirilaren 15a aurretik eman behar da izena. Bestalde, capoeira ikastaroa maiatzeko zapatuetan eskainiko dute, eta hilaren 29a aurretik apuntatu behar da.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak salgai

Maiatzaren 4an datoz Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Oñatira. Txantxiku Ikastolaren eguna ospatzeko antolatu dituzten ekitaldieta-ko bat izango da. *Sentitu, pentsatu, ekin* izeneko ikuskizuna eskainiko dute Zubikoa kiroldegian eta sarrerak astelehenean jarriko dituzte salgai, sei eurotan.

Generoa gaztetxeetan nola landu jorratuko dute bihar Antixenan

11:00etan da bilera eta gaztetxe askotariko kideak daude gonbidatuta

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gaztetxeak eta generoa izeneko ikerketa egin zuen duela urte pare bat Pili Alvarez Moles kataluniarrak, eta ikerketa horrek emandakoak komentatu eta landu gura ditu orain ahalik eta gaztetxe gehienetan. Bihar, zapatua, Oñatiko Antixena gaztetxe-
ra etorriko da.

Genero materiala bildu

Antixenan egingo duten bilera irekia da. Gaztetxe askotariko kideak daude gonbidatuta, eta baita interesa duten herritarrak ere. "Gure asmoa da genero harremani buruz gizarte mugimenduetan eta batez ere gaztetxeetan landu den materiala biltzea", dio Alvarezek. "Duela bizpahiru hilabete Gasteizen egin genuen lehen bilera irekia. Gaztetxe ezberdinetako kideak elkartu ginen eta ikusi genuen garrantzitsua zela orain arteko materia batzea, zabaldu eta generoaren gaia lan-
tzeko".

Eta batutako materia eraman-
go dute zapatuan, bihar, Antixen-
an egingo duten bilerara. "Izan
daiteke fantzine bat, antzezlan
bat edo tailer konkreturen bat.
Asmoa da gero material hori
gaztetxeetan zabaltzea", argitu
du ikerketaren egileak.

Generoaren gaia

Pili Alvarezen iritziz, generoaren
gaia ere landu behar da gazte-
txeetan. "Arrazoi asko daude
horretarako. Horietako bat da



Pili Alvarez, gaztetxearen ikurra atzean duela. | IÑAKI AZKONA

taldean, kolektiboki egin behar-
reko lana dela. Horrek ematen
du aukera gai horren inguruan
berba egiteko. Esaterako, oso
gaztetxe gutxi dute eginda pro-
tokolo bat eraso sexista baten
aurrian nola jokatu behar duten
zehazten duena. Eta hori kolekti-
boan egin beharreko kontu bat
da; ez du zentzurik kanpotik nor-
bait etortzea zer egin behar den
azaltzeko".

Ikerketa plazaratu

Emakundek emandako beka bate-
kin egin zuen Alvarezek *Gazte-*

txeak eta generoa izeneko iker-
keta. Horretarako, Euskal Auto-
nomia Erkidegoko 16 gaztetxeren
laguntza izan zuen, ikerketan
parte hartzeko gertu agertu zire-
nenak, hain zuzen. Ikerketan
jasotakoa eta ateratako ondorioak
plazaratu gura ditu orain. "Iker-
keta hori armairu baten barruan
egoteak ez du zentzurik, eginda-
koa landu, konpartitu, nahi nuen
nik eta horretarako hasi dut bile-
ren bigarren fase hau", dio. Orain-
goz, Antixena da parte hartzea
gura duela esan duen Debagoie-
neko gaztetxe bakarra.



Gozategi taldea. | GOZATEGI

Gozategi taldearen kontzertua eta txotx egiteko aukera bihar gaztelekuan

O.E. | OÑATI

Lizargarate Trikitizale Elkartek
gonbidatuta dator Gozategi tal-
dea bihar, zapatua, gaztelekura.
22:30ean hasiko da kontzertua
eta sarrera bost euro da.

Sagardoa doan

Antolatzaileek jakinarazi duten
moduan, sagardoa ere egongo
da biharko kontzertu horretan.
Sagardo kupela jarriko dute
gaztelekuan, eta gura duenak

txotx egingo du, doan. Sarrera-
ko prezioan sartuko dira, beraz,
kontzertua eta txotxa.

Orioko taldeak azken 20
urteetan plazarik plaza jo dituen
kantuen bilduma jaso zuen joan
den urtean *1992-2012 All Stars*
izeneko diskoan. Bihar gazte-
lekuan egingo duten kontzertuan
ere bilduma horretan jasotako
hainbat kantu abestuko dituzte,
guztiak dantzan jartzeko
asmoarekin.

Herriko pintxo lehiaketa egingo dute iluntzean

O.E. | OÑATI

Herriko pintxo lehiaketa egin-
go dute iluntzean, Sustrai
fruta-dendak antolatuta. Kale
Barriko Sustrai dendaren
aurrealdean egingo dute lehia-
keta; hara eraman beharko
dituzte pintxoak parte-har-
tzaileek.

Pintxoek barazkiekin edo
frutarekin egindakoak izan
beharko dute, eta bizpahiru
mokadutxotan jateko modu-
koak. Sukaldari bakoitzak sei
pintxo prestatu beharko ditu,
denak berdinak. Irabazleak
Sustrairen barazki eta fruten
saski bat eta bi lagunendako
pintxo daskatzea Luis taber-
nan jasoko ditu. Osagaiak,
zaporea, aurkezpena eta ori-
ginaltasuna baloratuko ditu
epaimahaia.

Arantzazurako autobusek ordutegi berria dute

O.E. | OÑATI

Ordu aldaketarekin batera,
Arantzazu-Arrikruz-Oñati
linea betetzen duten autobu-
sek ordutegi berria dute.
Indarrean dagoen udako
ordutegi honekin, etenik
gabeko zerbitzua eskainiko
du. Horrela, lehenengo auto-
busa 07:00etan abiatuko da
Oñatitik eta azkena 19:00etan
Arantzazutik, igande eta jaie-
gunetan. 10:30ekoa eta 13:15e-
koa Arrikruz-Oñatiko Kobe-
tan ere geldituko dira. Pre-
zioan ez da aldaketarik egon;
70 zentimo izango da aurre-
rantzean ere bidaia bakoitza.
Giro onarekin batera zailagoa
izaten da Arantzazun apar-
katzea, eta autobusa erabil-
tzeko gomendioa egin du
Udalak.



GANBARA TXIKI

Zaragozan eta Jacan izan da Ganbara Txiki

Jacan eta Zaragozan izan dira Ganbara Txiki kideak Pazko astean.
Jacako katedralean eta Zaragozako Portillo Ama Birjinaren elizan abestu
zuten, besteak beste. Bidaia, baina, kantuan egiteko ez ezik, aisialdiaz
gozatzeko ere aprobetxatu zuten. Horren adibide dira izotz pista eta
jolasparkera egin zituzten irteerak. Apirilaren 2tik 5era bitartean egin
zuten bidaia Ganbara Txiki kideak, eta ondo baino hobeto pasa zutela
jakinarazi dute.

BARRIO autobus eta mikrobusak

- Eskoletako txangoak
- Upeltegietara irteerak
- Sagardotegietara irteerak
- Ezkontzak

Prezio interesgarriak!

Eska ezazu aurrekontua
konpromisorik gabe!



Aldapa kalea 6, 4-B Ermua • Tel.: 943 17 15 01 • Pol.: 659 87 89 89
E-posta: info@autocaresbarrio.es • Webgunea: www.autocaresbarrio.es



Neskatala bat, iazko Shotokan kata txapelketan, mugimendua egiten. | GOIENA

105 karateka lehiatuko dira bihar Shotokan kata txapelketan

Oñati, Antzuola, Bergara eta Elgetako parte-hartzaileak egongo dira Zubikoan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendiko karate sailak antolatuta, XVIII. Shotokan kata txapelketa jokatuko dute bihar Zubikoa kiroldegian, 16:00etan. 105 karateka gaztek erakutsiko dituzte euren abileziak: oñatiarrak 45, bergararrak eta antzuolarrak 45 eta elgetarrak 15.

Aloñak urtero antolatzen duen txapelketa harrobiko mailendako proba da. Hori horrela, prebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak lehiatuko dira.

Zubikoa kiroldegiko kantxan hiru tatami ipiniko dituzte, eta adinka banatuko dituzte parte-hartzaileak. Neska-mutikoei euren aukeratutako karate mugimenduak baloratuko dituzte epaileek. "Maila horietan katak egiten dituzte. Karateko mugimenduak dira. Ondo sinkronizatuak mugimenduak egiten

dituzte, besoekin eta hankekin", esan digu Aloña Mendiko karate saileko presidente Ricardo Arrizabalagak.

Karateak duen beste modalitate kumitea da. Infantil mailan hasten dira borroka egiten. "Kumitea borroka egitea da. Lehia zuzena. Hori ezin dute egin infantil mailara heldu arte", dio Arrizabalagak.

ESANAK
"Ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsiko dugu erakustaldian"

RICARDO ARRIZABALAGA
KARATE SAILEKO PRESIDENTEA

Egindako lana erakusteko

Aloña Mendiko karate sailak aspaldi dihardu lanean neska-mutikoei. Egun, adin askotariko 53 karateka ditu. Gazteenak 7-8 urtekoak dira. "Gerriko zuriarekin hasten dira. Apurka mailaz igotzen doaz eta gerrikoaren kolorea aldatzen dute. Hori bai, gerriko beltza lortzeko lan handia egin behar da, eta batzuk bidean geratzen dira", esan digu Arrizabalagak.

Aloña Mendik txapelketa bakarria antolatzen du; zapatukoa, alegia. Helburu zehatz batekin: neska-mutikoei entrenamenduetan egiten dutena erakustea. "Alberto Lera entrenatzailearekin lan handia egiten dute. Adinaren arabera txapelketa ofizialetan parte hartu ezin dutenez, halakoak antolatzen ditugu gurasoei eta lagunei ikasitakoa erakusteko".

Gainera, ikuskizun publikoak egiteko ere alokatu ahal izango da futbol zelaia.

Eskola orduetan eta kanpo

Eskola orduetan Larraña institutuak izango du zelaia erabiltzeko lehentasuna. Eskola orduetatik kanpo, berriz, 14 urtetik gorako edozein pertsona fisiko, kirol elkarte, eskola kirol edo kirol taldek erabili ahal izango dute. Urte sasoiaren arabera ordutegia aldatu egingo dute.

Larraña kiroldegia

Bestalde, Larraña institutuak dagoen pilotalekuaren kudeaketa Udalak egingo du aurrerantzean -orain arte institutuak bertan egin izan dute-. Bada, eskola orduetatik kanpo erabili gura dutenek Zubikoan egin beharko dute erreserba.

Fit-bike maratoia egingo dute apirilaren 20an kiroldegian

M.B. | OÑATI

Oñatiko Udalak, Zubikoa kiroldegia eta E-goitek enpresak hirugarren fit-bike maratoia antolatu dute apirilaren 20rako. Bi ordu eta erdiko saio trinkoa izango da, 10:30etik 13:00etara, eta zabalik dago izena emateko epea: interesatuek 943 71 63 75 telefonoan, zubikoa@oinati.net helbidean edo www.oinati.net atarian egin dezakete inskripzioa. Izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.

Lehentasuna, oñatiarrek

Hilaren 20koa hirugarren maratoia izango da, baina aldaketa nabarmena dauka aurrekoekin alderatuta: ez da maratoi erraldoia izango. Alegia, fit-bike ikastaroak ematen dituzten gelan egingo dute maratoia eta 35 lagunendako bizikletak egongo dira. "Kiroldegiko kantxan

egiteko beste herri batzuetako bizikletak ekarri behar genituen. Errazena eta merkeena gure bizikletekin egitea zela pentsatu genuen", esan digu Oskar Carrascalek, Kirol teknikariak.

Hori horrela, izena ematen duten lehen 35 lagunek izango dute lekua. Oñatin bizi eta fit-bike ikastaroetako erabiltzaileek izango dute lehentasuna. "Lekuren bat libre geratuko balitz, deialdi zabalagoa egingo genuke", dio Carrascalek.

Janaria eta edaria

Bi ordu eta erdiko spinning saioa egingo dute. Oraindik ez dute zehaztu zenbat irakasleren artean banatuko dituzten minutuak eta nola antolatuko duten maratoia. Parte-hartzaileendako janaria eta edaria egongo da fit-bike gelan.



Hainbat pertsona iazko fit-bike maratoian. | ZUBIKOA KIROLDEGIA

Bikoteka edo banaka egin daitezkeen Berdintxiketan lasterketarako izen-ematea zabalik dago

Muko Enpresagintza Fakultateak antolatzen duen Berdintxiketan lasterketa hilaren 26an jokatuko dute, 19:30ean. Berdintasunaren aldeko lasterketan bikote mistoek eta bakarkako korrikalariak parte har dezakete. Dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea: <https://sites.google.com/a/mondragon.edu/berdintxiketan/home> helbidean egin behar da.

Posets ingurueta mendiko eski zeharkaldia egingo du Aloñak hilaren 26-27ko aste bukaeran

Aloña Mendiko mendi sailak mendiko eski zeharkaldia egingo du hilaren 26-27ko aste bukaeran. Posets ingurueta joango dira. Interesatuek Aloña tabernan eman behar dute izena hilaren 23a baino lehen. Derrigorrezkoa da federatuta egotea. Bestalde, hilaren 21ean Bidarra-Hirubelasko-Amaiur mendi ibilaldia egingo dute. Bospasei ordukoa izango da, zailtasun bakoa. Izena emateko azken eguna hilaren 18a da (Aloña taberna).

Iaz Ionut Zinca egindako marka hobetzen ahaleginduko dira Aloñako Igoeran hilaren 21ean

Aloñako IX. Igoera egingo dute hilaren 21ean. Interesatuek www.herrikrosa.com atarian eman behar dute izena hilaren 19a baino lehen. Iazko proban ezarri zuen marka berria Ionut Zinca gasteztarrak: 1.11.34. Bestalde, egun berean egingo dute parapente lasterketa. Urriagain-Aloña-Belar ibilbidea korrika egin, eta ondoren parapentean jaitsiko dira Berezaora. Handik plazarako bidea, berriz, korrika egingo dute.

San Lorentzoko futbol zelaia probatzeko ate irekiak, hilaren 21era arte

Eskola orduetatik kanpo erabili ahal izango dute aurrez kiroldegian erreserba egiten dutenek

M.B. | OÑATI

San Lorentzoko futbol zelai berria probatu gura dutenek ate irekietan parte hartzeko aukera dute. Hilaren 21era arte han jokatzeko aukera egongo da. Interesatuek alde aurretik egin beharko dute erreserba, kiroldegian (943 71 63 75). Ate irekietako egunetan ezin izango dira aldagelak erabili.

Hilaren 22tik aurrera futbol zelaia erabili gura dutenek dago-

kien tasa ordaindu beharko dute. Tasa horiek zehazten dituen ordenantza ikusgai dago udal bulegoetan.

Ikuskizun publikoak ere bai

Era berean, ordenantza horretan zehazten dira zelaiaren alokairua eta erreserba nola egin; egutegia eta ordutegia; eta baita instalazioa gaizki erabiltzeagatik zehaztutako isunak ere.

Edukiontzi horiak eta urdinak mantendu egingo ditu Udalak

Gaikako hondakin bilketak izango dituen ezaugarriak azaldu zituzten atzo

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergaran hondakinak gaika biltzeko sistemak izango dituen berezitasunen berri emateko agerraldia egin zuten atzo, eguna, Bergarako Udaleko, Mankomunitateko eta Bagarako ordezkariak. Sistemaren ezaugarrietako batzuk erabakitzeke herritarrekin bilerak egin zituen Udalak martxoan zehar. "Bergaran inoiz izan den parte-hartze prozesu jendetsuena" izan da, Udalaren esanetan. Bada, martxoan egindako bileren emaitzak aztertu ostean hartutako erabakien berri eman zuten.



Udaleko, Mankomunitateko eta Bagarako ordezkariak atzo. | JULEN IRIONDO

Horia eta urdina mantendu

Hartutako erabakietako bat izan da ontzi arinak jasotzeko eta papera eta kartoia jasotzeko, edukiontzi urdina eta horia -gaur egun kalean daudenak- mantentzea. Parte-hartze prozesuko saio guztietan edukiontzi urdina mantentzea adostu zen. Ontzi arinei dagokienez, emaitza orokorrekin edukiontzi horia mantentzea eman dute, baina bi saiotan zintzilarioen aldeko apustua nagusitu zen eta beste batean bi puntugatik bakarrik gailendu zen edukiontzi urdina. Udaleko ordezkariak azaldu dute edukiontzi horiek mantentzeak "bergararrak erronka baten aurrean" jartzen dituela, baina "argi" daukatela "ondo egin" dezaaketela. Dena dela, azaldu dute hiru hilabeteko probaldia egingo dela: "Funtzionatuko ez balu, birziklapen datuak ez badira betetzen eta hondakinak nahastuta agertzen badira, beste zerbait pentsatu beharko da".

Esekitokietako bilketaren ordua izan zen bileretan bozkatu zen beste puntuetako bat. Udalak erabaki du uda eta neguan ordu-tegi bera mantentzea. Hala ere, egindako zazpi saioetatik 4tan desberdina izatea adostu zuten.

Ekarpenak bileretan

Udaleko ordezkariak azaldu zuten bestetik, prozesu parte-hartzailean, eztabaida, ekarpen eta zalantzen argipenerako luzatu diren puntuetan, askotariko gai eta iritziak

Bozketetako emaitzak

BILKETA ORDUTEGIA

	BOTOAK	
Negu eta uda, berdin	275	%56
Negu eta uda, ezberdin	210	%43
Beste	1	%0
Zuri	3	%1
GUZTIRA	489	

PAPERAREN BILKETA

	BOTOAK	
Edukiontziak	348	%71
Zintzilarioak	134	%27
Zuri	7	%1
GUZTIRA	489	

ONTZI ARINEN BILKETA

	BOTOAK	
Edukiontziak	265	%54
Zintzilarioak	215	%44
Zuri	9	%2
GUZTIRA	489	

atera direla: "Oro har kontsumo eredu eta ohiturekin lotutako ekarpen eta hausnarketak gailendu dira, gehienak Bergarako eta bere herritarrek izan ditzaketen

Saioetako parte-hartzea

EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	
Euskaraz			
227	134	361	%61
Gaztelaniaz			
151	79	230	%39
GUZTIRA			
378	213	591	

eskumenetatik urruti geratzen dira, baina norbanakoei egunerokoan hartu ditzaketen jarrera edo erabakiekin zerikusia izan dezakete".

Horrez guztiaz gain, hondakinak biltzeko sistemaren aplikazioa eta eguneroko praktika egokia izan dadin aplikatu daitezkeen neurri zuzentzaileen inguruan, Udalaren esanetan, "abisu sistema pedagogiko bat beharrezkoa dela adierazi da oro har". Gainera, "herritarrek sistemara ondo egokitu daitezkeen, eta sortu daitezkeen arazo eta zalantzen aurrean, mota honetako laguntza eta komunikazioa ezinbestekoa izango dela" nabarmendu da bileretan. Udalak emandako azalpenen arabera gainera, "herritarren iritzi muturreko egoeretan isunen sistema ez litzaiteke baztertuko, baina aurretik aipatutako bide eta lanketak ezinbestekoak dira".

7 saio, 591 lagun

Udalak zazpi bilera egin ditu martxoan zehar herria gunetan banatuta. Guztira 591 lagunek hartu dute parte. Adinari dagokionean 35 eta 65 urte arteko herritarrek izan dira gehienak -250 lagun-, 65 urtetik gorakoak 172 izan dira eta 35 urtetik beherakoak, 72.

Udaleko ordezkariak esanetan saioak "giro onean burutu dira, herritarrek errespetuz jardun dute, azalpenen tarteari zegokion garrantzia emanez, eta taldekako ekarpenen dinamikan modu aktiboan parte hartuz". Gaineratu dute "herritarrek informazioa modu zuzenean jasotzea eta erabakitzeke zeuden puntuetan bere iritzia eman eta erabaki ahal izatea asko eskertu" dutela.

Aurrez hartutako erabakiak

Agerraldian Udaleko ordezkariak gogora ekarri zuten parte-hartze saioen lehen zatian jadanik hartuta zeuden zenbait erabaki eta horiek hartzeko arrazoiak zeintzuk ziren azaldu zituztela. Hala nola, errefusa eta organikoa kubotan eta eseikitokietan batzea; beira, ehunak eta olioaren edukiontziak mantentzea; larrialdi gune bi jartzea, Labegarrietan eta Matxiategin; kaleko zakarrontziak gaika batzeko egokitzea; auzo konpostea egiten duten familiei %25eko deskontua aplikatzea hondakin inguruko tasan; eta eseikitokiako bilketa puntuen batzea 23:00etatik 06:00etara egitea.

%80 birziklatzeko borondatea

Udalaren apustua "gutxienez %75-80ko emaitzak emango dituen gaikako bilketa sistema ezartzea" da eta proposatzen duten sistemak birziklaia portzentaia "oso altuetan ahalbidetzen" duela esan dute. Azpiegitura garestiak, errausketa planta eta hondakin toxikoen zabortegia egitea galarazten duela ere gaineratu dute. Gobernu taldearentzat natura eta bere babesa "oinarrizko printzipioak dira" eta "birziklatzea ez da esku-bidea, herritar guztien betebeharrak baino".

Jardunek urteko batzarra egingo du gaur

A. BARRUSO | BERGARA

Jardun Euskara Elkartek urteko batzar orokorra egingo du gaur, egubakoitza, kultura etxean. Lehenengo deialdia 18:30ean izango da eta bigarrena, berriz, 19:00etan. Elkarteko bazkide guztiak daude deituta bileran parte hartzea.

Besteak beste, elkarteko zuzendaritzaren zati bat berrituko dute bileran; bi lagun irten eta beste bi kide berri sartuko dira. Lehendakari berria ere izendatuko dute. Hori horrela, Itsaso Mendizabalek utzi egingo du lehendakari kargua, zuzendaritzan jarraituko duen arren.

Horrez gainera, 2012an burututako proiektuen gaineko azalpenak emango dituzte eta 2013ko aurrekontua eta proiektuak aurkeztu.

Hondakin harira EAJren jarrera salatu du Sortuk

A. BARRUSO | BERGARA

Bergarako Sortuk prentsa ohar bidez gogor kritikatu dute EAJk gaiaren hondakin inguruan azaldutako jarrera: "Atez atekoaren aurkako dinamikaren buru EAJ ageri zaigu Gipuzkoako herri gehienetan, Garbia izeneko plataformen esku-tik". Sorturen hitzetan, hiru dira EAJren helburuak: "EH Bilduri egurra ematea, errauskailua egin eta negozioarekin jarraitzea eta benetako arazoak direnak hondakin gerarren ke-lainoetan ezkutzea".

Gaineratu dute EAJ agintean zenean, Ezker Abertzalea legez kanpo zegoela aprobetxatuz erabaki zutela errauskailua egitea: "Noiz galdetu zieten gipuzkoarrei errauskailua nahi duten edo ez?".



Leihoi isolatzaileak
PVC, aluminioa, beira, egurra

Aitor Zabaleta Agirre
Amillaga 5 behea
BERGARA

E-posta.: txipi@txipi.com
www.txipi.com

606 58 18 10 - www.txipi.com

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

GOIENA RENT

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIURUA

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ 20€-tik eguneko
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

943 71 66 52 / 619 44 71 75

goienarent@goienarent.com

WWW.GOIENARENT.COM



Berdegara ekimeneko kideak, martitzeneko agerraldian. | ARRITXU BARRUSO

Apirilaren 20an izango da Berdegara eguna

"Aldarrikapen koloretsua" izatea nahi dute

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Berdegara manifestua aurkeztu eta mosaikoa egin ostean, beste ekimen batekin dator orain Berdegara ekimena: Berdegara eguna ospatuko dute apirilaren 20ean,

datorren zapatuan.

Antolatzaileek eta Berdegara Ekimenarekin bat egin duten hainbat herritarrek agerraldia egin zuten martitzenean Irizar jauregian, Berdegara egunerako

antolatutako egitarauaren berri emateko eta herritarrei "lasaitasunerako eta konpromisorako" dei egiteko. "Normala da edozein aldaketaren aurrean ezinezona eta kezkek izatea, baina ziur gaudere herritarren parte-hartze sendoa lortzen bada hondakinen banaketa eta bilketa tasa garrantzitsuak lortuko direla. Atez ateko sistemak ez du organikoa banatzea baino eskatzen orain arteko sistemarekin alderatuta; beraz, oso praktikoa eta erraza da", adierazi zuten.

Errausketaren kontra

Murritztea, berrerabiltzea eta birziklatzea oinarri izango duen sistema "aurrerakoia" martxan jartzea nahi dute Berdegara ekimeneko kideek: "Gaika sailkatu eta %80 inguru birziklatzera irits daitekeen sistema. Errausketa bidergarria ez, eta ez beharrezkoa izateaz gain oso kaltegarria ere badela erakutsiko duen eredu. Errausketa baino osasungarriagoa, ekonomikoki bidergarriagoa eta ingurumenari dagokionez jasangarriagoa den ereduaren alde egiten dugu", azaldu zuten.

Hondakinen kudeaketaren inguruan Bergaran eta Gipuzkoan

EGITARAUA

UME ETA GAZTEEN GUNEA

IRALA KALEA

18:00-19:00

► Tailerrak eta jolasak.

► Ipuin kontalariak.

► Kale animazioa.

► Pankarta erraldoia.

ARTISTEN GUNEA

SAN MARTIN PLAZA

19:30-20:30

► Herriko margolariak.

► Bi erakusketa.

► Kale animazioa.

► Oihulari Klown.

GUNE NAGUSIA

MUNIBE PLAZA

20:30-22:00

► Amaierako ekitaldia.

► Parodia.

► Dantzariak.

► Kontzertua.

hartu diren zenbait neurri ere babestu zituzten, hala nola "erraus-tegiari ateak ixtea, zabortegei toxiko konbentzionalei amaiera ematea eta gaikako hondakin bilketa selektiboa egitea atez ateko sistema bidez".

Ekintzak hiru gunetan

Berdegara egunak hiru gune izango ditu: lehenengoa Irala kalean, ume eta gazteen gunea izango dena. Jarduneko begiraleek dinamizatutako tailerrak, umeentzako ipuinak eta kale animazioa egingo dira. Ospakizuna, gero, San Martin plazara eroango dute; hori artisten gunea izango da. Berdegara eguna Muni-ben amaituko da. Amaierako ekitaldia egingo dute bertan, 20:30ean, eta manifestua irakurririko dute. Ondoren, parodia bat egingo dute, antolatzaileen esanetan sorpresa bat izango duena, eta Bergarako dantzari batzuen emanaldiaren ostean kontzertua egingo da.

Hain zuzen ere, Berdegara egunarekin zabaldu nahi duten mezua honako hau da: *Murritztea, berrerabili, birziklatu. Osasunari eta ingurumenari zor diogulako: errausketarik ez.*

Asteburuan denetariko zapoak izango dira herriko plazan

Azoka gaur hasi eta domekara arte egongo da

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Dagoeneko tradizio bilakatu den muskuilu dastatzearekin hasiko da gaur, egubakoitza, 19:00etan Artisa eta Zaporeen azoka San Martin plazan. Gaur hasi eta domeka bitartean denetariko zapoak dastatzeko aukera izango da egunero herriko plazan 11:00etatik 14:30era eta 19:00etatik 22:00era. Aurten egun bat gutxiago izango du azokak eta eguenean hasi beharrean gaur hasiko da.

saltzaileak. Besteak beste, Extremadura eta Leongo odol-hestebeteak, Galiziako likoreak eta jakiak eta Argentinako produktuak erosteko aukera izango da. Gozozaleendako ere eskaintza zabala egongo dela iragarri dute antolatzaileek; Euskal Herriko postre eta tarta ugari egongo dira hainbat postutan.

Artisautza postuei dagokienean etxeko tresnak, naruzko artisautza eta denetariko osagarriak egongo dira ikusgai.

22 postu denera

Egun bat gutxiago izango duen arren, pasa den urtean baino lau postu gehiago egongo dira aurten San Martin plazan.

Janari eta edanari dagokienean jatorri ezberdinetako gutziak probatzeko aukera izango da. Euskal Herriatik bakarrik ez, Espainiatik ere etorriko dira

Olagarro saltzailea

Nola ez, Galiziatik etorritako olagarro saltzaileak ere ez du hutsik egingo aurtengo hitzordura. Izan ere, arrakasta handien izaten duen postuetako bat da. Gauetan 00:00ak arte egongo da zabalik olagarroa dastatu nahi duen orok gutzia honetaz disfruatzeko aukera izan dezan.



Aldeta taldeko kideak. | GOIENA

Aldeta taldeak diskoa aurkeztuko du gaur gauean Zabalotegin

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Talde donostiarrak bere lan berria aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 22:00etan, Zabalotegi Aretoan. Musika taldea donostiarra bada ere, kideetako bat bergarra da sortzez: Juanra Unamuno. Urte asko dira Donostian bizi dela, baina sorterrira etortzea, eta kontzertu bat ematera, gainera, beti da pozgarria. Haren hitzetan: "Herriko semea izanik beti da

plazera etxean kontzertua eskaintzea". Ez omen dago urduri. "Geuk dakiguna ahal dugun eta hoberen eginen saiatuko gara", dio.

Disko berriak *Txoriaren aberria* du izenburua eta urtarrean aurkeztu zuten jenduraren. Orduetik salmentak ondo joan direla esan digu: "Tiradaxo bat egin genuen eta gutxi batzuk geratzen dira. Zabalotegin salgai izango dira".


Mugarrien laugarren etapa egingo du Pol-Polek

Domekan, apirilak 14, Bergarako mugarren laugarren etapa egingo dute Pol-Pol mendi taldeko lagunek. Osintxutik Uberara doan zatia da laugarrena etapa. 08:00etara egin dute hitzordua frontoian eta irteera egun osokoa izango da. Antolatzaileek zehaztu dute zazpi ordu inguruko etapa izango dela.

Lokaletan lapurretak eginen ari direla salatu dute zenbait gaztek

Alkabetako lokal batean lapurretan egin zuten hilaren 4an. Gazteen esanetan, "ia dena eroan zuten". Haserre daude; haien hitzetan, "Bergarako hiruzpalau gazte daude lapurretaren atzean" eta beste lokal batzuetan ere egin dute lapurretan: "Ertzaintzak esan digu badakitela nortzuk diren, baina ezin dutela ezer egin".

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larranaga
San Pedro, 9 - Teléfono. 761051
R. S. I. 209374 - SS
BERGARA

Gaztetxeak gertu dauka 'Egubakoitzak kartzelan' kontzertu zikloa

Maiatzean lau emanaldi egongo dira eta aurten, gainera, aurkezpen jaia ere izango da apirilaren 26an

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gaztetxeako kideek prest dute dagoeneko *Egubakoitzak kartzelan*, gaztetxeako kanpoko agertokian maiatzeko egubakoitzetarako antolatu izan duten kontzertu lasaien zikloa. Laugarren edizioa da aurtengoa eta egitarau mardula prestatu dute: maiatzaren 3an, Okene Abrego eta Mariano Urtadok eta Buterflaik joko dute; 10ean, Iñigo Cabezafuegok eta Joseba B. Lenoir-ek; 24an, Ainara Legardonek eta Manettek; eta 31n, Morauk eta Aguxtin Alkhatek.

Antolatzaileak pozik daude aurreko hiru edizioetan izandako erantzunarekin: "Kartzela zaharreko atzeko patioa leku magiko bihurtu dugu guztion artean, gaztetxearen adin muga gaindituz eta belaunaldi eta kolore guztietako herritarrez gaubeila ospatuz". Hala, "kandelak, kafea, txokolatea, tonika eta lanpara estranbotikoak" ez direla falta izango aurreratu dute.

Kontzertuak 22:00etan hasiko dira eta sarrera hiru euro izango da. Bestalde, Txapa irratitik ere

emango dira zuzenean, FMko 97.2an eta www.txapairratia.org atarian. Aurten, gainera, aurkezpen jaia egingo dute hilaren 26an, *Bi bala* ikuskizunaren estreinako emanaldiarekin.

Horrez guztiaz gain, gaur, hilak 12, ere kontzertua izango da gaztetxean, 22:30ean. Zalla eta Balamasedako kideek osatutako Hil Aiari taldeak, Torrelavegako Guillotinak eta Oñatiko Hersturak egingo dute emanaldia.

Txapa irratiko kontzertua

Txapa irratia antolatzen dituen kontzertuen barruan, Samesugas eta Desastrozombies taldeek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, 22:30ean, gaztetxean.

Samesugas talde galiziarra 1999an sortu zen. Rock-and-roll eta garage estiloen nahasketa egiten dute, Eskandinaviako musika taldeen eraginarekin, eta galegoz eta ingelesez abesten dute. Desastrozombies hardcore punk taldeari dagokionez, berriz, Astrozombies taldearen errautsetatik sortutakoa da.



Begarako Orfeoia. | GOIENA

Euskal musikaren antologia bihar, orfeoiaren eskutik

M.B. | BERGARA

Begarako Orfeoiak Udaberriko kontzertua egingo du domekan, 19:00etan, Zabalotegin, Aitor Biainen zuzendaritzapean. *Euskal musikaren antologia* izenburupean, estilo askotariko kantuak abestuko ditu; zehazki, zazpi arlotan sailkatutakoak. *Agurra eta tradizioa* izenekoan, Jose Luis Antsoaren *Agurra*, Francisco Escuderoren *Izar Ederra*, Jose Juan Santestebaneren *Festara* eta Pablo Sorozabalen *Maite* abestuko dituzte. Musika erlijiosoari eskainitako tartean, Peñafiorida kondearen *Irten ezazu* eta Aita Madinaren *Aita Gurea* abestuko dituzte. Sehaska kantuei eskainitakoan, Jose Olaizolaren *Aurtxo polita* abes-

tuko dute. Dantzari eskainitako tartean, berriz, Javier Bustoren *Axuri Beltza* eta Jon Oñatibiaren *Aunitz urtez*. Eta *Euskal melodiak* izenekoan, Xabier Sarasolaren *Lau euskal abesti* eta *Lau euskal abesti II*, Josu Elberdinen *Ume eresiak*, Jose Maria Gonzalez Bastidaren *Saratarra* eta Alexander Lesbordesen *Kantuz*. Doinu nazionalistek ere izango dute lekua: Benjamin Zipriainen *Euskalerriko* abestuko dute; eta azken agurrean, berriz, *Agur jaunak* herrikoia.

Begarako Orfeoi Gazteak, Arkaitz Arana dantzariak, Mikel Ostolaza eta Loiola Madera txalapartariak eta Anabel Henao piano-joleak ere hartuko dute parte emanaldian.

Pazkoetako eta San Martzialako txosnak hartzeko deialdia

Pazkoetan San Martin plazan Udalak jarriko duen txosnaren ustiaketa esleitzeko baldintzak kaleratu ditu. Eskariak aurkezteko epea maiatzaren 3ko 12:00etan amaituko da eta idazkaritzan aurkeztu behar dira. San Martzialen erromeria egunean txosna eta kantina ustiatzeko baldintzak ere kaleratu ditu. Eskerak aurkezteko epea maiatzaren 15eko 12:00etan amaituko da eta idazkaritzan aurkeztu behar dira. Informazioa, www.bergara.net helbidean.

Mendekoekin laguntza teknikoa nola erabili irakatsiko dute

Nola erabili laguntza teknikoa mendekotasuna duten pertsonekin? ikastaroa antolatu dute Udaleko Gizarte Zerbitzuek. Hilaren 19an izango da, 14:30etik 17:00etara, Aitonetan, debalde. Oro har, adineko pertsonaren baten zaintzaile direnei zuzenduta dago eta, guztira, 15-20 pertsonak parte hartu ahal izango dute. Izena 943 77 91 65 telefono zenbakian eman daiteke edo ongizatea@bergara.net helbidean hilaren 15a aurretik.



San Juan auzoa 35 - BERGARA
Tel: 943 76 35 51 / 620 77 33 83
www.tartufobergara.com

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
06:30etik 17:00etara zabalik.
Eguneko menu ezin hobea.


ASTE BUKAERETAN, deitu eta erreserbatu

- Prezio askotariko menuak.
- Kintada, bazkariak-afariak.
- Bazkari edo afari familiarrak.
- Kontzertuak.
- Bataioak, jaunartzeak...
- Alokatu gure sala edozein ospakizunetarako. (agur-afariak, jai pribatuak...)

Giro ezin hobean.



DJ eta autobus zerbitzua dugu.



Gutxi barru hasiko dira Aretxabaletako 52 familia auzo-konposta egiten

Dagoeneko Txarapeko gunea egokituta dago eta konpostagailuak iristeko zain dago Udala

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako 52 familiak eman zuten izena auzo-konposta egiteko, eta Udalak Txarapean kokatu zuen gunea. Oraindik martxan ez egon arren, datozen asteotan den-dena prest izatea espero dutela adierazi du Anabel Diezek, Ingurumen teknikariak: "Gunea egokitzeko lanak bukatuta daude, konpostagailuak bakarrik falta dira".

Proiektu pilotua, gune bakarra

Hain zuzen ere, Debagoieneko beste hainbat herritan bezalaxe, Aretxabaletan ere konposta egiteko dei egin zuten Udalak herritarrei. Alde batetik, auto-konposta egitera animatu gura izan zituzten konpostagailua non ipini zeukatenak; baina gainera,

Txarapea, Iturrizar eta Lausitakaleetako bizilagunei ere dei egin zieten auzo-konposta egiteko izena eman zezaten.

"Behin gunea prestatuta, zortzi multzo ipiniko dira, bakoitzak lau edukiontzi izango ditu, 32 ontzi guztira". Ingurumen teknikariak gaineratu duenez, nahiz eta 52 familiak eman duten izena, 60k edukiko dute aukera auzo-konposta egiteko. "Gunea aurkezteko edukiontziak ipintzen direnean, izena eman dutenekin bilera egingo da, antolamendua zehazteko".

Gune gehiago aurreikusten duten galdetuta, "proiektu pilotua denez, bakarra izango da, oraingoz". Gerora, emaitzen arabera, "gehiago ipiniko dira, behar izanez gero".



Auzo-konposta egiteko gunea, Txarapean. | Z.V.D.M.

Txirrindularitza tailerra antolatu du Ibarak hilaren 19rako

Entrenamenduak, elikadura, ezagutu beharreko materialak eta beste izango dituzte hizpide. Hilaren 19an izango da, 17:30etik 20:30era. Abonatuak lehenetsuna izango dute. Izena emateko, Ibarra kiroldegira jo, info@ibarrakiroldegia.com helbidera idatzi edo 943 03 98 42 telefono zenbakira deitu.

'Amor' eta 'Kerity' filmak emango dituzte Zariaan asteburuan

Amor filmaren lau emanaldi eskainiko dituzte; gaur eta bihar 22:00etan, domekan 19:30ean eta astelehenean 16:00etan. Bestalde, hurrentzako Kerity animazio filma eskainiko dute bihar eta etzi, 17:00etan. Euskarazko saioak izango dira, etxeko gazteenei zuzenduta daudenak.

Nahia Agirre | Aretxabaletako Enplegu teknikaria

"Langabeak dagoen egitekorik gogorrena dauka, lana aurkitzea"

Udaleko Enplegu Bulegora gerturatzeko gonbita egin die herriko langabeei

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Oñatin bizi da Nahia Agirre, baina ondarrutarra da, eta 2012ko iraila ezker Aretxabaletako Enplegu teknikari gisa egiten du lan.

Nola ikusten duzu herriko egoera?

Krisia hasi zenetik, azken bost urteotan, langabezia-maila bikoiztu egin da Aretxabaletan. Datuek, gainera, ez dute beheranzko jorarik erakusten, epe laburrera, behintzat. Dena dela, udalerrri ezberdinekin alderatu dugu egoera eta esan gurako nuke ez dela daturik beltzena; argi utzi gura dugu hori. Noski, kezkarria denik ezin dugu ukatu.

Zer egin du Udalak egoera ikusita?

Langabeen kopuruak gora egin eta enpresa batzuk itxi zirela ikusita, Udalak egoerari aurre egiteko plana ipini zuen martxan duela pare bat urte. Lanbideren dirulaguntza baten bidez enplegu teknikari bat kontratatu zen; laguntza amaitu eta denbora batez hutsik egon da postua. Beharrak jarraitzen zuten, eta jende asko joaten zen udaletxera orientazio eske; hala, Udalak, kostua bere gain hartu eta lehiaketa bidezko hautaketa abiarazi zuen. Bestalde, enplegu plan propioari ere lehenetsuna eman dio Udalak.

Zeintzuk dira zure egitekoak?

Eginkizun ezberdinak ditut nire gain: informazio eta orientazio zerbitzua eskaintzea; herriko langabetuen datu-basea eguneratu eta ezagutzera ematea inguruko



Agirre, bulegoan. | Z.V.D.M.

"Kontratazioa bultzatzeko dirulaguntza eskaintzen dugu"

enpresetan-eta; bitartekaritza lana egitea lana eskaini nahi dutenei zuzenduta; prestakuntza ikastaroak antolatzea; autoenplegua bultzatzea (bi dirulaguntza ditugu). Herriko komertzioa indartzeko ekintzak ere eramateko baditugu; esate baterako, Aretxarterekin urtero hitzarmena sinatzen dugu eta merkatarientzako ikastaroak antolatzen saiatzen gara, besteak beste. Dirulaguntzak aipatu dituzu; zeintzuk dira horiek?

Enpresei zuzenduta, kontratazioa bultzatzeko dirulaguntza eskaintzen dugu batetik. Eta bestetik, enpresa ekimen berriak sustatzeko laguntza dago, hasierako finantzazioa errazteko.

Langabezia egon bitartean formazioa al da aukerarik onena?

Langabetuak dagoen egitekorik gogorrena dauka, lana aurkitzea. Egoera ez da aproposena, aukera oso gutxi daude, eskaintza gutxi eta eskaera asko baitago. Nire aholkua sekula amorrik ez ematea da. Ahalik eta toki gehienetan eman behar dugu izena, ate gehienak joz. Ez dira behar eguneko 24 orduak hori egiteko, eta denbora libre horretan ikastaroak egitea gomendatzen dut. Hala, egoera hobetzen denean pertsona hori prestatuago egongo da. Gauza berriak ikasteaz gainera, atearik irekiko dizkio eta egunean zehar zer egin edukiko du. Edozein zalantza edo laguntza behar izan ezker, Udaletxean gaude, zerbitzua emateko prestatuta.

Nolako proiektuak dituzte esku artean Udaletik?

Aztertzen ari gara ea Udalak dituen zenbait lokal bidera daitezkeen autoenplegurako. Norbaitek negozioa ireki gura badu, hasieran egin beharreko inbertsioa handia izaten da, lokala hartu behar delako-eta, eta horretan lagunduko litzateke. Bestalde, lehenengo sektorea indartzeko beste proiektu bat ere badarabilgu buruan.

Ikastaroa, hitzaldia eta txabolak egitera joateko irteera apirilean

Ikasteko eta ongi pasatzeko hiru hitzordu antolatu ditu Kuku Mikuk

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Kuku Mikuk apirilean hiru ekimen ezberdin eramango ditu aurrera; guztiak doakoak izango dira. Lehenengo hilaren 20an 10:30ean izango da; Meitai Maitie elkarrearen laguntzarekin, bi gai jorratuko dituzte tailer batean: batetik, ume eramaileen gainean egingo dute berba eta eramaile ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute parte hartzaileek, esate baterako.

Gainera, oihalezko pixoihailei buruz ere jardungo dute, eta telazko xurgatzaile edo botagarriekin erabiltzeko aukera dagoen fardel sistema berri baten nondik norakoak azalduko dituzte.

Hilaren 23an, berriz, Zer egiten dute hurreko psikomotrizitate gela? izeneko berbaldia eskainiko du Janire Jaio Isasik, 18:00etan hasita.



Kuku Mikuko kideak, lokalean. | JOSETXO ARANTZABAL

Txabolak egitera

Hirugarren hitzordua hilaren 27an izango da, eta, kasu horretan, familia giroan irteera egingo dute, bidegorriaren alboan dagoen baso batera, hain zuzen ere, txabolak

egiteko asmoz. Gura duten guztiek 11:00etan agertu beharko dute Kuku Mikuren lokalean.

Familia giroan, ikasteko zein ongi pasatzeko hiru hitzordu, beraz, apirilean.

Jou Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKO

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

'Prozak.eus' umore pilula ikuskizunaren estreinaldia

Murrukixori buruzko erakusketa eta Toti Martinez de Lezea, besteak beste, apirilean Aretxabaletan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Apirila aurrera doa eta Aretxabaletako kultura agendan ez da hitzaldi, ikuskizun eta antzerkirik falta izango hilabete osoan.

Besteak beste, Murrukixori mendizale elkartearen 25. urteurrena omentzeko erakusketa ireki zuten hil hasieran Arkupen eta apirilaren 30era arte bisitatu ahal izango da. Hain zuzen ere, 1987ko abenduaren 22an sortu zen Murrukixori eta urte hauetako argazkiak eta beste ikusi ahal izango dira bertan, esaterako.

Kooperatiba eta literatura

Gainera, hitzaldiak ere antolatu dituzte apirilera, eta askotariko gaiak jorratuko dira horietan, gainera. Hilaren 15ean, Coprecik antolatuta, Arizmendiarrietaren ondareaz egingo du berba Joaquin Aguado Castrok, 19:00etan, Zariaian.

Bestalde, idazle ezagun batek ere bisitatu du herria apirilean: Toti Martinez de Lezea Aretxabaletan.



Prozak.eus emanaldirako esketxa grabatzen. | LORAMENDI

baletara etorriko da hilaren 24an. Larrabetzun bizi den gasteiztarrrak *Baionatik Muskizeraino, 35 emakume, 35 istorio* liburuz egingo du berba, Zariaian, 19:00etan hasita.

Ipuinak eta musika

Maite Frankok ipuinak kontatzeko abilezia konpartituko du

hilaren 20an, *Isilka misilka, isiltasunaren zaindaria* izeneko emanaldian, 11:30ean hasita. Lau urtetik gorakoei zuzenduta, istorio laburrak kontatuko ditu, liburu, liburuzain eta liburutegiekin lotutakoak guztiak.

Hilaren 25ean, aldiz, herriko biolin-jotzaileen txanda izango da, Leizarra musika eskolakoei

emanaldia eskainiko baitute 18:00etan.

Herriarren hizkuntza ohiturez

Aretxabaletarrek aretxabaletarrei buruz eginiko lan baten jaiotza-aren testigu izango da Arkupe hilaren 20an; *Prozaka.eus* izeneko ikuskizuna eskainiko dute Zariaia aretoan. Hiru izango dira emanaldiak, hain zuzen, 17:00etan, 18:30ean eta 20:00etan.

Loramendi elkarteko Sustapen taldearen eskutik dator *Prozaka.eus*: "Aretxabaletarren hizkuntza ohituren inguruko ikuskizuna da. Kepa Errasti gidoigile eta aktorearen gidaritzapean, hogei-ta hamar bat herriarrek eginiko hainbat esketx umoretsu eta elkarrizketarekin gozatzeko aukera egongo da".

Prozaka.eus ikuskizuna doakoa izango den arren, sarrerak alde aurretik hartu beharko direla eman dute aditzera antolatzaileek. Interesatuak hilaren 20ra arte eskura ditzakete Arkupen bertan: "Hiru sarrera hartu ahal izango dira, gehienez, pertsona bakoitzeko".

Kultura etxera sarrera bila joaten direnek, gainera, euren telefono zenbakia eman beharko dute. Izan ere, Loramendiko Sustapen taldeak ikusleen balorazioa jaso nahi du: "Saioaren ondorengo astean ikusleen portzentaje bati ikuskizunaren inguruko iritzia eskatuko zaio".

Barre eta gogoeta egiteko aukera hilaren 20an.

Aretxabaletan oinarritutako 'Bertikal' jokoa aurkeztuko dute

Bertikal izeneko jokoa aurkeztuko dute apirilaren 22an Aretxabaletan. Sortzaileek ez dute datu handirik aurreratu gura izan, baina trebetasun jokoa dela eman dute aditzera. *Bertikal* aretxabaletar batzuek garatuta dago eta herria bera ardatz izango duela adierazi dute. Aurkezpena Pub Dadgan izango da, hilaren 22an, 19:00etan. Hogei minutu iraungo du aurkezpenak, eta ondoren, taberna itxi arte, %50eko deskontua egingo dute edari guztietan.

Rezola Hormigoiak duen museoa bisitatzeko irteera

Gaur joango dira Basotxo erretiratuen elkarteko kideak Añorgako Rezola Hormigoiak duen museoa bisitatzera. Aurreko egunetan elikadura eta kontsumo arduratsuen gainean elkarteak antolatutako ikastaroetan parte hartu dutenak joango dira Añorgako museora. Autobusa 09:30ean irtengo da Aretxabaletatik eta 13:30ean iritsiko da berriz ere herrira. Asmoa da Basotxoko bazkideek "ikastaroetan barnertutako ezagutzak egiaztatzea".

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Gurea

TABERNA

Lotoak eta
kinielak



Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



ORLY
TABERNA



*Giro berria dastatu,
eta Orly aukeratu!*

Herriko plaza 3 • ARETXABALETA

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



Etan eta dastatu gure pinxo goxo-goxuak aotebukaeretan

URBALTZ
taberna

Mitarte 19 - 20550
ARETXABALETA





Konpontzeko beharra du Arana eta Intxaurtxueta arteko errepide zatiak. | MIRIAN BITERI

Miloi bat egin du gora aurtengo aurrekontuak

Antzokiarekin lotutakoaz gain, beste lau inbertsio jarriko dira martxan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak iazko aurrekontuaren kitapena egin du, eta ia milioi bateko emaitza positiboa izan du. Horrekin eta hainbat espedienteren aldaketari esker, milioi pasatxo igotzen da aurtengo aurrekontua, eta, hasiera batean, inbertsioetarako bideratutako diru gehiena Zaldibar antzokirako baldin bazen, orain, Eskoriatza prozesu parte-hartzailetan aurreikusitako beste lau inbertsio ere egingo dira.

Batetik, Arana kaleko 2. zenbakitik Apotzagarako bidegurutzerainoko errepide zatiak asfaltatuko da. Proiektu horrek ia 100.000 euroko aurrekontua du. Bestetik, Azkoaga Enea hotel ondoan dagoen autobus geltokia Gorosarri plaza pareko espaloira eroango da. Lan horiek 11.000

euroko kostua dute. Hirugarrenik, Gaztañadui kaleko 11. eta 27. zenbakien arteko ur hornidura sareko hodi zatia aldatuko da. Horretarako 54.000 euro behar dira. Hiru inbertsio horiek proiektu bakar batean joango dira.

Aldi berean, eta aipatutako obra horiekin koordinatuta, erdialdea oinezkoendako jartzeko asmoa ere badu Udalak. Lan horiek Gaztañadui kaleko 11. zenbakidun eta Jose Aranako 2. zenbakidun etxebizitzak parean egingo dira. Proiektu horrek 30.000 euroko aurrekontua du.

Bestalde, Zaldibar antzokiarekin lotuta bi proiektu daude aurreikusita. Batetik, kanpoaldea urbanizatzea dago: eraikinaren ondoan beirazko sarbidea egingo da, eta osagarri moduan, antzoki parean dagoen espaloia eta aparkalekuak

berri urbanizatuko dira. Bestetik, barnealdea jantziko da. Proiektu eszenikoa osatzeko beharrezko ekipamendua eta altzariak jartzean datza inbertsio hori. Bi horietarako ia 200.000 euro behar dituzte.

Udatik udazkenera

Udalak dagoeneko inbertsio guztiak egiten hasteko datuak zehaztu ditu. Erdialdeko errepidearen konponketa, autobus geltokiaren leku aldatzea eta Gaztañadui ur hoditeriaren aldaketa hartuko dituen proiektua egiten dihardute orain; eta obrak udan egitea aurreikusten dute. Aldi berean, irailean Bolibarrerako bidegurutetik Azkoaga Enea hotelerainoko zatia oinezkoendako jartzeko asmoa dute. Zaldibarrri dagokionez, udazkenetarako lanen azken bi fasearekin hastea da helburua.

Bolibarrera irteera dago etzi, familia giroan

Animaliak ezagutzeko eta elizate eta herriaren arteko harremanak bultzatzeko balio du horrek

M.B. | ESKORIATZA

Bolibarko auzotarrak, Udalak eta Hezkuntza Foroak elkarlanean antolatuta, ezohiko irteera egingo dute domeka goizean Eskoriatzan. Familia giroan animaliak gertutik ezagutzeko aukera izango da. 10:30erako egin dute hitzordua plazan, Bolibarrera oinez igotzeko. Ordu-bete geroago, elizatean dituzten animalien familiak ikusgai egongo dira; besteak beste, ahuntz, ardi, behi, zaldi eta astoen familiak erakutsiko dituzte.

Txistulariek eta trikitilariak lagunduta, eguerdian tailerrak izango dituzte umeei: animaliak margotzeaz gain, gazta eta gatzatua egiten ere ikasiko dute horietan. Ekimen horietaz gain, Bolibarko eliza eta erretaularia, aspaldiko argazkiak eta bertako produktuak ikusteaz gain,

pintxoak jateko aukera ere izango dute bisitariek.

Bolibarkoek proposatuta

Eskoriatzako Gazteria teknikariak azaldu du irteera Bolibarko auzotarrek egindako proposamenari erantzuten diola. Horren harira, honakoa esan du: "bertako auzo alkatearengana animaliak ikustera joaten dira haur asko, animalia familiak ezagutzen ez dituztenak asko direlako. Horregatik, herriko haur guztiei erakusteko aukera eskaini ziguten eta ideia benetan ona iruditu zitzaigun". Ekintza horrek hainbat helburu ditu: Elizate eta herriaren arteko harremanak bultzatzea, haurrek animaliak ezagutzea, familian gozatzeko aisialdi ekintza antolatzea eta bertako produktuak bultzatzea.

Bidegorriko osasun parkeak ezagutzeko dituzte gaur, 18:00etan

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako I. Osasun Astea azken txanpan sartu da. Gaur, egubakoitza, egingo dute azken ekintza: 18:00etan, kiroldegiko sarreratik bidegorrirantz joango dira parte-hartzaileak, eta han dauden osasun parkeak ezagutu eta askotariko makinak erabiltzen ikasiko dute.

Orokorrean, harrera ona izan dute orain arte egindako ekimenek; bereziki, martitzen arratsaldean, zaharren egoitzan izandako saio praktikoak. Han bizi direnek gustura egin zituzten Josu Larreategik agindutako ariketak, eta etorkizunean,

jarduerak jarraipena izan dezala eskatu zuten. Horren harira, Kirol teknikari Rosa Lasagabasterrek honakoa izan du: "Agerian geratu da hor hutsunea dagoela; zerbait pentsatu behar dugu".

Informazio guneak ondo

Eguaztenean, Amaia Diaz de Monasteriogurenek ariketa, hidratazio eta elikadurari buruzko mezu "garbia" helarazi zuen, eta aholkuak eman zituen. Bestalde, aste osoan kiroldegian eta Huhezin jarritako informazio guneek ere erabiltzaile asko jaso dituzte.

OHARRAK

AKUARELEKIN MARGOTU

Gaur, akuarelekin margotuko dute ludotekan, 18:00etan.

ZZ BLUES BAND INKERNUN

Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik, ZZ Blues Band taldearen kontzertua dago gaur, 23:00etan, Inkernu tabernan.

GAZTELEKUA

Gaztelekuan, gaur, murala margotuko dute; bihar, txalaparta ikastaroa izango dute, eta etzi, oster, zinema.

TXIRIKILA ELKARTEA

Txirikila izeneko aisialdi elkarte berria sortzekotan dabilta herrian. Proiektuaren berri emateko batzarra dago bihar, 11:00etan, kultura etxean.

KIROL HITZORDUAK

Hiru lehia daude bihar kiroldegian: 10:30ean, kadeteen saskibaloia partidua dago, Arizmendi-Eskoriatza eta Añorga artean; 16:00etan, Eusko Ligako areto futboleko, etxeok Kurutzia-garen aurka lehiatuko dira; eta 18:00etan, saskibaloiko seniorrak Cafes Aitona B taldekoekin.

DORLETAKO AMA


Dorletako Ama txirrindulari eskolaren lasterketa dago bihar, 16:30ean.

KANAPE TEATRO

Lanean dihardu Kanape Teatrok. Dagoeneko obrak gertatzen hasi badira ere, oraindik proiektuan izena eman daiteke teatrokanape@gmail.com postan.

Erreken erakusketa bisita daiteke Ibarraundin

Euskal Herriko ibaietako biodibertsitateari buruzko erakusketa jarri dute asteon Ibarraundin; hain justu, erreka, laku eta hezeguneak ezagutzeko eta ikertzeko aukera ematen du horrek. Martitzenera arte egongo da ikusgai, astegunetan, 09:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



MIRIAN BITERI

Zaintzaileei zuzendutako ikastaroa hil honetan

Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileei zuzendutako saioak dira

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Gaur egun geroz eta gehiago dira mendekotasun egoeran dauden pertsonak eta herritar askok pertsona hauen zaintzan ordu asko igarotzen dituzte. Horrela, bada, pertsona horiei zuzenduriko ikastaroa antolatu du Udalak.

Apirilaren 22an eta 29an eta maiatzaren 6an, 15ean eta 20an izango dira eta hainbat alor landuko dituzte bertan: juridikoa, medikua, psikologikoa, laguntza teknikoa eta gizarte zerbitzuak. Izena emateko azken eguna datoren apirilaren 17a izango da. Apuntatzeko, Torresoroara edo udaletxera joan beharko dute interesatuek.

Ikastaroa bost egunean izango da eta egun bakoitzean, bi orduz, 15:00etatik 17:00etara, gai bat jorratuko da; hala, apirilaren

22an Nagore Vazquezen eskutik osasun alderdia, erizaintza eta laguntza teknikoak jorratuko dira. Hala, eguneroko bizitzan egiten den oinarrizko zaintza, hau da, elikaduraz, higieñez, desplazamenduz eta beste hainbat kontuz arituko da Nagore Vazquez, baita oinarrizko zaintza eta lehen sorospenen inguruan ere.

Apirilaren 29an, aldiz, Antzuolako Gizarte Zeritzuen eskutik *Babes-baliabideak eta sozialak*

Zaintzaileek argi izan behar dituzten gaiak jorratuko dira lau saiotan

gaia jorratuko da. Kasu honetan, hurbileneko ingurunean baliabide eta zerbitzuak, gizarte zerbitzuak eta osasun zerbitzuak zeintzuk diren argituko dute.

Maiatzean beste hiru saio izango dira, 6an, 15ean eta 22an. Maiatzaren 6an lege eta etika alderdiak landuko dira Olaia Aranaren eskutik eta 15ean, laguntza produktuen inguruko informazioa jasoko dute bertaratutakoek Amaia Bareari esker. 22an, aldiz, Karmen Gurrutzagaren eskutik babes psikologikoa- ren inguruan hitz egingo dute.

Maiatzeko saio hauetan, hortaz, zaintza eta norbere zaintza, dolua, autoestimua indartzea, emozio-kaltetzearen saihepena, erlaxazio eta kontrol mentala eta beste hainbat sentipen lantzen ikasiko dute bertaratutakoek.

NIRE USTEZ

ANTONIO DEOGRACIAS



Zorioneko eromena

Bizitza zoragarria dela jakiten du langileak erretiroa heltzen zaionean. Betiere, baldintza onetan bada! Nik zorte hori izan nuen. 57 urterekin laga nuen lana, 43 urtez kotizatuta; 60rekin jubilatze-ko modua, beraz.

Patronalaren usteko oparia ez zen izan *guapoa* naizelako, jakina. Gainerako langileen gutxi- nakako kaleratzearen hasiera izan baitzen, enpresa itxi zuten arte. Bizitzak, tarteka, sopsresa atseginak ematen dizkizu: une egokian nengoen behar zenean. Beste lankide batzuek ez zuten zorte bera izan. Eta, daukagun panoramarekin, nago ez dutela erretiro duina kobratzerik izan-

go (ezta nik moduan %80 ere). Goizero pozik jaikitzen naiz orain. Lana laga eta hurrengo egunean bertan bota egin nuen iratzargailua.

Milioiduna izaten amesten duten horietakoa ez naiz. Maila pertsonalean aberatsa naiz eta horixe da garrantzitsuena, nire ustez. Horregatik abesten dut noan lekura noala ere. Batzuek sorpresa aurpegia jartzen dute eta beste batzuek zoraturata nagoe- la uste dute. Orduan zera diotset: Zorioneko eromena!

"Bizi eta utzi bizitzen" esaten zen gaztea nintzela, eta eskerrak ematen ditut espiritu horri eutsi diodalako. Horretarako, ahalik eta bizkorren jubilatuta beharra dago, dirua galtzen bada ere. Korrika egin ezean, hanketan geratzen da, edozer egiteko.

"Bizitzak, tarteka, sopsresa atseginak ematen dizkizu"

Heriotza hizpide izango duen hitzaldia hil amaieran

A.E | ANTZUOLA

Herri Eskolako Kontseiluak antolatuta, datorren apirilaren 26an heriotzaren inguruko hitzaldia izango da Eskolan. Eskolan aski ezaguna den Patxi Izagirrek egingo du hitzaldia, aspaldi egin zuen bezalaxe. Patxi Izagirre psikologoa eta psikoterapeuta da, eta heriotzaren aurrean sortzen diren egoerak lantzen laguntzen esperientzia handia dauka.

Azken ikasturteetan guraso gazteak hil dira herrian, eta, heriotzaren gaia ez denez jorratzeko gai erraza izaten, ikuspegi eta bizipen desberdinak ezagutzeko aukera izango da. Herritar orori zabal- dutako hitzaldia da, guztion- tzat mesedegarria delako.

'Bertso klown' saioko final nagusia Torresoroan domeka honetan

Domeka honetan bertsoak eta *klown*-a uztartzen dituen ekitaldiaz gozatzeko aukera izango da Torresoroan, arratsaldeko zazpietan hasita. *Bertso klown* saio horretan, Iñaki Gurrutzagak, Iñigo Izagirrek eta Jokin Urangak bertsoak botako dituzte eta Andoni Egaña Oihulari Klowneko taldekideak egingo ditu *klown* lanak. Final nagusia izango da domekakoa; hortaz, bertsolarien arteko lehiakortasuna, barre algarak eta dibertimendua izango dira nagusi. Duela hilabete batzuk Bergara izan zen halako beste saio bat, parte hartzaile berdinekin, gainera.



Kalebarrenko lanak aste honetan. ARGAZKIA: ANE ETXEBERRIA

Kalebarrenko irisgarritasun lanek errepide mozketara eragin dute asteon

Irisgarritasun planaren barruan hainbat lan egiten ari dira herrian, eta Kalebarren da lanok bizi izaten ari den kaleetako bat. Hainbat astean lan ezberdinak egin badira ere, asteon egin diren lanek errepide mozketara eragin dute ondorio; hala, ez da soilik Arin taberna paretik Larrea tabernaraino errepidea moz- tuta egon, baizik eta zubitik bertatik izan da itxita. Horren ondorioz, plazara joateko aukerarik ez da izan. Espalioa konpon- tzeaz gain, bidea ere konpondu dute.

Uda honetako udalekueetan parte hartzeko izen-emate epea astelehenean irekiko dute

Udalekueetan parte hartu nahi duten umeek astelehenean aurre- ra (hilak 15) izena emateko aukera izango dute. Bete beharreko orria eskolan banatuko dute, baina nahi duen orok *on line* ere lor dezake orria Udaleko webgunean sartuta. Gainera, neska- mutilez gain, udalekueetan begirale lanetan jardun nahi duten guztiek ere izena eman beharko dute apirilaren 15etik 26ra bitartean www.antzuola.com webgunearen bitartez. Informazio gehiagorako, ez izan zalantzarik eta gerturatu udaletxera edo kontsultatu sarean.

Landatxoeko erretiratuek txangoa egingo dute Bizkaiko kostaldera

Landatxo Antzuolako Erretiratuen Elkarteak Bizkaia irtee- ra antolatu du datorren apirilaren 17rako. Bizkaiko kostaldeko Plentzia herria ezagutzera joango dira. Antzuolatik goizeko bederatzietan irtengo dira eta egun osoko plan ederra izango dute; izan ere, goizean Plentziara joango dira, eta, hamarretako goxoa egin eta bisita gidatua izan ostean, Montenegro jatetxean bazkalduko dute. Arratsaldean, aldiz, Areetara abiatuko dira, eta bertan paseatu eta inguruaz gozatzeko aukera izango dute. Dagoeneko ez dago txangoan apuntatzeko aukerarik.

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34



Zapaturu elkartzaren den mintzalagunen taldea, udaletxeko arkupeetan. | ROSA MONDRAGON

Mintzalagunen beste talde bat osatzeko dei egin du Udalak

Interesa duenak udaletxean eman behar du izena, apirilaren 20a baino lehen

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Aramaion badago mintzalagun talde bat zapaturu elkartzaren dena, euskara maila ezberdina duten herritarren artean euskaraz egiteko. Zortzi emakumek osatzen dute eta 2011-2012 ikasturtean hasi ziren elkartzan: "Lagun koadrila bat moduan funtzionatzen dute, taldea oso definituta dago. Astero ez dira guztiak elkartzan baina konpromisoa hartu dute elkartzan jarraitzeko", adierazi du Rosa Mondragon Udako euskara teknikariak.

Ez hori bakarrik, mintzalagun taldeko kideen arteko elkarriketa guztiak euskaraz egitea lortu dute: "Taldea eratu aurretik euren

arteak ezagutzen ziren, guztiak herrikoak direlako. Baina zapaturu elkartzaren direnetik hizkuntza ohitura aldatzea lortu dutela esan digute. Orain beti egiten dute euskaraz eta hori lorpen handia da", dio Mondragonek. Gainera, taldean erabiltzen dakien kide bat dagoenez, hika praktikatzan ere hasi dira.

Udalak, "erraztasun guztiak"

Talde berria eratzeko ideia zenbait eskaera jaso ostean bururatu zitzaion euskara teknikariari: "Bi gizonetako etorri zaizkigu ea euskara praktikatzeko aukerarik dagoen galdetzeraz eta horregatik deialdi berri bat egitea erabaki

dugu. Erraztasun guztiak emango ditugu talde berria eratzeko". 40 eta 50 urte arteko gizonetako dira; lehenak ume txikia duenez euskaraz ondo egiten ikasi gura du eta bestea, berriz, negozio berri bat irekitzeko asmoz dabilenez euskara jakitea ezinbestekoa dela uste du. Interesa duenak udaletxean eman behar du izena apirilaren 20a baino lehen.

Bestalde, ikasturte hasieratik martxan dagoen alfabetatzerako euskara ikastaroa martxa onean doa. Zazpi ikasle daude egun eta astelehen zein eguaztenetan elkartzan dira udaletxean, 17:00etatik 19:00etara. Jon Azkoaga arrasatearra dabil irakasle lanetan.

Liburuaren Eguna dela-eta hainbat ekintza egingo dira

J.B. | ARAMAIO

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna dela ospatzeko, Udalak, liburutegiak eta Txirritolak hainbat ekintza antolatu dituzte. Hilaren 19an, 2008an haur eta gazte literatura atalean Euskadi Literatura Saria irabazi zuen Pello Añorga idazleak hurrendako *Kontu zahar eta berriak* izeneko saioa eskainiko du liburutegian, 18:00etan. Apirilaren 26an, berriz, Txirritolaren ipuin lehiaketako sari banaketa egingo da; sariak banatu aurretik Jakin eta Jolas taldearen *Jolas eta zilarrezko txartela* antzezlanaren ikusteko aukera egongo da. 18:00etan izango da, Kultur etxean. Amaizteko, maiatzaren 17an Pello Añorga bueltan etorriko da Kultur etxera (22:30), Lakrikun taldearen *Prest gaude* obrarekin batera.



Pello Añorgaren saio bat. | GOIENA

ARETO FUTBOLA

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Colegio San Prudencio Bat	50	20
2 Izar Gorri	43	20
3 C.D. Lagran	43	20
4 Aramaio	41	20
5 Autoescuela Gasteiz	30	20
6 BarUriarte	28	20
7 Alavesa Maquinaria	22	20
8 Bar La Paloma	19	20
9 Arizmendi	19	20
10 Bar Copo	18	20
11 C.D. River	15	20
12 Orlegi	13	20

EMAITZA

Aramaio 7-4 Bar Copo

PARTIDUAK

HILAK 14, DOMEKA

12:00 Autoescuela Gasteiz - Aramaio

Bigarren posturako borrokan oraindik

Aramaio aukerak ditu oraindik Ohorezko Mailara igotzeko aukera eskaintzen duen bigarren postua lortzeko. Jarraian lortutako azken hiru garaipenek konfiantza eman diote taldeari: "Ondo heldu gara denboraldi amaierara. Taldea eginda dago, aurkitu dugu gure estiloa. Bilakaera ona izan du taldeak, trebetasunean irabazi dugu", adierazi du Andoni Elejalde taldeko koordinatzaileak. Bi partidu geratzen dira denboraldia amaitzeko eta besteek huts egitea beharko dute mailaz igotzeko. Emoziorik ez da falta izango.



Kanto-ren lantokian, Fagor Garagartzan, egindako azken protesta. | HERRIRA

'Kanto'-ren egoera salatu eta mobilizazioen berri emateko agerraldia apirilaren 17an

J.B. | ARAMAIO
Aramaio eta Bergarako Herri mugimenduek Luis Mari Azkargorta *Kanto* euskal preso aramioarraren egoera salatu eta antolatuko dituzten mobilizazioen berri emateko agerraldia egingo dute apirilaren 17an Sastiñan (19:00): "Egitarau sendoa antolatu dugu Bergarako eta Aramaio Herri mugimenduko kideok, bi herrietako hainbat talde eta eragileren laguntzarekin", diote.

Azkargortaren inguruan eginiko elkarrizketa bidezko bideo labur baten aurkezpena ere egingo dute hilaren 17ko agerraldian.

25 urte beteko ditu espetxean Kanto 1988ko apirilaren 22an atxilotu zuten, eta ordutik Espainiako hainbat espetxetatik pasatu da. Egun, Zuerako (Zaragoza) espetxean dago. 197/2006 doktrina ezarri zioten eta 2018ra arte luzatu diote kondena.

Alde zaharreko plan berezia landuko dute apirilaren 17an

Ibarrako alde zaharreko plan bereziaren gainean -PERI-herritarren iritzia eta ekarpenak jasotzeko bilera irekia egingo dute hilaren 17an udaletxeko osoko bilkuren aretoan (19:00). Plan bereziaren helburuen, orain arte egin den lanaren eta aurrerantzean egin beharreko urratsen berri edukitzeko aukera izango dute herritarrek.

Zuiako Koadrilako pilota topaketa egingo dute domekan

Zuiako Koadrilako pilota topaketa Aramaio kiroldegian jokatu da domeka honetan. Goizean zehar jokatuko dira partiduak, 10:00etatik 13:00etara. Haurrak izango dira protagonista, pre-benjamin mailatik infantil mailara arte. Topaketa boro-biltzeko lunch ederra egingo dute.



AGUSTIN OIANGUREN

Laugarren, Euskadiko Zirkuituan

Apirilaren 7an, Bergarako Hanka Labanka patinatzaile taldean diharduten hiru aramioarrek hartu zuten parte Aranda de Dueron jokatutako Euskadiko Zirkuituko txapelketan: Ainhoa Oianguren eta Oihan Bideburuk junior mailan eta Agustin Oianguren Master 40 mailan. Nahiz eta eguraldiak lagundu ez, giro paregabea sortu zen txapelketan. Laugarren amaitu zuten, taldekako modalitatean.

ELGETA

35 neska-mutiko euskal dantzen ikastaroaren hasierako saioan

Karate eta trikiti ikasleek ere emanaldi ezberdinak prestatzen dihardute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Itxaropentsu egoteko motiborik badagoela dirudi, eguazteneko bi saioetara hurbildu zen neska-mutiko kopurua ikusita. Udalak antolatu duen euskal dantzen ikastaroaren hasierako saioak ziren, eta kiroldegiko gimnasioan egin zieten harrera umeei Irati Kortabitartek eta Xabat Leanizbarrutiak.

Asmoa da bi talde egitea: bata, 2005. urtetik 2008ra bitartean jaiotakoekin; eta bestea, 2001etik 2004ra jaiotakoekin. Saioak ere ordutegi ezberdinean egingo dituzte: txikiena 18:15etik 19:00etara, eta nagusia 19:00etatik 20:00etara.

Txikien taldeak izan du, oraingoz, harrera hobea: 22 lagun gerturatu ziren lehenengo dantza saioa egitera, 13 neska eta bederatzi mutil. Nagusien saiora 13 lagun aurkeztu ziren, neskak hor ere gehiengoa.

Ikastaroak hurrengo astean izango du jarraipena, eta eskolako ikasturte amaierara arte luzatuko da. Zentzu horretan antolatzaileek jakinarazi dute oraindik ere aukera dagoela izena emateko. Interesatuak udaltxerara jo behar dute. Ikastaroaren



Irati Kortabitarte eta Xabat Leanizbarrutia, lehen saioa gidatzen. | L.Z.

prezioa 12 euro da. Irakasleek ikusten badute epe horrek dantzaren bat edo beste prestatzeko aukera eman duela, akaso umeen dantza emanaldia izango dugu aurten Ferixa Nagusiko jailetan.

Karate erakustaldia

Aste bukaera honetan jendaurreko erakustaldia egingo dutenak Elgetako karate ikasleak dira. Bailarako beste karateka batzuekin batera bihar, zapatua, Oñatiko Zubikoan 16:30ean hasita

egingo den jardunaldi berezian parte hartuko dute.

Trikitixa Eguna

Eta emanaldia prestatzen dihardutenak ere Elgetako Trikitixa Eskolako ikasleak dira. Apirilaren 20an Debagoieneko IX. Trikitixa Eguna ospatuko da Elgetan, eta, Adolfo Jainaga irakasleak adierazi duenez, eskolako ikasle izan diren guztiak daude parte hartzera gonbidatuta. Oraingoz dozena bat lagun animatu direla adierazi du Jainagak.

45 lagunek eman zuten odola martitzenean

Pozik daude Elgetako arduradunak. Abenduko odol-ate-erazteetan baino sei lagunek gehiagok eman zuten odola martitzenean. Egin berria duten 2012ko balantzea ere ona da; bederatzi odol-emaile berri lortu ziren iaz. "Oso pozik gaude", esan du Maria Asun Agirrek. "Jende nahiko gaztea da gainera, eta oso ona da hori", adierazi du.

Kantsatzekek irteera egingo du hilaren 21ean Tologorrira

Aialako bailarara antolatu du Elgetako mendi taldeak hurrengo irteera. Hilaren 21ean, domeka, egin dute. Lendoño herrian emango diote hasiera lauzpabost orduko irteerari. Zabalik dago izena emateko aukera. Prezioa 10 euro da. Argibide gehiago behar izanez gero: kantsatzeke@gmail.com edo www.facebook.com/kantsatzeke.

Elgetarrek ondo hasi dute Gipuzkoako hiru txirlo txapelketa

Bi jardunaldi jokatu dira, eta 35 txirlo jota taldekako lehen postuari eusten dio Elgeta A taldeak. Banakako sailkapenean Sebas Arantzabal hiru garren postuan da, bederatzi txirlo jota. Gogoratu behar da txapelketako zazpigarren jardunaldia Elgetan jokatu dela; maiatzaren 11n izango da, 17:00etan.

OHARRAK

ANTZERKIA ESPALOIAN

Gorka Otxoak eta Carla Hidakok *Para lo que hay que vivir mejor no morir se nunca* komedia aurkeztuko dute gaur, barikua, 22:30ean.

'MALKO GORRIAK'

Intxorta 76 urte egitasmoaren barruan *Malko Gorriak* dokumentala emango dute egue-nean, 19:00etan, Espaloian.



Eskola ondoko lanak egun. | L.Z.

Positiboan itxi du 2012a Elgetako Udalak

L.Z. | ELGETA

Elgetako udalbatzak martxo-ko osoko bilkuran aztertu zuen 2012ko likidazioa. Bestela esanda, Udalaren iazko balantze ekonomikoa. Positiboan itxi du Udalak 2012a: alkateak azaldu duenez 52.198,87 euroko soberakinarekin.

Urte osorako 1.906.161,51 euroko aurrekontua onartu zuen udalbatzak, baina ekitaldi amaieran kopurua 2.406.842,51 eurokoa izan da. "Igoera horren aldaketa nagusia da hainbat dirulaguntza lortu direla, tartean eskola ondoan martxan dauden lanak finantzatzeko", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak.

Gerakina 2013rako

Aldundia Udalen zorpetze mailaren jarraipena egiten ari da. Elgetako Udalaren likidazio espedienteak jasotzen duenez gerakina 38.140,38 eurokoa da. Erostarbek argitu du kopuru horren barruan dagoela langileei ordaindu ez zaien Gabonetako ordainsaria: 14.345,64 euro, hain zuzen ere. "Abenduko ordainsaria ordaintzea balego, erabili ahal izango da", jasotzen du likidazio espedienteak. "Elgetako Udalak ondo egin ditu etxeko lanak", esan du alkateak, eta soberakina gastu arruntari edo inbertsioei aurre egiteko erabil dezakegu". Soberakin garbia 37.853,23 eurokoa da.

IX. Magia Mostra gertu dute Espaloian

L.Z. | ELGETA

Espaloia kafe antzokiak egunotan kaleratu du hurrengo hiru hilabeko egitaraua. Udaberriaren magia hartu ohi du protagonismo nagusia Elgetako kafe antzokian, eta aurten ere nazioarteko artistak elkartuko ditu Magia Mostrak. Dani DaOrtiz handiak irekiko du hiru eguneko magialdia, eta hura izango da zapatuko magia galako aurkezlea. Gala horretan izango dira, baita ere, Luis Boyano (Galizia), Ta Na Manga (Portugal), Mario Lopez (Girona), Pilou (Frantzia) eta Edama (Errioxa).

Berrikuntzak herriko plazan kokatuko den karpa batean egingo diren umeendako tailerrak



Pilou mago frantziarra. | ZAKARY BELAMI

eta *Katia gorputzik gabeko emakumea* ikuskizuna izango dira.

Magiaz gain, hiruhileko honetan Espaloian izango dira Mikel Urdangarin —apirilak 19—, Irrien

Lagunak taldekoak —apirilak 21—, Bizardunak taldea Berria ziztada ekimenaren barruan —maiatzak 25—, eta 12 tribu eta Akatz taldeak —ekainak 15—.

da bulegoan, bertara doazen herritarrei eskatzen duten informazioa ematen.

Obrak eta ikastaroak

Bestalde, hondakinak batzeko ekarpen guneen egokitzapen obrak hastear daude. Juan Luis Zabala Ingurumen eta Zerbitzueta zinegotziak jakinarazitakoaren arabera, ondo bidean, datorren astean adjudikatuko dituzte lanok, eta bizpahiru aste barru obrak egiten hasiko dira. Izan ere, asmoa da uda parterako erabiltzeko

moduan izatea Leintz Gatzagako ekarpen gune guztiak.

Herritarrei eskaini gura dizkieten ikastaroei dagokienez, berriz, haiek ere badute data: maiatza. Hasiara aldera gura dituzte, gainera, abiarazi. Baina hori oraindik zehazteke dute. Datok zehazten dituztenean, behar besteko publikitatea emango diote gaiari, izan ere, zinegotziaren esanetan, "espero dut herri guztia etortzea". Ikastaroak bukatu eta gero hasiko dira kuboak eta giltzak banatzen.

Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea, bukatzear

Apirilaren amaieran bukatuko da trakzio mekanikodun ibilgailuei dagokien aurtengo zerga ordaintzeko epea. Bi modutan egin daiteke ordaintzea: udal bulegoetara joanda edo norberaren kontu korrontearen bitartez, Udalarai alde aurretik emanda. Zerga garaiz ordaindu ezean, gainkargua ezarriko diote.

LEINTZ GATZAGA

Hondakinen bilketa selektiboari buruzko bulegoa, astero

UBANE MADERA | GATZAGA

Udalerrian hondakinen bilketa-ekin egin behar diren aldaketak direla-eta, bulego informatiboa abiaraziko dute datorren eguaztenean, hilaren 17an. Hondakinen bilketa selektiboari berari buruz, auzokonpostari buruz, autokonpostari buruz eta gaiarekin lotura duen edozeren gaineko zalan-

tzak argitu eta informazioa emateko abiaraziko dute zerbitzu hori.

Hori egiteko, 09:00etatik 15:00ak arte gizarte zerbitzueta-rako erabiltzen den bulegoa (beheko solairukoa) zabalduko dute, datorren astean hasita, eguazteno. Eta Debagoieneko Mankomunitateko teknikari bat izango

KENPOA

Galiziara, kenpo borrokaldira

- ▶ Espainiako Kenpo Txapelketa jokatuko dute bihar, zapatua, Vilagarcia de Arousan
- ▶ Debagoieneko zazpi borrokalaria lehiatzera joango dira eta beste hiru epaile, lanak egitera

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Debagoieneko kenpo arteetako zazpi borrokalarik kilometro mordoaxka egingo dute asteburuan, Galiziaraino joango dira -eta Espainiako Txapelketan parte hartzera. Eta eurekin batera, epaile lanak egitera joango dira beste hiru lagun: "Espainia mailan kenpo eskola mordoaxka dago eta nik uste dut borroka egiteko asmoaz 100 lagun baino gehiago batuko direla Galizian", diosku Arrasateko Zigorrola auzoan kenpoan jarduten duen Iker Letonak: "Debagoienetik zazpi lagun doaz eta Euskal Herritik gu eta Kenpo Kai taldekoak joango gara".

Hura ez da lehiatuko, epaile lanetan ibiliko da buru-belarri lanean, baina anaia, Josu Letona, tapiz gainean izango da: "Ez dakit zenbat arriskatu den, apirilaren 25ean Munduko Txapelketara doalako, eta pena izango litzateke hitzordu horren aurretik min hartzea. Ni kontuz ibiliko nintzateke, baina anaia ezagutzen dut eta oso lehiakorra da, ez zaio gustatzen galtzea; hortaz...", diosku, barrez.

Garbi jokatzea, arau

Kenpoa ez da borroka artean fisikoki gogorrena, baina, edozein kirol jardueratan moduan, txapelketatan posible da min hartzea. Borrokaldietan garbi jokatu behar da, araua da hori. Hala, txapelketen barruan aurrez aurreko borroka, defentsa pertsonala eta katak -mugimenduak- bereizten dira, eta aurrez aurrekoetan ez da askorik behar kolpe bat hartzeko: "Kontrarioa-



Borrokalaria bi, iaz Eskoriatzan egin zuten kenpo txapelketan. | GOIENA

ren aurrean puntua markatzeko kontaktu fisikoa egoten da. Helburua ez da min ematea, kontrarioaren gorputzaren atal batera iristea da asmoa, baina bai, batzuetan ihes egiten dute kolpeek, eta, neurri handian, epailearen esku ere egoten da borrokaldiaren gogortasuna; kolpeak onartzen

badabil, eta borrokalariai berotu egiten badira...".

Hainbat helburu

Letonak onartu digu txapelketara doazen artean borrokalariaiek helburu ezberdinak dituztela: "Gehienak esperientzia berri bat bizitzera doaz, txapelketak zela-

BORROKALARIAK

PARTE HARTZERA

Alberto Narro	Arrasate
David Sinisterra	Arrasate
Jose Luis Maqueda	Aretxabaleta
Josu Letona	Arrasate
Karla Zabala	Aretxabaleta
'Pala'	Oñati
Ruben Alonso	Arrasate

EPAILE LANETARA

Iker Letona	Arrasate
Iñaki Urkiola	Arrasate
Rafa Carriet	Eskoriatza

Munduko Txapelketara

Apirilaren 25ean, berriz, Munduko Kenpo Txapelketa egingo dute Ankaran (Turkia) eta bailarako bi ordezkari izango ditugu bertan esku hartzen, Josu Letona eta Rafa Carriet arrasatearrak. Letona maisuak borrokaldian hartuko du esku eta Carriet, ostera, beteranoetan lehiatuko da, baina borrokaldian beharrean, katatan.

ESANAK

"Galizian 100 borrokalaria inguru batuko dira txapelketan"

"Ibarreko batzuk lehiatzera doaz, esperientzia hartzera besteak"

IKER LETONA | KENPOKO MAISUA

koak diren ikustera. Baina, anaia txapel bila doa hara, eta Alberto Narrok ere badaki lehenago ere Espainiako Txapeldun izatea zer den. Horrekin batera, Jose Luis Maquedak iaz oso lan ona egin zuen txapelketan, eta ea aurten ere zorterik duen. Horiek zorrotzago lehiatzera doaz".

Ibarreko borrokalariaiek ez dute talderik ordezkatu, baina ibarrean Eskoriatzan batzen dira gehienak. Horrekin batera, Zigorrolan ere kluba eratu nahian dabilta. Eurekin batera, Gipuzkoan geroago eta gehiago edatzen dabilen borroka artea da.

Goiena Klubak opari piloa banatu du martxoan. Orain, badatoz apirileko zozketak. Zorte on!



943 25 05 05 | goienakluba.com

goienakluba™
Abantailaz betetako kluba!



TXIRRINDULARITZA

Zikloturistek eta bizikletazaleek zer ikasia izango dute Ibarra kiroldegian

Datorren egubakoitzerako, apirilak 19, ziklismo tailerra antolatu dute, doan

XABIER URTZELAI | ARETXABAETA

Txirrindularitza profesionalak ere ez du lortu krisialditik ihes egiterik: lasterketa asko antolatzeko zailtasunak, babesleak bilatzeko –edo daudenak mantentzeko– ezintasuna... Baina kontrara, zikloturismoa sasoi dagoela aurrera genezake; inguru honetan bai, behintzat. Geroago eta herritar gehiago animatzen dira bizikleta hartu eta errepidean edo mendian kilometroak egitera, zikloturistek geroago eta proba gehiago izaten dituzte aukeratzeko, eta, duda barik, jendearen interesa piztu duen kirol jardura da.

Eta ziklismo-gose hori asetzeko asmoz, datorren egubakoitzerako (apirilak 19), txirrindularitzaren gaineko tailerra antolatu dute Ibarra kiroldegian. Hala, egitarauari dagokionez, antolatzaileek hiru hitzordu prestatu dituzte.

Zaleei erantzuteko, adituak

Tailerra hasteko, 17:30etik 19:00etara mahai inguru modukoa egingo dute. Tailerreko antolatzaileen esanetan, berbaldi luzea egitea baino gehiago, asmoa da herritarrek aktiboki parte hartzea,



Ibarran, Gabonetan, Kortarekin egindako spinning saioan. | A.MONEDERO

dituzten zalantzak zuzenean galdetuta; hala, zelan entrenatu, zelan elikatu, errendimenduari buruz jakin beharrekoak, bizikleta neurriak, materiala... gai horien guztien gainean jardungo dute. Eta gai horietan ondo jantzita dauden Kepa Zelaia eta Alberto Garai (kirol medikuak), Markel Irizar (RadioShackeko ziklista) eta Emaitz Izagirre (ziklismo teknikiari biomekanikoa) izango dira.

Entrenamendu espezifikoak

Jarraian, 19:00etatik 19:45era Markel Irizar txirrindulariaren eskutik areto bizikletako entrenamendu espezifikoak egingo dute eta 19:45etatik 20:30era, zikloturistendako fitnes entrenamendua.

Ibarra kiroldegian bertan eman daiteke izena (tailerra doan izango da), 943 03 98 42 telefonora deituta edo info@ibarrakiroldegia.com helbidera idatzita.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EUSKAL LIGA, EMAKUME.

Logroño-Mondra
Zapatua, 16:30. Logroño.

EUSKAL LIGA, GAZTEAK

Aretxabaleta-Añorga
Zapatua, 17:45. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaleta-Lagun Onak

Domeka, 16:30. Ibarra.

Mondra-Real Union

Domeka, 16:30. Moiategi.

Aloña Mendi-Hernani

Domeka, 16:30. Azkoain.

Bergara-Zarautz

Zapatua, 16:30. Agorrosin.

ERREG. PREFERENTEA

Mutrikuarra-Antzuola

Zapatua, 18:00. Mutriku

OHOREZKO GAZTEAK

Mondra-Billabona

Zapatua, 17:30. Moiategi.

Aloña Mendi-Zumaiaiko

Zapatua, 16:30. Azkoain.

Lagun Onak-Bergara

Zapatua, 19:30. Azpeitia.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Kurutziaga

Zapatua, 16:00. Manuel M.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Legorreta-Aretxabaleta

Domeka, 10:30. Harripila.

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Ardoi-Natra Oñati

Domeka, 17:30. Zizur Nagusia.

LEHEN NAZIONAL MAILA

Padura-MU

Domeka, 12:15. Arrigorriaga.

GIPUZKOAKO SENIORRAK

Soraluce BKE-Internacional

Zapatua, 16:30. Labegarieta

MU A-Alde Zaharra

Egubakoitza, 20:00. Musakol.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarri-Egia

Zapatua, 18:15. Iturripe.

Hondarribia-Soraluce BKE

Zapatua, 18:00. Hondarribia.

TXIRRINDULARITZA

BENJAMIN, ALEBIN ETA

INFANTILEN LASTERKETA

Zapatua, 16:30. Eskoriatza.



GOIENA

ASKARTZA ATZEAN UTZI NAHIAN Ford Mugarri etxean jokatu du bihar Egjiaren kontra (18:15, Iturripe), lasaia ibiltzeko argazkiko kontrario Askartzak kale egiteko itxaropenaz.

PILOTA

Bergara Hiria txapelketako lehenengo kanporaketan Beñat Rezustak aurrera egin zuen Jakarekin batera

Bergara Hiriko lehen jardunaldia ez zen antolatzaileek nahi moduan hasi, Otamendik kale egin zuelako eta hori konpontzeko Lau terdikoa jokatu zutelako Altunak eta Ortizek (22-2). Emaiza, baina, ez dute kontuan hartuko. Ondorengo partidua lehiatsua izan zen, eta Bergarako Beñat Rezustak eta Jakak 56 minutu behar izan zituzten Ojuel eta Gorrotxategi mendean hartzeko.

ESKUBALOIA

Liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan Ford Mugarri lehia estua du Askartzarekin, txapeldun geratzeko

Liga amaitzeko azkenaurreko jardunaldia jokatu du bihar Ford Mugarri Arrasatek (zapatua, 18:15, Iturripe), eta, Arrasateko taldea estu hartzeko lanean, bigarren dagoen Askartzak ez du amore emateko asmorik (41 puntu dituzte bi taldeek). Arrasatekoek ezin dute hutsik egin. Hala, bihar, laugarren dagoen Egia izango dute aurrean. Soraluce BKEk Hondarribian jokatu du bihar (18:00).

FUTBOLA

Oporraldi luzearen ostean, ohorezko erregionaleko talde guztiek jokatu dute asteburuan etxean

Ligako azken esprinta geratzen da, zazpi jardunaldi geratzen zaizkio aurtengo denboraldiari, eta opor egun hauetan indarrak hartu ostean itzuliko dira bailarako lau taldeak lanera –Aloña da salbuespena, domekan Beti Gazteri 2-1 irabazita–. Hala, asteburuen laurak jokatu dute etxean. Aipatzekoa da Aloña eta Mondrak aurrealdean dabilzan Hernani eta Real Union izango dituztela aurrean.

TXIRRINDULARITZA

Maila txikietako txirrindulariek lasterketa izango dute zapatuan Eskoriatzako kaleetan zehar

Bihar, zapatua, 16:30ean, Eskoriatzako egongo dute benjamin, alebin eta infantil mailetakoko lasterketa. Beste batzuetan ez bezala, oraingoan, lasterketa Eskoriatzako kaleetan barrena izango da, eta ez industrialdean. Gainera, 8-11 urte arteko edozein neska-mutikok hartu ahal izango du esku lasterketetan, eta edozein bizikleta erabili ahal izango dute, bai errepidekoa, bai mendiko bizikleta.

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

"Lanbide Heziketak unibertsitatera heltzeko bidea zabaldu dit"

Mikel Naranjo Arizmendi Ikastolan Eraikuntza Proiektuak goi mailako Lanbide Heziketako zikloko ikaslea da. Orain, praktikak egiten ari da eraikuntza arloko enpresa batean. Goi mailako heziketa zikloak unibertsitatera sartzeko aukera eman dio eta irailean Arkitektura Teknikoa ikasten hasiko da.



Batxilergoa bukatu eta berehala hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?

Bai. Nik Arkitektura Teknikoa ikasi nahi nuen unibertsitatean, baina, ez zitzaizkidan nota heltzen, goi mailako heziketa zikloaren bidea gomendatu zidan orientatzaileak. Azkenean, nik heldu nahi nuen lekura heltzeko beste bide bat izan da Lanbide Heziketa.

Bada, zer eman dizu Lanbide Heziketako Eraikuntza Proiektuak zikloak?

Eraikuntza arloan lan egiteko oinarriko gauzak ikasi ditugu, askorik sakondu gabe, baina arlo asko ikusiaz. Efizientzia energetikoari garrantzi handia ematen ikasi dugu eraikinak diseinatzeko orduan.

Ze profiletako ikasleak egon zarete taldean?

Gehienak ni baino nagusiagoak ziren. Batzuk aurretik Lanbide Heziketako

beste ziklo bat egindakoak ziren, beste batzuk unibertsitateko ikasketak utzi eta arlo praktikoago baten bila etortzakoak...

Eta praktiketan zertan ari zara?

Eraikuntza igogailuak jartzeko hainbat aurrekontu prestatu ditut, konparaketa batzuk egin, *plomada* batzuk bota eta planoak marraztu... Izan ere, oso lan interesgarria egiten ari naiz, eta asko ikasten.

Ekanean bukatuko duzu zikloa. Gero zer egingo duzu?

Unibertsitatera joango naiz Arkitektura Teknikoa ikastera. Lanbide Heziketako unibertsitatera heltzeko bidea zabaldu dit. Pentsatzen dut Arkitektura ikasketak oinarri ona eman didala. Gainera, lehenengo urtean bospasei ikasgai baliozkotuta izango ditut.



LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!

Lanbide bat ikasi nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi?

Langabezian zaude eta lan aukerak zabaldu nahi dituzte?

Edota esperientzia handia duzu lanbide batean, baina titulurik ez?

Lanbide Heziketa izan daiteke zure aukera!

GOIAZ! 2013
Lanbide Heziketaren Azoka Maiatzak 8 eta 9an; Kulturaten, Arrasaten.

Etorri Azokara eta ezagutu zure aukerak!



www.facebook.com/goiazdebagoiena



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berritzuzko Lanbide Heziketako eta Turismo Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa BERRIA

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behe / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KULTURA



Iazko jaialdiko irabazleak, sari banaketan. | GOIENA



Ikasle talde bat. | J. ALBENIZ.



Ikasleen lanetako baten fotograma. | A. LARRAÑAGA.

Zinema laburraren leihoa berriz zabalduko da eguaztenean Arkupen

Huhezinema lehiaketak aurten, seigarren edizioan, kopuru eta kalitate aldetik gora egin du

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Labur eran, euskal sorkuntzaren leihotako bat da Huhezinema lehiaketa. Sail ofizialerako 110 lan aurkeztu dira eta ikasleek 125 lan aurkeztu dituzte. Saritan ere, inoiz baino diru kopuru handiagoa banatuko da eta babes eta laguntzaile aldetik, zabaldu egin da parte-hartzea lehiaketaren seigarren urte honetan. Leiho bakarrik ez, beraz, Huhezinema arnagune ere baliteke izatea. Sortzaileentzat hori, ikusleei dagokienez, eta batez ere Debagoienekoei, aukera berezi eta ederra da, gainera, film labur bezain originalekin gozatzeko.

Aurten gainera fikzioaz gain dokumentalak, animazioa eta bideoklipak ere sartuko dira lehiaketara. Genero aldetik aberatsagoa da aurten lehiaketa eta osagai berezi batekin ere badator: gastronomia. Basque Culinary Center-ekin hitzarmen egin eta

ikasleen lanetatik euskal gastronomia ondoen islatzen duen lanari ere saria emango diote. Goiena Komunikazio Taldea ere laguntzailea da eta, hain zuzen, sail ofizialeko euskarazko filmik onenari saria emango dio.

Sortzaileei bultzada

Bost edizio ez dira alferrik igaro eta euskal zirkuituan erreferentzia da Huhezinema. Iban del Campo, fakultateko irakasle eta jaialdiaren koordinatzailea denak, gainera, aipatzen du parte-hartzaileek errepikatu egiten dutela eta saria irabazteak sormen lanarekin aurrera egiteko balio izan diela esan dietela saridunetako askok. "Egileari saria dirutan emateaz gain, aurrera egiteko konfiantza ere" eman gura diotela dio Del Campok. Era berean, ikasleentzako aukera baliotsua da jaialdia, euren lanak pantaila handian ikusi, jaialdi baten par-



Aurtengo kartela. | HUHEZINEMA

te hartu eta zuzeneko bizipena izateko aukera ematen zaielako. Ikasleena da, azken finean jaialdia, antolaketan ere, ekoizpenetik hasi eta komunikazioa barne, fakultateko ikasleek egiten baitute. Epaimahaiari dagokionez, Angel Aldarondok, Beñat Eizagirrek eta Iratxe Fresnedak osa-

tuko dute. Jaialdiko ikusleek ikusleen saria banatuko dute. Gutxi aurrera badaiteke ere, Iban del Campok nabarmentzen du lanen kalitate handia dela eta aukera egongo dela hain bogan dauden genero arteko sorkuntza lanak ikusteko, eta baita artistikoak ere.

Muguruza, eguaztenean

Apirilaren 16an, 17an eta 18an izango da jaialdia, Aretxabale-tako Arkupe Kultura Etxean (egitarau osoa eta filmen zerrenda, azpian). Ikasleen lehiaketa eguaztenean izango da eta sail ofiziala ostegunean. Euspot euskarazko spot lehiaketa izango da martitzenean eta eguazten arratsaldean hitzaldi-mintegia egingo da. Hain zuzen ere, Fermin Muguruza eta Arrate Rodriguez sortzaileek *Zuloak* filmari buruzko azalpenak emango dituzte saio ireki baten.

DATUA

235

IKUS-ENTZUNEZKO

Sail ofizialekoak eta ikasleek aurkeztutako lanak batuta, guztira 235 ikus-entzunezko jaso dira aurtengo lehiaketetarako.

JAIALDIAREN EGITARAUA

APIRILAK 16, MARTITZENA

19:00 Euspot. Euskarazko spot lehiaketa.

APIRILAK 17, EGUAZTENA

10:30 MUko ikasleen lehiaketa.

17:00 Hitzaldi-mintegia *Zuloak* filmari buruz. Fermin Muguruzarekin eta Arrate Rodriguezekin.

APIRILAK 18, EGUENA

17:30-18:40 Lehiaketa ofiziala.

19:00-20:10 Lehiaketa ofizialaren jarraipena.

20:30 Sari banaketa ekitaldia. Ostean luncha eskainiko da.

IBAN DEL CAMPO | HUHEZINEMAKO KOORDINATZAILEA

"Kalitate handiko lanak jaso ditugu"

Genero aukera zabaldua, zein motatakolan jaso dituzte gehien?

Nahiko orekatuta geratu dela esango nuke. Parte hartzeko aukera MUko ikasle guztiek daukate, baina gure fakultate kanpikorik ez da aurkeztu.

Parte-hartze handiarengatik harrituta zaudete?

Ilusio handia egin digu jasotako



ARTXIBOA

erantzunak. Sail ofizialean ehun lanetik gora jasotzea pozgarria da; are gehiago, gauden garaietan. Kalitate handiko lanak jaso ditugu.

Jaialdia bera eza-guna den seinale,

agian?

Bai, hori uste dugu; finkatu egin dela zirkuituan. Babesleen aldetik ere, kostatzen bada ere, laguntza handiagoa jaso dugu.

SAIL OFIZIALEKO FILMAK

Albaitari / Pablo Vijande.

Aner / Unai Garate.

Beerbug / Ander Mendia.

Deus et machina / Koldo Almadoz.

Hamaitakoa / Telmo Esnal.

Hondartza / Amaia Badiola.

Kaixo Egunon / David Kanon.

Loco con ballesta / Kepa Sojo.

Los Perfeccionistas / T. Dávila Wood.

Lucia / Maddi Barber eta Gorka Beunza.

Tartela / Unai Rosende.

Tesoros / Iván Cortázar.

Ikasleen lanak, Goiena telebistan

Mondragon

Unibertsitateko ikasleek aurkeztutako lanekin saio berezia emitituko du maiatzean Goiena telebistak. Ikasleek aurten, fikzio lanak egiteaz gain, dokumentalak, animaziozko piezak eta bideoklipak aurkezteko aukera ere izan dute. Horiek guztiak eskainiko dira Goiena telebistak ekoiztutako saio baten.

Arnau Vilardebo | Kontalaria

"Kontu-kontari ibiltzeak bizipen bikainak izatea ahalbideratzen digu"

- ▶ Nazioarteko Kontu Kontalarien jaialdian izango da
- ▶ Basaurin, Durangon eta Arrasaten dira ekitaldiak

ANE ETXEBERRIA | ARRASATE

Arnau Vilardebo katalana aktorea da, eta gidoigilea ere bada antzerki, zinema, telebista eta bestelakoetan. 1997an Els Joglars eta Albert Boadellaren *La Trona*-n egin zuen lan. Antzerkian ere lan eginikoa da, Ricard Salvat, Joan Olle eta Xavier Albertiren gidaritzapean. Irakaslea ere izandakoa, gaur egun Bartzelonan egiten du lan *88 infinitos* ikuskizunarekin. Atzo eta gaur Euskal Herrian da, Munduko Kontu Kontalarien nazioarteko jaialdian, eta harekin hitz egiteko aukera izan digu.

Zer iruditzen zaizu urtez urte halako nazioarteko jaialdi bat egiteko aukera izatea?

Ikaragarria da halako kultura, hizkuntza, ahots, irudimen joko... denak batu eta halako bi egun ikusgarri izatea. Nork bere herrialdearen ikuspuntua, ironia, drama... ekartzen du, nork bere modura kontatzen ditu gauzak, eta, gainera, besteek zer eta nola kontatzen duten entzuteko aukera izatea paregabea da, ze askotan ez baitugu elkar ezagutzen, eta esperientzia bikaina izaten da.

Katalunia, Argentina, Euskal Herria, Txile eta Uruguai: bost herrialde, bost kultura desberdin; zer dugu batera?

Ba, azkenaldian, gauza asko, kultura hedatzen ari da eta gauza asko ditugu batera. Eta gero, ba, jaialdian parte hartzen duten askok bidaiatu egiten dute, munduko txoko desberdinak ezagutzen dituzte, eta, hortaz, antzeko gauza asko ditugula konturatzen gara. Adibidez, Kolonbiara joan nintzenean, nik pentsatzen nuen greziarren inguruko mitologiak hitz egin eta inork ez zidala ulertuko, eta, nire gozamenerako, gauza askoren berri zuten bertaratutakoek.


Jaialdiaren helburua herrialde desberdinetako kultura ezagutzera ematea da, baina gaur egun behar hori existitzen dela uste duzu?

"Zuzenean jardutea ikaragarria da, emozio guztiak sentitzen baitituzu"

Adierazteko beste modu bat da, jaialdi honetan zuzenean gaude eta jendea metro gutxi batzuetara dago; orduan, ikusleen emozioa, barrea, emozioak sentitzen dituzu, eta haiek zureak, ezta? Eta hori, azken baten, bizipen bilakatzen da, ez dago pantailarik tarteko, ez dago elektronikarik, ez da informazioa jasotzen, baizik eta bizipen bat. Horrenbestez, beharra badagoela pentsatzen dut; hau da, kultura ezagutzera emateko beharra ikusten dut egungo egoeran.

Divinas seducciones istorioa kontatuko diguzu; zerbait aurreratzetik bai?

Urteak dira mitologia greziarraz hitz egiten dudana eskusiboki. Beste ipuin batzuk ere badituzte, baina horretan dihardut, gure esentzia bertan dagoela uste dudalako. Izan ere, gizakiak Jainkoak sortu zituztenean, bizipenen, beldurren, bizioen, desiren eta beste hainbat konturen bitartez konexio bat egoteko asmoz egin zuen; horrenbestez, esan daiteke Jainkoen berdina garelako. Gainera, nik aukeratutako istorioak pikanteak,



Arnau Vilardebo, kontu-kontari. | ARGAZKIA: FERRAN BORRAS.

erotikoak dira; beraz, konturatuko gara mekanismoak berdinak direla, eta grazia egiten du.

Euskal Herrian ibilia zara?

Bai; Oihulari Klownekin zirkuitu bat egiten ibili nintzen, Bergara eta beste hainbat herri

"Sentitu dudan giro onena hementxe bizi izan dut, Euskal Herrian bertan"

ezagutu nituen, eta asko gustatu zitzaidan. Gainera, desberdintasun asko ikusi nituen bertan; adibidez, Bergaran egon nintzenean ikusi nuen jendea ohituta zegoela kontuak, ipuinak entzutea, eta giro bikaina izan genuen bertan; bizi izan dudako giro hoberenetakoa izan zen, gainera. Beste herri batzuetan, aldiz, ikusleek begiratu egiten zidaten aurpegi serioarekin, eta ez zuten ezer esaten, baina, antza, asko gustatu zitzaien; beraz, pozik geratu nintzen bidaiarekin eta esperientziarekin.

A.E. | ELGETA

Para lo que hay que vivir... mejor no morir nunca izeneko antze-lanarekin datoz Gorka Otxoa eta Carla Hidalgo Espaloira. Gaur bertan izango da, egubakoitza, 22:30ean hasita.

Testua Borja Fanok idatzi du eta Jose Bornas da zuzendaria. Komedia bat da, eta izatez idealak zen bikote baten zorientasunik ezaz hitz egiten da.

Istorioa

Bere senarraz harro dagoen emazte baten inguruko kontakizuna da. Gizona lan bila dabil, eta hori ontzat hartzen du emazteak. Egungo egoeran ohikoa izan daitekeen hasiera du. Baina senarrek emakumea engainatzen du gaur egungo gizarteak jasan beharreko egoera latza aitzakiatzat hartuta. Carla guztiaz konturatzen da eta etxetik bota gura izango du. Gizonari zer bururatu eta, ideia handi bat: buruaz beste egitea. Edo saiatzea...

Jose Bornas zuzendariaren arabera, "gaur egungo testu bat da, oso lineala, gaur egungo egoerarekin bat datorrena. Oholtza gaineko antzezlana xumea da, minimalista, garrantzitsuena



Carla Hidalgo eta Gorka Otxoa. | ARGAZKIA: GAUPASA PRODUKZIOAK.

Gorka Otxoa eta Carla Hidalgo Elgetan izango dira

'Para lo que hay que vivir... mejor no morir nunca' antze-lanarekin datoz Espaloira

Carla Hidalgo eta Gorka Otxoa aktoreen lana baita". Bornasen esanetan, antze-lan dibertigarria da, pentsarazi egiten duen horietakoa. Sakona oinarrian eta dibertigarria, antzezlana ikustera joaten diren guztientzat.

Bada, *Para lo que hay que vivir... mejor no morir nunca* antze-lanaz disfrutatzeke sarre-rak leihatilan bertan erosi behar-kota, 10 edo 12 euroren truke. Egubakoitzeko gau entretenigarria, beraz, Espaloira antzokian.

'Loreak errepidean' filma grabatzen hasi dira

Mariasun Pagoaga arrasatearrak paper txiki bat izango du euskarazko film berri horretan

A.E. | ARRASATE

80 egunean pelikulan lan egin ondoren, Mariasun Pagoaga aktore arrasatearrak beste proposamen bat jaso du Garaño eta Goenaga zuzendarien eskutik: *Loreak errepidean* filmean parte hartzea. Pagoagak gustura hartu du gonbita, eta, haren hitzetan, nahiz eta paper txikia izango den oso pozik dago.

Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzendutako filma izango da, misterioa, intriga eta gogoetarako bidea ematen duena. Drama da eta aktore ezagunak izango dira protagonistak. Pagoaga aktore arrasatearrak 60 urteko Inaziren papera antzeztuko du.

Orain dela gutxi hasi dira grabazio lanetan, eta, oraingoz, gauza gutxi dakigu istorioaren

inguruan; hau bakarrik: erai-kuntza lanetan ari direla, Espainiako gerrako gorpuak agertzen dira lurperatuta. Gainera, gizonetako baten heriotzak eragiten duen samina ageri da, eta norbaitek haren oroimenez jartzen ei ditu loreak.

Grabazio lanak hasi dira dagoeneko, Euskal Herriko hainbat herri lekuko direla; besteak beste, Zumarraga eta Oiartzun. Gainera, herriarrek grabazio lanak nola egiten diren ikusteko aukera eskaini dute zuzendariak; izan ere, Kulturkliken bitartez bi pertsonarentzako gonbidapenak lortzeko aukera egongo da.

Hortaz, hilabete batzuk barru izango dugu euskarazko film berri hori gure pantailan.

250 lagunetik gora espero dira Debagoieneko Trikitixa Egunean

Elgetako Jazinto Rivas 'Intxuzabal' trikitilari aitzindaria gogoratu dute

ANDER LARRAÑAGA | ELGETA

Apirilaren 20an, zapatuan, ospatuko da Debagoieneko IX. Trikitixa Eguna. Antolakuntza Elgetako Trikiti Eskolaren esku geratu da, eta Oxel Erostarbe alkateak eta Adolfo Jainaga trikiti irakasleak eguaztenez egindako aurkezpen ekitaldian egitarauaren xehetasunak eman zituzten. 250 lagunetik gora espero dira: kopuruari erreparatuta, erronka ere badela azaldu du alkateak.

Elgetakoa Debagoieneko Trikitixa Egunaren bederatzigarren edizioa da. Debagoieneko herri guztietatik igaro da lekukoa eta Arrasatera bueltatuko da berriz ere, abiatutako lekura.

'Intxuzabal' gogoan

Bada, aurkezpen ekitaldian, egitaraua aurkezteaz eta gonbita egiteaz gainera, Jazinto

Rivas *Intxuzabal*-i protagonismo berezia eskaini zioten; hain justu ere, Jainagak esan du gaurko trikiti ikasleen eredu dela.

1905. urtean jaio zen *Intxuzabal*, Elgetako Intxusa base-

rrian, eta, orduan nahiko gaizki ikusia egon arren, trikiti eskolak ematen lehenengo trikitilari izan zen. Izan ere, baserriz baserri ibiltzen zen trikiti eskolak mantenu trukez emanez.



Oxel Erostarbe eta Adolfo Jainaga, aurkezpen ekitaldian. | LARRAITZ ZEBERIO



'Baserrisarea.com': bertako ekoizleek egindako produktuak etxean jasotzeko bide berria

Debagoieneko baserriarren produktuak *on line* saltzeko denda bertualdu du *Baserrisarea.com* helbideak, beste zerbitzu batzuen artean. Gure ekoizleak hasi dira sare bidezko eskaerak jasotzen.

Aretxabaletako Etxezuri baserriko Jon Murgiondok hasieratik ditu bere gaztak salgai *Baserrisarea.com* helbidean. Dagoeneko salmenta bat baino gehiago egin ditu *on line*.

Zergatik daude zure gaztak *Baserrisarea.com*-en?

Saltzeko beste modu bat da. Teknologiarik esker, egun jendea oihitzen ari da erosketak Internet bidez egitera, eta ez dugu aukera hori galdu behar. Gure produktuak ere eskaini gura ditugu sarean, eta *Baserrisarea.com* helbidea modu egokia da horretarako.

Nolako gaztak dira zuenak?

Etxekoak, bertan egindakoak. Betidanik egin dituzte gaztak gurean, eta jarraitzen dugu egiten. Ardi-esnearekin egindako gaztak ditugu. *Baserrisarea.com*-en, gainera, gazta osoa, erdia edo laurdena erosteko aukera eskaintzen dugu.

Saldu duzue gaztarik *Baserrisarea.com*-en bidez?

Bai, bai, salmenta bat baino gehia-



“ Hona ez ezik, Galiziera eta Kataluniara ere saldu ditugu etxeko gaztak *Baserrisarea.com* atariko dendaren bitartez; pozik gaude webgune honekin ”

go egin ditugu dagoeneko. Galiziatik eta Kataluniatik jaso ditugu, adibidez, eskaerak.

Nola egiten duzue banaketa?

Erostea oso erraza da. *Baserrisarea.com* helbidean bakarrik sartu behar da. Produktuaren eskaerak eguaztenez arte jasotzen ditugu, eta eguaztenez egiten dugu banaketa. Jakion arduratzen da horretaz. Guk gure eskaerak Leintz Gatzagara eramaten ditugu, eta handik egiten du banaketa Jakionez, zuzenean etxera.

Gaztak ez ezik, bestelako produktuak ere badaude *Baserrisarea.com*-en, ezta?

Bai. Guk gaztak ditugu, baina badira txakolina, babak, kiwiak eta marmeladak saltzen dituztenak, esaterako. Ekoizle guztiak dira hementxoak, bailarakoak, eta etxean egindako produktuak saltzen dituzte. Guk ere badugu asmoa produktu gehiago saltzeko aurrerantzean, dibertsifikatzeko asmoa dugu.

Zer gehiago eskaintzen du *Baserrisarea.com*-ek?

Kanpokora begira, denda bertualaz gain, Debagoieneko landa ingurunea ezagutzeko aukera ematen du, eta baita ibarrean egiten diren azoka eta ekitaldien berri ere. Ekoizleondako ere topaleku bat da. Elkarlanerako aukera eman digu; hori ona da.

Apustu ona da *Baserrisarea.com*?

Bai, bai. Jendeak eskertzen du produktuen ekoizleak ezagutzea. Denok gara bertakoak, eta atari honek gure produktuak *on line* erosteko aukera ematen du.

EGITARAUA

11:00 Ongietorria eta ogitartekoa.

11:30 Herriko kaleetan kalejira.

13:00 Ekitaldia plazan.

14:30 Bazkaria.

17:30 eMePebo5t taldearekin erromeria.

Manos K Rien taldearen ikuskizuna Bergaran

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Apirilaren 13an, zapatuan, izango dira Bergarako Zabalotegi aretoan Donostiako Manos K Rien taldeko kideak; gorrak dira kideak.

Gorren eskubideak bermatzeko asmoz, mimo, antzerki, film labur eta musika ikuskizuna eskainiko dute. Euren emanaldiak pertsona gorrek, gor-itsuek nahiz beste pertsona batzuek plazaratzen dituzte. Nahiz eta mimika eta keinu hizkuntzan egindako poesia erabili, pertsona arruntendako egokituta egongo da ikuskizuna, ahozko komunikazioa erabilita.

2009an sortu zen elkarte artistiko eta kulturala eta keinu hizkuntzaren bidez euren artea entzunaraztea dute helburu.

Ikuskizuna 19:00etan hasiko da eta sarrerak 8 euroren truke egongo dira salgai leihatilan, orubete lehenago.

baserrisarea.com
Debagoieneko landa eremuaren erakusleioa

- :: Gure ekoizleen produktuak baserriatik etxera
- :: Landa bizitza eta ondare historikoa
- :: Gune interesgarriak eta ibilbide naturalak
- :: ...eta askoz gehiago!

Baserrisarea.com logo and social media icons.

Jokin Garai | Korrikalaria

"Goierriko 2 Handiak nire lehenengo ultra izango da; erronka polita da 86 km gelditu gabe egitea"

JONE ALBENIZ | OÑATI

Jokin Garai (Oñati, 1983) kirol-zalea da txikitatik; mendi lasterketarako zaletasuna, aldiz, duela 4-5 urteko kontua du. Gasteizen Haur Hezkuntza eta Eskoriatzan Heziketa Fisikoa ikasi ondoren, egun, irakasle lanak lasterketa eta entrenamenduekin uztartzen ditu. Azken boladan lasterketa desberdin askotan parte hartu du eta hurrengo erronka Goierriko 2 Handiak izango da.

Noiztik eta nondik datorkizu zaletasuna?

Mendiko zaletasuna txiki-txikitatik datorkit, gurasoekin makina bat purrustada botatakoa naiz haiekin egindako txangoetan. 6-7 urterekin joan nintzen Pirinio aldera haiekin lehenengo aldiz, eta, ordutik, neguan zein udan urtero joaten gara bertara. Lasterketarako zaletasuna, aldiz, orain dela 4-5 urteko kontua izan da; probatu eta ikaragarri gustatu zitzaidan, engantxatu egin nintzen.

Zein talderekin eta non entrenatzen zara?

Aurreko urtera arte ez dut talderik eduki; iazko eta aurtengo denboraldietan, berriz, M5 Aretxabaleta taldean nago, eta Aretxabaletako M5 dendaren laguntza jasotzen dugu. Entrenatzeko, Aloñako gurutzetik Aizkorriko aizkoraraino dauden txoko guztiak atsegin ditut.

Zein lehiaketa edo txapelketa irabazi dituzu zure ibilbidean zehar?

Mendiko lasterketan eta antxintxika ez dut ezer irabazi. Kilian Jornetek dioen moduan: "Gizakia ez da curriculumetik bizi, esperientzietatik baizik". Nik horixe irabazten dut mendian korrika egiten dudana bakoitzean, esperientzia berri eta atseginak.

Zein mendi lasterketan gurako zenuke parte hartu?

Ibilbide teknikoak maite ditut eta hauek dauden lasterketa orotan gustura ibiltzen naiz; hala ere, helburuaren arabera aukeratzeko ditut lasterketak. Dolomitetan egiten den lasterketaren bat egingo nuke gustura asko.

Ze iritzi daukazu kirol honen egoteaz?

Mendia eta kirola egitea modan daude orain, kirol honek biak uztartzen ditu eta ikusi besterik ez dago inskripzioak zein azkar betetzen diren; azken 10 urte hauetan izugarri hazi da. Gainera, marka garrantzitsuak

sartu dira babesle eta laguntzetan eta indarra hartzen ari den kirola da. Hori gutxi balitz, komunikabideetan agertzen hasi den kirola da. Kirol honek oraindik ere indar handiagoa hartuko duela uste dut.

Zein karrerari ematen diozu garrantzi handien? Zergatik?

Aurten bi helburu nagusi jarri ditut eta horiek izango dira garrantzitsuenak. Zegama-Aizkorri eta Goierriko 2 Handiak. Zegamako: bere ibilbide, giro eta parte-hartzaileengatik aukeratzen dut; lehenengo biak asko gustatzen zaizkidalako eta hirugarrena, egunero ez baitugu aukera Kilian, Kuprika eta horrelako korrikalariekin korrika egiteko. Goierriko 2 Handiak nire lehenengo ultra izango da, probatzeagatik egingo dut, erronka iruditzen zaidalako 86 kilometro gelditu gabe egitea.

Mendiko lasterketetatik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Leku berriak ezagutu, lagun berriak egin eta haiekin pasatako esperientziak konpartitzea atsegin dut. Egia esan, nire bizitza kirol honi atxikita ikusten dut, bikotekideari eta bioi izugarri gustatzen zaigu-eta.

Mendiko lasterketetan maila handia dago Euskal Herrian?

Bai, maila nahiko handia dagoela uste dut; ikusi besterik ez dago azken urteetan gure selekzioak lortu dituen emaitzak. Munduko lasterkari onenen artean dauden bi korrikalari aipatzea besterik ez zait geratzen: Oihana Kortazar eta Iker Karrera.

Zerk motibatzen zaitu?

Bada, entrenamendu bakoitza desberdina da mendian, eta ez dago aspertzeko aukerarik; izan ere, esperientzia eta txoko berriak non-nahi izateaz gainera, emaitza onak izateak ere motibatzen du aurrera jarraitzeko. Hain zuzen ere, norberak egiten du gogorra kirol hau.

MARRA AZKARREZ

Korrikalari bat: Kilian Jornet.

Entrenatzeko toki bat: Artzanburu ingurua.

Mendi bat: Matterhorn eta bere inguruak.

Zure herriko txoko kuttunena: Kale Zaharra (poteo-lekua).

Erronka: Goierriko 2 Handiak.

Inoiz ahaztuko ez duzun momentua: Mareren jaiotza.

Liburu bat: Haur Literaturako Amonak alzhei zer?

Musika talde bat: 2Zio.

Jokin Garai, martxoan izan zen Sara korrika-trail mendiko lasterketan.



1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Leintz-Gatzaga. Etxea salgai erdigunean. Orube handia dauka aldamenean. 160.000 euro. Interesatuok deitu 677 52 46 71 edo 615741347 telefono zenbakietara.

Oñati. Etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, sukalde, komuna eta egongela. 68 metro koadrokoa. Orain urtebete berritua. 629 39 08 51

Otxandio. Apartamentua salgai. Jantzia. Trastelekuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675 71 72 83

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Udalpe kalean, Erguin auzoan. Guztiz jantzia eta berokuntzarekin. Egoera onean. Nahiago bikoteak. Interesatuok deitu telefono honetara: 620 15 15 08

Oñati. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta komun bat. Bi balkoierekin. Oso eguzkitsua. Jantzia, bizitzera joateko moduan. Hilean 540 euro, komunitateko gastuak barne. Interesatuok deitu telefono honetara: 670 30 60 98

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Bi logela, sukalde, komuna eta egongela. 68 metro koadrokoa. Orain urtebete berritua. Interesatuok deitu telefono honetara: 659 72 06 64

104. ERRENTAN HARTU

Aramaion etxe bila. Bikotea Aramaion pisu bila. Altxariek edo altzaririk gabe. Interesatuok deitu telefono honetara: 620 15 13 11

Arrasate. Erdigunean etxebizitza hartuko nuke errentan. Hiru logelakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 88 60 30

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. Errentan emateko baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 648 46 90 51

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. 300 euro gastu guztiak barne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 83 13 51

Arrasate. Pisua osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Interesatuok deitu telefono honetara eta Lorearengatik galdetu: 620 52 94 98

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxi bat errentan ematen da Ibargarai kalean. Maniobrari egin beharrik ez dago eta prezio merkea du. Interesatuok deitu telefono honetara: 679 740 061

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Harane Erreka auzoan garajea hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 78 73 21

Oñati. Garaje itxia hartuko nuke errentan. Kokapena eta tamaina berdin zait, urtean zehar asko erabiltzen ez diren gauzak gordetzeko nahiko bainuke. Gehien axola zaidan kontzeptua ekonomikoa izatea da, ez baitut asko erabiltziko. Trasteleku bat ere izan daiteke. Deitu telefono honetara: 625 70 86 49

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Sukaldaria behar da tabernan lan egiteko. Esperientziaduna. 627 14 07 35

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruetan lan egingo nuke, etxeak garbitzen edonagusia edo umeak zaintzen. Deitu: 680 49 11 45.

Arrasate. Emakume eskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plan-txa lanak eta abar. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 54 17 27

Bergara edo Arrasate. Mutila asteburuetan lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 654 98 69 14

Bergara. Emakume eskalduna prest goizetan etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 627 96 19 22

Bergara. Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, arratsaldez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Neska eskalduna prest umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientzia daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 76 52 39

Debagoiena. Erizain laguntzaile prest lana egiteko. Deitu 943 79 96 25 telefonora.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketarako orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Sukaldaritza eta geriatriako oinarriko ikasketak ditut. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izateko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 06 28 04

Debagoiena. Neska arduratsua orduka lan egiteko gertu, etxeetan, tabernan. Bertan bizi izaten ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 648 46 90 51

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu umeak eta nagusiak zaintzeko, garbitasun lanetarako zein sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. Deitu 691 03 25 02 edo 943 54 09 41 zenbakietara.

Debagoiena. Neska lanerako gertu: ume zein nagusiak zaintzen, garbiketarako, atariak eta abar. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 41 98 14

Debagoiena. Neska lanerako gertu: umeak edo nagusiak zaintzen, garbitasunean edo dendari. Erreferentziaduna. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 41 98 14

Debagoiena. Neska nagusi edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten edo bestela. Geriatria ikasketak, gidabaimena eta erreferentzia onak ditut. Danny. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 87 38 66

Debagoiena. Nicaragua neska nagusi zein umeak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 722 14 42 86

Mutila gertu lan antizak egiteko. Debagoiena osoan, erakuntza lanak, elektrizitate lanak, pintura lanak, nekazaritza, informatika eta etxeko konponketak egiteko prest. Auto propioa eta 25 urteko esperientzia. Deitu 654 83 98 77 telefonora.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Ingeleseko. eskolak hartuko nituzke. Antzuolano Bergaran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 76 99 83

Plano mekanikoak. Goi zirklo plano mekanikoen interpretazioan laguntzeko eskola partikularak jasoko nituzke, astean bizpahiru egunez. 646 36 68 02 edo 943 76 47 56

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumea. Urbiako fondan txakurkumea ematen da opari. Ardi txakurra da. 943 78 13 16

Txakurkumeak opari. Mastin eta artzai txakur arteko txakurkumeak ematen dira opari. Deitu 65772 43 99 edo 61573 22 89 telefonoetara.

8. DENETARIK

802. EROSI

Babycook duo. Babycook duo erosi nahi dut. 635 70 05 14

Klarineta. Bigarren eskuko klarineta erosiko nuke. 688 84 10 82

804. HARTU

Bizikletak. Bizikleta zaharrak botatzeko baduzkazu, nik jasoko dizut. Iñaki. 699 06 23 95

806. GALDU

Belarritakoa Bergaran. San Pedro kalea eta Correos bitartean erdian zirkonita brillantea duen zilarrezko belarritakoa galdu dut. Aurkitu baduzu, deitza eskertuko nizuke. 637 52 89 83

Bizikleta lapurreta Arrasaten. Mendiko bizikleta lapurtu zidaten martxoaren 19an, 13:00ean, Arrasateko Ignazio Zuloaga kalean (epaitegiaren ondoan). Orbea etxekoa, kolore berde eta txuria ditu, freno hidraulikoekin. Bi ur bidoi eramateko lekua du eta kilometro kontagailuaren kableatua. Norbaitek antzeman badu abixatu dezala telefono honetara, mesedez. 649 34 60 51

Patinetea Oñatin. Oñatiko plazan domekan, martxoaren 17an, patinete beltz bat galdu zen. Azpian izena du jarrita. Inork aurkitu badu, dei dezala telefono honetara: 665 71 22 94

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Arrasateko elkarte gastronomiko baten plaza erosiko nuke. Elkarte gastronomiko bateko kide bazara eta zure plaza saltzeko asmoa baduzu nik erosiko nizuke. Alde zaharrean bada hobe Deitu telefonora. 667 95 73 16

Debagoiena. Emakumea gertu etxean laguntzen lan egiteko: garbiketa egin, nagusiak zaindu eta abar. 636 47 64 92

Debagoiena. Garbiketa edo ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Gauetan ere bai. 636 47 64 92

Debagoiena. 8 urteko eskarmentua duen neska nagusiak zaintzeko gertu. Legezko paperak ditut. Egun osoz, orduka zein etxean bertan bizi izaten jardun dezaket. Interesatuok deitu telefono honetara: 688 38 07 46

Debagoiena. Emakumea gertu etxean laguntzen lan egiteko: garbiketak egin, nagusiak zaindu eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686 40 42 03

Debagoiena. Emakumea gertu lanerako: tabernako sukaldean, garbiketarako egiten, zaintzen eta abar. Hotelean lan egin izan dut. Autoa daukat. 636 11 23 40 edo 648 10 26 53

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Gauz ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 96 08 22

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko nituzke: atari, etxe, elkarte eta abar. Maria Eugenia. 688 63 65 94

Debagoiena. Etxean zein bestelako garbiketarako egiten lan egingo nuke, orduka. Wendy. Deitu 688 65 04 56 edo 617 25 30 58 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Eritzaintza tituludun neska lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasun lanetan, gauak ospitalean egiten eta abar. Autoa daukat. Debagoienetik kanpo ere lan egingo nuke. 688 80 27 01 edo 943 25 02 96

Debagoiena. Garbiketarako egiteko nituzke orduka, etxeetan zein bestela. Flavia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 654 92 61 28

Debagoiena. Mutil antzuolarrak gertu nagusiak zaintzen lan egiteko. San Juan de Diosen lan egindakoa, erizaintza laguntzaile gisa. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

Debagoiena. Mutil arduratsua prest edozein mota-takolan egiteko; eskarmentua daukat eta orduka ere izan daiteke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 28 81 24

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: nagusiak zaintzen, taberna, jatetxe eta abar garbitzen, gidari edo igeltsari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Prest nago etxeak garbitzeko edo umeak zaintzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 647 10 58 72

 Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokoosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Zubieta 70 m², 3 logela. Oso ondo. 132.223 €.
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 m², 3 logela, trastelekuak. Garaiea aukeran. 150.000 €.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berritua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berritua. Garaiea aukeran. 150.000 €.
- Bolu 66 m², 2 logela. Trastelekuak. Garaiea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekruzeta 65 m², 2 logela. Trastelekuak. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiurre 56 m², 2 logela. Igogailua, erabat berritua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Elezalde 74 m², 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 € Aukera ona.
- Zabalategi 80 m², 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkorritzi 75 m², 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €.
- Barra 65 m², 3 logela. Berritua. 150.000 €.
- Artzamendi 70 m², 2 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalategi 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000 € baino gutxiagotan.

AUKERA BIKAINA.

- Bidekruzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garaiea aukeran.
- Matxiategi 60 m², 2 logela. Igogailua. Erabat berritua.
- Fratzkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoierekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fratzkozuri 78 m², 3 logela. Balkoia, trastelekuak eta garaiearekin. 205.000 €.
- Sogasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Sogasti 90 m², 3 logela. Trastelekuak eta garaiearekin. Oso ondo.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garaiea. Oso ondo.
- Martxo 140 m², 4 logela. Berria. Oso ondo. 225.000 €.

ANTZUOLA:

- Behoko Auzoa 60 m², 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurritegi 83 m², 3 logela. Oso ondo. Prezio ona.
- Sogasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Buzintzuri, Sagasti, Antigua, Zurritegi, Behoko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aiera eta Errekalde. Etxe onak.

SORALUZE:

- Sagor Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:

- Dominge Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torraldea 77 m², 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatu 150 m² + 45 m² garaiea + 90 m² lursaila.

OSINTXU:

- Osintxu 85 m², 3 logela. Igogailua. Berritua. 150.000 €. AUKERA BIKAINA.

ASTEAGOIENAN

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 12	ZAPATUA, 13	DOMEKA, 14	ASTELEHENA, 15	MARTITZENA, 16	EGUAZTENA, 17	EGUENA, 18
12:00 Planik bai?	10:00 28.Klip	10:00 Klaketa	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea
12:20 Magazinea	10:31 Zorion Agurrak	10:35 Zorion Agurrak	13:00 Gurean gaur	12:45 Gurean gaur	12:45 Gurean gaur	12:45 Gurean gaur
13:05 Zorion Agurrak	10:36 AZK2012	10:40 Onein	13:30 Zorion Agurrak	13:15 Zorion Agurrak	13:13 Harmailatik	13:19 Altxorren bila
13:10 Gurean gaur	11:36 Magazinea	11:07 AZK2012	13:35 Onein	13:22 Harmailatik	13:58 Erreportajea	13:56 Ikusmira
13:40 Onein	12:09 Onein	12:07 Erreportajea	13:56 Ikusmira	14:07 Ekogune	14:48 Zorion Agurrak	14:19 Onein
13:57 Bizitegia	12:36 Berriak	12:59 Onein	14:11 Ekogune	14:40 Zorion Agurrak	14:53 Berriak	14:40 Zorion Agurrak
14:22 Ikusmira	12:51 Hitzlandia	13:25 Magazinea	14:41 Zorion Agurrak	14:45 Berriak	15:13 Eguraldia	14:45 Berriak
14:45 Zorion Agurrak	13:11 Laino arteko plana	14:25 AsteON	14:45 Berriak	15:07 Eguraldia	15:16 Klaketa	15:05 Eguraldia
14:47 Berriak	13:41 Zorion Agurrak	15:00 Zorion Agurrak	15:10 Eguraldia	15:10 Harmailatik	15:51 Onein	15:08 Ikusmira
15:07 Eguraldia	13:46 Onein	15:05 Altxorren bila	15:13 Zorion Agurrak	15:55 Onein	16:21 Harmailatik	15:31 AZK2012
15:10 Planik bai?	14:12 Planik bai?	15:36 Ekogune	15:18 AZK2012	16:26 AsteON	17:06 AZK2012	16:01 Berriak
15:30 Erreportajea	14:32 Ur eta lur	16:06 Ur eta lur	16:18 Bizitegia	16:56 Berriak	17:36 Zorion Agurrak	16:21 Eguraldia
16:40 Laino arteko plana	14:59 AsteON	16:33 AZK2012	16:48 Zorion Agurrak	17:16 Eguraldia	17:41 Berriak	16:24 Onein
17:10 Beranduegi.tv	15:29 Laino arteko plana	17:33 Beranduegi.tv	16:53 Berriak	17:19 AZK2012	18:01 Eguraldia	16:55 Ikusmira
17:40 Zorion Agurrak	15:59 Zorion Agurrak	17:57 Klaketa	17:18 Eguraldia	17:49 Altxorren bila	18:03 Ikusmira	17:19 Planik bai?
17:45 Berriak	16:04 Beranduegi.tv	18:37 Ikusmira	17:21 Onein	18:20 Erreportajea	18:26 Hitzlandia	18:06 AZK2012
18:05 Eguraldia	16:28 Magazinea	18:52 Magazinea	17:47 Erreportajea	19:10 Harmailatik	18:46 Bizitegia	18:36 Onein
18:08 Planik bai?	17:28 Planik bai?	19:52 Berriak	18:37 Ekogune	19:55 Zorion Agurrak	19:16 Beranduegi.tv	19:02 Zorion Agurrak
18:28 Berbetan	17:48 Berriak	20:07 Zorion Agurrak	19:07 Hitzlandia	19:58 Berriak	19:46 Zorion Agurrak	19:07 Beranduegi.tv
19:03 Zorion Agurrak	18:03 Hitzlandia	20:12 AsteON	19:27 Altxorren bila	20:18 Eguraldia	19:49 Berriak	19:32 Planik bai?
19:06 28.Klip	18:23 AsteON	20:42 Ekogune	19:57 Berriak	21:05 Gurean gaur	20:14 Eguraldia	19:52 Berriak
19:38 Beranduegi.tv	18:59 Beranduegi.tv	21:12 AZK2012	20:17 Eguraldia	21:35 AZK2012	21:01 Gurean gaur	20:12 Eguraldia
20:08 Zorion Agurrak	19:23 AZK2012	22:12 Klaketa	20:19 Magazinea	22:05 Berriak	21:32 AsteON	20:16 Magazinea
20:11 Berriak	20:23 Erreportajea	22:52 Beranduegi.tv	21:04 Gurean gaur	22:25 Eguraldia	22:02 Ekogune	21:01 Gurean gaur
20:31 Eguraldia	21:15 Klaketa	23:17 Magazinea	22:00 Harmailatik	22:30 Magazinea	22:32 Berriak	21:31 Laino arteko plana
20:35 Planik bai?	21:55 Magazinea	00:38 Berriak	22:45 Berriak	23:15 Bizitegia	22:52 Eguraldia	22:00 Planik bai?
20:57 Gurean gaur	22:55 Berriak	00:58 Eguraldia	23:05 Eguraldia	23:43 Berriak	22:54 Magazinea	22:20 Berriak
21:27 AZK2012	23:10 AsteON		23:08 Magazinea	00:24 Berriak	23:39 Harmailatik	22:40 Eguraldia
22:00 AsteON	23:40 AZK2012		23:53 Harmailatik	00:29 Eguraldia	00:03 Berriak	22:43 Magazinea
22:30 Berriak	00:17 Beranduegi.tv		00:03 Eguraldia	00:32 Magazinea	00:23 Eguraldia	23:28 Klaketa
22:50 Eguraldia						00:18 Berriak
22:53 Klaketa						00:38 Eguraldia
23:28 AsteON						
23:58 Planik bai?						

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratua zapatuan eta domekan 10:00etan

Astean zehar Arrasate Irratian eskaini dizkizuegun elkarrizketak entzuteko aukera izango duzue aste-ko gainbegiratuan. Besteak beste, Gazte Bulegoko Dorleta Kortazarrek emandako gazte informazioa jasotzeko aukera izango duzue.

Egueneko kontzerturako sarrerak zozketan

Kooltur ostegunak egitasmoaren barruan, *Marakas ParaDos* izeneko taldeak eskainiko du kontzertua egunean. Bertara joateko sarreraren zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com*-era.

HILDAKOAK

- Aitor Guridi Iriarte.** Arrasaten, martxoaren 27an. 56 urte.
- Vicente Vicente Hernandez.** Bergaran, martxoaren 28an. 79 urte.
- Marcelino Arregi Albizu.** Bergaran, martxoaren 29an. 69 urte.
- Julian Bergaretxe Abarrategi.** Arrasaten, martxoaren 29an. 76 urte.
- Elisabet Basauri Azula.** Bergaran, martxoaren 30ean. 63 urte.
- Felix Gonzalez Gonzalez.** Bergaran, martxoaren 30ean. 48 urte.
- Antonio gorostidi Eraña.** Arrasaten, martxoaren 31n. 88 urte.
- Ane Miren Yarza Barcena.** Arrasaten, apirilaren 1ean. 56 urte.
- Ana Sanchez Corrales.** Arrasaten, apirilaren 2an. 59 urte.
- Eugenio Urizabel Murguzur.** Oñatin, apirilaren 3an. 89 urte.
- Felisa Guridi Guridi.** Oñatin, apirilaren 3an. 88 urte.
- Alejo Garcia Gonzalez.** Bergaran, apirilaren 4an. 53 urte.
- Txomin Otxoa Garcia-Etxabe.** Aretxabaletan, apirilaren 4an. 75 urte.
- Esteban Eguren Beitalarringoitia.** Arrasaten, apirilaren 5ean. 75 urte.
- Bixente Arregi Etxabe.** Arrasaten, apirilaren 7an. 88 urte.
- M. Elisabeth Unzilla Atxotegi.** Oñatin, apirilaren 8an. 44 urte.
- Irene Lezeta Villar.** Eskoriatzan, apirilaren 8an. 89 urte.

EZKONTZAK



Estibaliz eta Alain


Estibaliz Villanueva eta Alain Gomez zapatuan, apirilaren 8an, ezkondu ziren. Zorionak, bikote, eta ondo pasatu eztei-bidaian!




Olaia eta Oier

Olaia Barrutia eta Oier Illaramendi apirilaren 13an ezkondu dira Olatzeko ermitan. Zorionak, bikote, zuen familiakoen eta lagunaren partetik. Zoriontsu izan!

URTEURRENA



Gotzon Barrenetxea-Arando Azkargorta



Lehen urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko apirilaren 12an.

URTEURRENA



Kontxi Arejolaleiba Arakama



2011ko apirilaren 29an hil zen.

Bigarren urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Ni naiz bidea, egia eta bizia ezin da inolr Aitarengara joan nire bidez izan ezik.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko Felixen eta familiaren izenean. Bergaran, 2013ko apirilaren 12an.

MEZA

Victor Altube Lekerikaonandia



2013ko martxoaren 23an hil zen, 74 urte zituela.

Familiaren saminarekin bat egiten dugu
Haren aldeko meza domekan izango da, apirilaren 14an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Hamaika Gazte elkarte. Arrasaten, 2013ko apirilaren 12an.

URTEURRENA



Jose Antonio Elkoro Unzueta



2012ko apirilaren 10ean hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko apirilaren 12an.

URTEURRENA

Iñaki Guillegui Larrañaga



2012ko apirilaren 11n hil zen, 70 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 14an, 12:00etan, Elgetako Andre Mari Jasokundearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean. Elgetan, 2013ko apirilaren 12an.

ESKER ONA

Elisabet Basauri Azula



2013ko martxoaren 30ean hil zen, 63 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko apirilaren 12an.

ESKER ONA

Alejo Garcia Gonzalez




2013ko apirilaren 4an hil zen, 53 urte zituela.

Eskerrik asko guztioi.

Bergaran, 2013ko apirilaren 12an.

ESKER ONA

Eugenio Urizabel Murguzur



Oñatin hil zen 2013ko apirilaren 3an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara hurbildutakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko.

Zapatuan, apirilaren 13an, 19:30ean, ondra meza ospatuko dugu agustindarren elizan.

Bertratuko zareteno, aurrez eskerrik asko. Oñatin, 2013ko apirilaren 12an.

ESKER ONA

Felisa Guridi Guridi



Angel Milikuaren alarguna

2013ko apirilaren 3an hil zen, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko apirilaren 12an.

ESKER ONA

Antonio Gorostidi Eraña



Nati Urrutiaren alarguna

Arrasaten hil zen 2013ko martxoaren 31n, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, etxekoen izenean.

*Txabola eta ortua Heldu zaizu ordua
maite zenituen hartzeko atsedean
hantxe dauzkagu denok maite zaitugu, Antonio
hainbat oroitzapen. zeruan eta hemen.*

Arrasaten, 2013ko apirilaren 12an.

ESKER ONA

Bixente Arregi Etxabe



'Axe'

Arrasaten hil zen 2013ko apirilaren 7an, 88 urte zituela.

Une honetan gurekin izandakoei, elizkizunetara etorri eta samin-agurrak bidali dizkiguzueno, eskerrik asko bihotz-bihotzez familiakoen izenean.

Eskerrik asko zurekin ikasi eta bizi izan dugun guztiagatik, aitaita.

Arrasaten, 2013ko apirilaren 12an.

ESKER ONA

Esteban Eguren Beitialarriogitia



'Usetxe'

Arrasaten hil zen 2013ko apirilaren 5ean, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara hurbildutakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko.

Haren aldeko meza domekan izango da, apirilaren 14an, 11:00etan, Arrasateko Urbarri auzoko Itxaropenaren amaren elizan.

Bertratuko zareteno, aurrez eskerrik asko. Arrasaten, 2013ko apirilaren 12an.

ESKER ONA

Txomin Otxoa Garcia-Etxabe



'Gerra'

2013ko apirilaren 4an hil zen.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren aldeko elizkizuna domekan izango da, apirilaren 14an, 12:30ean, Aretxabaletako Galarza auzoko Santa Luzia elizan. Bertratuko zareteno, aurrez eskerrik asko.

Elkorobarrutiatar koinatu-koinatak eta ilobak. Aretxabaletan, 2013ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA

Bixente Arregi Etxabe



Lourdes Arregi lankidearen aita

Arrasaten hil zen 2013ko apirilaren 7an, 88 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.



Arizmendi ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak. Leintz bailaran, 2013ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA

Esteban Eguren Beitialarriogitia



'Usetxe'

Arrasaten hil zen 2013ko apirilaren 5ean, 75 urte zituela.

Begiak malkoz beterik daude zu betirako galtzean. Baina leku bat gorderik duzu gu guztion bihotzean.

"Kasatxo" taldeko zure lagunak. Arrasaten, 2013ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA

Txomin Otxoa Garcia-Etxabe



'Gerra'. Taulerueneko kantarixa.

2013ko apirilaren 4an hil zen.

Zure bozak eta alaittasunak arrasto handixa itzi daue gure artien, Txomin, eta nekez ahaztuko ditugu.

Aretxabaleta Abesbatzako kidiok goguen eukiko zaitugu beti gure kantuetan.



Aretxabaleta Abesbatza. Aretxabaletan, 2013ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA

Ane Miren Yarza Barcena



Ikastolako gurasoa.

Arrasaten hil zen 2013ko apirilaren 7an, 56 urte zituela.

Gure bihozmina adierazten diegu etxekoei.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak. Leintz bailaran, 2013ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA

Aitor Guridi Iriarte



Iriparre ironikoz ibaialdeko harkaitza mugak gainditzen saiatuz menderatu arte gaitza gogoratuko diagu hik betetako baldintza beti auzotarren alde eman duk hire bizitza

Mingaina beti jostari oineztagi hire hitza hire makulua bedi indar emaile, geriza etsipena uxatzeko erabil daiteken giltza hire hutsunea bete ezinean bagabiltza

Ino, Patxi, Oihana, Arkaitz, Ioli, Pitote, Izadi eta Txiron. Arrasaten, 2013ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA

Aitor Guridi Iriarte



2013ko martxoaren 27an hil zen.

Forjari bat Arrasaten Etxe Txikinetakoa. Erreka garden alboan Egiazale egindakoa. Gamiztein ta Arantzazun Letretan hezitakoa Hamaika larri unetan Laguntzen jardundakoa.

San Andresko alkatetzan Erraldoi, zintzo, tinkoa. Berari esker auzoan Gainditu zen arazoa. Aberri aske baterako Bideak landutakoa Aizkarriko magalera Aitor Urbiarantz doa.

Maite zaitugu. Etxekoak. Arrasaten, 2013ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA

Elisabeth Unzilla Atxotegi



Oñatin hil zen 2013ko apirilaren 8an.

Zure alaitasunarekin irabazi gintuzun, zure barre bezalakorik, gutxi. Ahaztezina, Eli.

Zure lagunak. Oñatin, 2013ko apirilaren 12an.

ARRASATE Gorakada taldearen erakusketa

Ongi etorri Gorakadaren mundura. Guk adina gozatzea espero dugu; hala saldu dute erakusketa. Gorakada antzerki taldearen 25. urteurrenaren harira antolatutako erakusketa da. Txotxongiloak eta argazkiak daude ikusgai, besteak beste.

Hilaren 30era arte, Kultureteko klaustroan, 17:30ean.



JON BEREZIBAR



GOZATEGI

OÑATI Gozategi taldearen emanaldia

Lizargarate Trikitizale Taldeak antolatuta Gozategi taldearen emanaldia. Azken 20 urteetan plazarik plaza abestu dituzten abestien bilduma osatu dute, eta horiek abestuko dituzte. Txotx egiteko aukera egongo da, doan. Sarrera 5 euro.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean.

MUSIKA**ESKORIATZA ZZ Blues Band taldea**

ZZ Blues Band taldea errepideak erretzen dabil bere rhythm-and-blues musikarekin. Emanaldia doan izango da.

Gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan 22:00etan.

BERGARA Aldeta taldearen emanaldia

Aldeta taldeak kontzertua eskainiko du. Sarrera 8 euro.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan 22:00etan.

BERGARA Hil Aiari, Guillotina eta Herstura

Hil Aiari Zalla eta Balmasedako kideek osatutako taldeak azken diskoa aurkeztuko du. Hain zuzen, hardcorea metal ukituarekin egiten dute. Guillotina Torrelavegatik datorren talde berria da. Eta Herstura, aldiz, Oñatiko taldea da.

Gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean 22:30ean.

OÑATI Muguruzaren Lurra proiektua

Oñatiko Gaztetxean Lurra taldearen emanaldia. Lurra Iñigo Muguruzaren azkeneko proiektua da. Soinu akustikoetatik abiatuta, bossa, bluesa eta reggaea nahasten dute. Sarrera 3 euro. Aurretik afaria egingo dute gaztetxean, 21:00etan.

Gaur, egubakoitza, Antixena gaztetxean 22:30ean.

ARRASATE Deifus eta Abas DSK taldeen rap emanaldia

Rap saioa eskainiko dute Deifus eta Abas DSK sortzaileek. Ondoren, DJ Unai ibiliko da musika jartzen.

Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan 23:00etan.

BERGARA Samesugas eta Desastrozombies

Txapa irrati libreak antolatuta, Samesugas talde galiziarra eta Desastrozombies-Astrozombies taldearen errautsetatik sortutako musika egitasmoa.

Bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean 22:30ean.

OÑATI Musika Bandaren kontzertua Santa Anan

Oñatiko Udal Musika Bandaren kontzertua Santa Anan, Iñaxio Ibarrondoren zuzendaritzapean.

Etzi, domeka, Santa Ana antzokian 12:45ean.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

APIRILAK 12
APIRILAK 18

ANTZERKIA**OÑATI 'Euskararen espektakulue' Oihan Vegarekin**

Euskararen espektakulue Oihan Vegarekin. Sarrera, 5 euro.

Gaur, egubakoitza, Gaztelekuan 22:30ean.

ELGETA 'Para lo que hay que vivir, mejor no morir nunca'

Gorka Otxoa eta Carla Hidalgoekin. Gaupasa Produksioak ekoiztuta.

Gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian 22:30ean.

BERGARA 'Manos ke rien'

Mimo, antzerki, film labur eta musika ikuskizuna. 8 euro.

Bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan 19:00etan.

IKUSKIZUNAK**OÑATI Txirri, Mirri eta Txiribiton**

Terapia ikuskizun berria aurkeztuko dute Txirri, Mirri eta Txiribiton junior pailazoek. Antxintxiketan kirol elkarteak antolatu du.

Bihar, zapatua, Santa Anan 16:00etan.

ARRASATE Munduko kontu kontalariak: Arnau Vilardebo

Munduko kontu kontalarien nazioarteko jaialdiaren barruan, Arnau Vilardebo.

Gaur, egubakoitza, Kultureteko areto nagusian 11:00etan.

ARRASATE Munduko kontu kontalariak

Kultureteko areto nagusian, Maitte Arrese, Valia Percik eta Arnau Vilardebo. Munduko ipuin kontalarien nazioarteko jaialdiaren barruan.

Gaur, egubakoitza, Kultureteko areto nagusian 19:00etan.

OSPAKIZUNAK**ARRASATE Otxia txakolinaren aurkezpena**

Otxia txakolinaren aurkezpena egingo dute, urtero moduan, Kajoi tabernan.

Etzi, domeka, Kajoi tabernan 12:30ean.

ARRASATE EAJko alderdikideak gogoan

Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiaren izango den meza

nagusian, hil diren Arrasateko EAJren alderdikideak gogoan izango dituzte. Ondoren, gerturatu nahi duten guztientzat luncha egongo da Batzokiko tabernan. Etzi, domeka, San Juan Bataiatzailearen parrokiaren 11:00etan.

ARRASATE Azoka eguna

Azoka berezia egingo dute goizeko hamarretan, eta arratsaldean haurrendako ipuin kontaketa eta moda desfilea.

Bihar, zapatua, Azokan 10:00etan.

BERGARA Artisau eta zaporeen azoka

Artisau eta zaporeen azoka San Martin plazan.

Gaur, egubakoitza, San Martin plazan 19:00etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**ARRASATE Harrera familia**

Zuondoan elkarteak egin duen dokumentalaren aurkezpena. 18:00etan *Maddi eta Antton* haur antzezlan, eta 19:00etan *Gu ere harrera familia gara* dokumentala.

Apirilaren 17a, eguaztena, Kulturaten 18:00etan.

ERAKUSKETAK**BERGARA Iker Egañaren erakusketa**

Iker Egaña oñatiarraren pintura erakusketa Aroztegin. Hilaren 28ra arte egongo da ikusgai. Zapatutan: 12:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 20:30era. Domeketan: 12:00etatik 14:00etara.

Gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan 18:00etan.

TOPAKETA**BERGARA 'Hesiak gainditzen' dokumentala**

Hesiak gainditzen dokumentala, batik batik, gurasoei zuzenduta dago. Euskarara hurbiltzeko ahalgina egin zutenei eta egiten ari direnei esker ona adierazteko egindako dokumentala da. Aurkezpen lanetan, Eneko Barberena eta Aizpea Otxandiano Txatxilipurdiko kideak ibiliko dira. Gidoia Arteman Komunikazioa enpresarekin eta Jon Maiarekin batera garatu du Txatxilipurdik, Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Apirilaren 17a, eguaztena, Irizar jauregian 19:00etan.

ARRASATE Saharar herriari elkartasuna

Apirilaren 17an Preso Politikoen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Horren harira, Arrasateko Askapenak eta Nubi elkarteak, Saharar Preso Politikoei eta oro har Saharar herriari elkartasun keinu bat bidali gura die. Hainbat ekintza egingo dituzte.

Apirilaren 17a, eguaztena, Herriko plazan 18:00etan.

LITERATURA**OÑATI Tertulixan irakurketa kluba**

Tertulixan irakurketa kluba. *Belarraren ahoa*, Harkaitz Canorena. Eta gazteleraz: *Madame Bovary*.

Apirilaren 16a eta 17a, martitzena eta eguaztena, Liburutegian 18:30ean.

ARRASATE Literatura solasaldiak

Zinea eta literatura solasaldia egingo dute. *Bola de sebo* liburua eta *La diligencia* filma aztertuko dituzte.

Apirilaren 17a, eguaztena, Jokin Zaitegi aretoan 18:00etan.



ANDONI EGAÑA

ANTZUOLA 'Bertso-klown' finala

Bertsoak eta klown-a batzen dituen ekitaldiaz gozatzeko aukera izango da Torresoroan. Iñaki Gurrutxagak, Iñigo Izagirrek eta Jokin Urangak bertsoak botako dituzte eta Andoni Egañak -Oihulari Klowneko taldekidea- egingo ditu klown lanak. Umorerik, behintzat, ez da falta izango domekako saioan.

Etzi, domeka, Torresoroan, 19:00etan.



GOIENA

BERGARA Orfeoiak udaberriko kontzertua eskainiko du Bergarako Orfeoiak udaberriko kontzertua eskainiko du, Euskal Musikaren Antologia izenarekin. Bergarako Orfeoi Gazteak, Arkaitz Arana dantzariak eta Mikel Ostolaza eta Loiola Maderas txalapartariak ere hartuko dute parte. Etzi, domeka, Zabalotegi aretoan, 19:00etan.

HITZALDIAK

ARRASATE 'Historia ondo kontatzearen garrantzia'

Zuztarrak Errotuz-ek, Arrasateko Udalak eta Nabarraldeko antolatuta *Historia ondo kontatzearen garrantzia* hitzaldia. Gerardo Elortza, Saioa Alzua eta Anje Rekalderekin. Apirilaren 17a, eguaztena, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan 19:00etan.

ARETXABALETA Zuloak mintegia Fermin Muguruzak eta Arrate Rodriguezek eskainiko dute Zuloak mintegia. Apirilaren 17a, eguaztena, Zاراia aretoan 17:00etan.

ARETXABALETA 'El legado de Arizmendiarieta'

Joaquín Aguado Castoren hitzaldia: *Personas e innovación. La recuperación del origen como impulso hacia el futuro. El legado de Arizmendiarieta* gaia landuko du. Coprecik antolatuta. Apirilaren 15a, astelehena, Zاراia aretoan 19:00etan.

BESTELAKOAK

ARRASATE Bisita gidatua: Garagartzako San Migel elizaren erretaula

Bisita honetan parte hartzeko izena aldeztu aurretik eman behar da. San Migelen elezaharraren berri ematen duen XVI. mendeko erretaula bikaina ezagutzeko aukera egongo da. Bihar, zapatua, Garagartza auzoan 12:00etan.

DEIA

OÑATI Trauti elkartearen batzar orokor irekia

Herrian dauden oztopo arkitektonikoak kentzeko helburuarekin, urtean zehar egin duten lana eta Udalarekin izan dituzten hartu-emanen berri emango dute. Apirilaren 16a, martitzena, Kultura etxean 17:30ean.

ANTZUOLA Txistularien diana herriko kaleetan

Txistulariek diana joko dute herriko kaleetan. Etzi, domeka, Herriko kaleetan 10:00etan.

OÑATI Aloñako zuhaitz eguna

Elurratigatik atzeratu egin zuten Aloñako zuhaitz landaketa. 50 landara, lizarrak eta pagoak, landatuko dituzte. Etzi, domeka, Arantzazun 09:00etan.

OÑATI Genero harremanak landuko dituzte

Urtarrilean, Gasteizko gaztetxean leku desberdinetako jendea bildu zen gaiaz hausnartzeko eta zer egin pentsatzeko. Helburu nagusia etapa desberdinen bidez gaztetxeetan genero harremanei buruzko eztabaidak piztea eta hoberako aldaketak bultzaraztea izango dela adostu zuten. Oñatiko batzarrerako gaztetxeetan edo gizarte mugimenduetan genero harremanei buruz dauden baliabideak (edozer: panfletoak, taillerak, antzerkiak, pegatak...) erakzteza eskatu dute. Bihar, zapatua, Oñatiko gaztetxean 11:00etan.

ANTZUOLA Gaztetxean bilera

Jaietako lehenengo pausoak lotzeko bilera egingo dute. Gaur, egubakoitza, Antzuolako gaztetxean 19:00etan.

LEHIAKETAK

OÑATI Pintxo lehiaketa

Sustrai fruta-dendak antolatuta, Kale Barriko dendaren aurrean. Barazki eta frutekin egin behar dituzte pintxoak. Gaur, egubakoitza, Kale barria 18:00etan.

ARETXABALETA Huhezinema, ikasleen filmak

Ikasleen filmak eskainiko dituzte, Huhezinema lehiaketaren barruan. Apirilaren 17a, eguaztena, Zاراia aretoan 10:30ean.

ARETXABALETA Euspot lehiaketa

Euspot lehiaketako iragarriak ikusteko aukera egongo da martitzenean. Apirilaren 16a, martitzena, Zاراia aretoan 19:00etan.

ARAMAIO Txirritolaren ipuin lehiaketa

Martxoaren 15a baino lehen entregatu behar dira ipuin lehiaketako lanak, Aramaioko Udal Liburutegian. Apirilaren 15a, astelehena, Udal liburutegian 12:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

La trama
Zapatuan: 19:30, 22:00.
Domekan: 19:30.

Jack, el cazagigantes 3D
Zapatuan eta domekan:
17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEAN

Parker
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30.
Domekan: 19:00, 22:30.
Astelehenean: 19:00.

Los Croods
Zapatuan eta domekan:
17:00.

Holy Motors
Eguena: 20:00.

ARETXABALETA

ZARAIA

Amor
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:00.
Domekan: 19:30.
Astelehenean: 16:00.

Karety
Zapatuan eta domekan:
17:00.

EIBAR

COLISEO

El chico del periódico
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30

Anna Karenina
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

COLISEO ANTZOKIA

Oblivion
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30

GASTEIZ

GORBEIA

Oblivion
Egubakoitzean: 17:30,
20:00, 22:30.
Zapatuan eta domekan:
16:30, 19:00, 21:30,
0:00.
Astelehenetik egunera:
19:00, 21:30.

Lol
Egubakoitzean domekara:
18:15, 20:15, 22:15.
Egubakoitzean eta
zapatuan, baita: 0:15.
Zapatuan eta domekan,
baita: 16:15.
Astelehenetik egunera:
19:45, 21:45.

Posesion infernal
Egubakoitzean domekara:
18:10, 20:10, 22:10.
Egubakoitzean eta
zapatuan, baita: 0:10.
Astelehenetik egunera:
19:15, 21:15.

Un amor entre dos mundos 3D
Zapatuan eta domekan:
15:45.

Un amor entre dos mundos
Egubakoitzean domekara:
18:00, 20:15.
Astelehenetik egunera:
18:45, 21:00.

For greater glory
Egubakoitzean domekara:
22:00.
Astelehenetik egunera:
21:10.

G.I. Joe: la venganza 3D
Egubakoitzean domekara:
22:25.
Egubakoitzean eta
zapatuan, baita: 0:40.

G.I. Joe: la venganza 3D
Egubakoitzean eta
zapatuan, baita: 0:35.
Zapatuan eta domekan,
baita: 15:35.
Astelehenetik egunera:
21:10.

Los croods 3D

Egubakoitzean domekara:
18:30, 20:30.
Zapatuan eta domekan,
baita: 16:30.
Astelehenetik egunera:
19:40.

Los croods
Egubakoitzean domekara:
17:30, 19:30.
Zapatuan eta domekan,
baita: 15:30.
Astelehenetik egunera:
18:40, 20:40.

The host
Egubakoitzean domekara:
19:30, 22:00.
Astelehenetik egunera:
18:35.

Por la cara
Egubakoitzean eta
zapatuan: 0:30.

Parker
Egubakoitzean domekara:
22:30.
Egubakoitzean eta
zapatuan, baita: 0:45.
Astelehenetik egunera:
21:40.

Argo
Egubakoitzean domekara:
22:35.
Zapatuan eta domekan,
baita: 0:45.
Martitzen eta egunean:
21:25.

Oz: un mundo de fantasía

Egubakoitzean domekara:
17:55.
Zapatuan eta domekan,
baita: 15:30.
Astelehenetik egunera:
18:55.

Jack el cazagigantes
Zapatuan eta domekan:
17:00.

El lado bueno de las cosas
Egubakoitzean domekara:
20:20.
Astelehenetik egunera:
21:25.

Rompe Ralph!
Zapatuan eta domekan:
16:00.

Grandes esperanzas
Martitzenean eta
egunean: 21:10.

BOULEVARD

Oblivion
Egubakoitzean domekara:
18:00, 19:30, 20:30,
22:00.
Egubakoitzean eta
zapatuan: 23:00, 0:30.
Zapatuan eta domekan,
baita: 15:30, 17:00.
Astelehenetik egunera:
18:30, 19:00, 21:00,
21:30.

Alacran enamorado
Egubakoitzean domekara:
17:45, 19:45, 21:45.
Egubakoitzean eta
zapatuan, baita: 23:45.
Zapatuan eta domekan,
baita: 15:45.
Astelehenetik egunera:
18:30, 20:20, 22:10.

G.I. Joe: la venganza
Egubakoitzean domekara:
17:45, 20:00, 22:15.
Egubakoitzean eta
zapatuan, baita: 0:30.
Astelehenetik egunera:
19:15, 21:40.

G.I. Joe: la venganza 3D
Zapatuan eta domekan:
15:30.

Los croods
Egubakoitzean domekara:
18:30, 20:30, 22:30.
Zapatuan eta domekan,
baita: 16:30.
Astelehenetik egunera:
19:30.

Los croods 3D
Egubakoitzean domekara:
17:45.
Zapatuan eta domekan,
baita: 15:45.
Astelehenetik egunera:
19:00.

Los ultimos dias
Egubakoitzean domekara:
18:15, 22:10.
Astelehenetik egunera:
19:00.

Posesion infernal: Evil dead
Egubakoitzean domekara:
18:40, 20:40, 22:40.
Egubakoitzean eta
zapatuan, baita: 0:40.
Zapatuan eta domekan,
baita: 16:40.
Astelehenetik egunera:
18:30, 20:20, 22:10.

Efectos secundarios
Egubakoitzean domekara:
18:05, 20:15, 22:25.
Egubakoitzean eta
zapatuan, baita: 0:35.
Astelehenetik egunera:
19:10, 21:20.

Tesis sobre un homicidio
Egubakoitzean domekara:
17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik egunera:
17:30, 20:00.

Los ultimos dias
Egubakoitzean domekara:
17:00.
Astelehenetik egunera:
17:30.

Grandes esperanzas
Egubakoitzean domekara:
19:45, 22:30.
Astelehenetik egunera:
19:45.

Oblivion
Egubakoitzean domekara:
17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik egunera:
17:30, 20:00.

Alacran enamorado
Egubakoitzean domekara:
18:00, 20:15, 22:30.
Astelehenetik egunera:
18:00, 20:15.

Los croods
Egubakoitzean: 18:00.
Zapatuan eta domekan:
12:00, 16:50, 18:45.

Efectos secundarios
Egubakoitzean domekara:
20:30, 22:30.
Astelehenetik egunera:
18:00, 20:15.

Rompe Ralph!
Zapatuan eta domekan:
15:55.

Dando la nota
Zapatuan eta domekan:
16:00.

Anne Karenina
Egubakoitzean eta
zapatuan: 0:30.
Astelehenetik egunera:
21:30.

FLORIDA

Tesis sobre un homicidio
Egubakoitzean domekara:
17:15, 19:45, 22:30.
Astelehenetik egunera:
17:15, 19:45.

To the wonder
Egubakoitzean domekara:
17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik egunera:
17:30, 20:00.

Los ultimos dias
Egubakoitzean domekara:
17:00.
Astelehenetik egunera:
17:30.

Grandes esperanzas
Egubakoitzean domekara:
19:45, 22:30.
Astelehenetik egunera:
19:45.

Oblivion
Egubakoitzean domekara:
17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik egunera:
17:30, 20:00.

Alacran enamorado
Egubakoitzean domekara:
18:00, 20:15, 22:30.
Astelehenetik egunera:
18:00, 20:15.

Los croods
Egubakoitzean: 18:00.
Zapatuan eta domekan:
12:00, 16:50, 18:45.

Efectos secundarios
Egubakoitzean domekara:
20:30, 22:30.
Astelehenetik egunera:
18:00, 20:15.

Barbara
Egubakoitzean domekara:
18:00, 20:15, 22:30.
Astelehenetik egunera:
18:00, 20:15.

KRITIKA



EFFECTOS SECUNDARIOS

★★★★

Zuzendaria: Steven Soderbergh.

Herraldea: AEB.

Urtea: 2013.

Aktoreak: Rooney Mara, Jude Law, Catherine Zeta-Jones.

Iraupena: 109 minutu.

Psikiatra baten estualdiak

Steven Soderbergh thriller generora hurbildu da psikiatren eta medikamentuak egiten dituzten talde handien mundua azaltzen duen istorioa kontatzeko. *Efectos secundarios* bi zatitan banatzen da. Lehengo zatiko protagonista ezkondua dagoen neska gazte bat da. Senarra kartzelan egon da zalantza negoziotari sartzeagatik; emazteak tristura eta depresio seinale ugari ditu. Kamera beti neskaen zain dago: senararekin, lanean eta psikiatrarekin dituen harremanak ikusiko ditugu, baita askotan izango dituen krisialdi psikologikoak ere. Filmaren lehenengo zatia gertakizun tragiko batekin

bukatuko da eta hortik aurrera kamerak psikiatren jarraipena egingo du. Gertatutakoak psikiatren biziaren hankaz gora jarriko du. Sortutako familia, lana eta lortutako arrakasta galtzeko zorian egongo da. Lehengo zatian ikusitakoa zalantza jarriko da, ez genekien datu eta ezusteko ugari emango dira eta psikiatrarik ahaleginak egingo ditu bere ingurunean sortutako trama konpontzeko. Istorioan biraketa handiak ematen dira, dena aldatzen duten datuak agertuko dira ikuslearen arreta mantendu nahian.

Efectos secundarios-en lehenengo eszenan gela bat eta pare bat osagai odolez zikinduta agertzen dira. Hala, ikusleak

badaki istorioak gertakizun kezagarriak izango dituela. Hortik aurrera, *flash-back* bidez, gaixo dagoen neskaen bizitza eta portaera ikusiko ditugu, psikiatren eta enpresa handien loturak eta psikologikoki oso egoera txarrean dagoen gizartearen pilulen beharra eguneroko errotua mantentzeko. Dena den, guzti hori thriller-era inguratzeko bildukia besterik ez da. Bigarren zatian ematen diren biraketak dira filmaren ardatz nagusia. Zuzendariak erabiltzen duen estiloa agian serioegia da. Kontatzen dituen gertakizunak azaltzeko beharrezkoa zen filmari ukitu ludikoagoa ematea.

ANTONIO ZABALA



goiena

2013-04-12

BUKATZEKO

Zaldia bizitza errealaren erdia-erdian

- ▶ Oñatiko Pottoka-lekun gaur egun horren modan dagoen 'coaching'-a egiten dute zaldiekin
- ▶ Helburua da zaldiekin landutako balioak eguneroko bizitzan aplika daitezkeela ikastea

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Komunikazioa, talde-lana, lidergoa, errespetua eta halako hitzak oso ohikoak dira Oñatiko Pottoka-leku zalditegian. Gaur egun horren modan dagoen *coaching*-a egiten dute zaldiekin. Oñatiko Zuazola Larraña institutuko ikasleek, esaterako, esperientzia bitxi hori probatzeko aukera izan dute.

Talde Gidaritza Naturagunean izeneko moduluko ikasleak dira, eta zaldiekin lan egitea da euren ikasgaietako bat. Zaldien psikologia ikasi dute lehenengo, zaldi gainera igotzen gero, eta basoan zehar zaldi gainean ibiltzen ikasi dute hirugarren hiru hilekoan. Tartean, baina, zaldiekin *coaching*-a zer den ikasteko aukera ere izan dute.

Talde-lanaren garrantzia

Zalditegian egindako ariketarako batean, esaterako, ikasleek zaldia zirkuitu baten sartzea lortu behar zuten, eta buelta oso bat egina-raztea. Hori egiteko baldintzak honakoak ziren: ikasleak elkarri eskutik helduta egotea uneoro, elkarrekin berbarik ez egitea eta zaldia ez ukitzea, ezta janariarekin xantaia egitea ere. "Konturatu gara gauzak poliki eginez gero eta ingurukoiei kasu eginez gero



Zuazola Larraña institutuko ikasleak Oñatiko Pottoka-lekun ariketa bat egiten. | OIHANA ELORTZA



Jon Elortza eta Arrate Izagirre. | O.E.

ondo ateratzen direla. Uste dut ikasitakoak eguneroko bizitzarako ere balioko digula", kontatu zigun amaieran Maider Cabok.

Horixe da, hain justu ere, helburua, zaldiekin landutako balioak bizitza errealeko esparruetan aplikatzea edo egoera batetik beste egoera hobe batera nola pasatu jakitea. "Egiten ditugun egoerak eguneroko bizitzaren metaforak izan daitezke eta zal-

diarekin ikasten dugu egoera batetik beste egoera idiliko batera nola pasatu. Aldaketa prozesu bat da, alegia", azaldu digu irakasle lanetan ibiltzen den Arrate Izagirrek.

Jon Elortza da zalditegiko jabea, eta adierazi digu ikasleendako bakarrik ez, enpresa, familia, bikote eta norbanakoendako ere oso aproposa dela *coaching*-a zaldiekin egitea.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Alderik txarrena

Ez dut uste pertsona batzuk berez onak direnik eta beste batzuk txarrak. Errazegia litzateke. Aldiz, sinetsita nago denok daukagula aukera guzua onak eta txarrak egiteko. Eta bakoitzak landu dituen balioen arabera ateratzen dugula egoera baten aurrean gure onena edo txarrena.

Eta, pertsonekin bezala, uste hau daukat gizarteetako ere, alegia, kultura kolektiboak eta egoeraren nolakoak ateratzen dutela gizarte baten handitasuna edo miseria.

Azken boladan zaborraren kudeaketa bihurtu da gure miseriaren adierazle. Gai teknikoa da, teknikoki erraz samar konpontzeko modukoa, nahiz egia den gizarte eredu ezberdina dagoela soluzio bakoitzaren atzean. Eta hor beharrezkoa zen ereduaren gaineko eztabaida zentzuzkoa, jasangarritasuna bilatzea kostu ekonomiko eta sozialen artean.

Baina alderdikeriak gaiztotu du gaia, marra gorriak gaintzeraino. Berez teknikoa den gaia bihurtu da hil ala bizikoa, alde bakoitzak aldarrikatzen du arrazoi osoa eta ustez zilegi zaio bestearen gainetik berea jartzea, kosta ahala kosta. Kultura kolektibo eskasa daukagu gaiak adosteko eta alderdien jokoak gure gizartearen alderik txarrena bistaratu du.



AUDIFONOETAN

%20

ARTEKO BEHERAPENA MAIATZAREN 31 ARTE

ENTZUMEN-OSASUN EZIN HOBEAZ GOZATZEA

USTE DUZUNA BAINO ERRAZAGOA DA.

GAESen ENTZUMENA DOAN

aztertuko dizugu.

Eta orain gainera zorro tolesgarri bat opari.

www.gaes.es




* Kontsulta itzazu zentroan, promozioaren baldintzak

Otalora Lizentziatua 18 • Tel.: 943 71 27 93 • ARRASATE
Zurradero 10 • Tel.: 943 76 94 55 • BERGARA